goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2013-05-03
EGUBAKOITZA
551. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



XABIER URZELAI

## Gure ziklismoaz, profesionalekin

Odriozolak, Sanchezek eta Irizarrek harrobiko klubak aldarrikatu dituzte | 21

Asteburua Atxorrotzera begira emango dute Eskoriatzan | 24



'Ahotsen soinua' emanaldia Bergaran zapatuan | 24



Mendi Tour: mendia pantailara ekarriko dute martitzenean | 22

# Fagorren etorkizuna aztergai

Datozen asteotan erabakiko da Fagor Etxetresnen norabidea | 2

## Garraio publikoaren sistema goitik behera aldatuta

Mugiren balorazioa egin du Larraitz Ugarte diputatuak | 4

## Txipa duen edukiontziaren alde EAJko zinegotziak

Debagoieneko EAJk sistema hori aldarrikatu du | 3



## "Urte askoan entzun dugu gure hizkuntzak ez duela baliorik"

**Sacha Rosero Lema**
Kichwa Sisary programakoa | 8


ARANTZAZUKO ARTXIBOA

## Arantzazuko ikasle ohien topaketa domekan

III. Arantzazu Eguneko ospakizuna egingo dute | 9

### SINADURAK


Neskak azkarregiak dira | 5
VALEN MOÑUX


6 | Inoiz ez delako berandu
TXOMIN MADINA


Maiatzaren 1a eta greba orokorra | 32
AGURNE BARRUSO



## MUNDUKO BIGARRENA, ETXEKOA

Turkian jokatutako munduko txapelketan bigarren postuan geratu da Arrasateko kenpo borrokalaria; min hartuta, baina pozik bueltatu da Josu Letona | 20

**Josu Letona, Turkian irabazitako dominekin.**
JAGOBA DOMINGO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 5 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 | KULTURA 22 | GAZTEAK 26 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

# Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldearen etorkizuna mahai gainean

## Martitzenean batzar orokorra egingo dute Arrasaten; eguaztenean, berriz, Basaurin (Edesa), eta maiatzaren 13an korporazioarena izango da

U.M./L.K. | ARRASATE

Datorren martitzenean, maiatzaren 7an, egingo dute Fagor Etxetresnetako bazkideek aurtengo batzar orokorra. 2.000 lagun pasa daude deituta; izan ere, bazkide aktiboez, gaur egun bertan lanean dabiltzanez gain, bazkide ez aktiboak ere deituta daude, gaur egun lanean ez egon arren kapitala oraindik kooperatiban dutenak. Garagartzako Garbigailu, Ontzi Garbigailu eta Egosketa plantetako bazkideak, zerbitzu zentralekoak, Hozkailuetakoak, Eskoriatzako plantakoak (presiozko lapikoak) eta Bergarako Geyser lantegikoak daude deituta, hain justu.

### Lanpostuak seme-alabei

Batzar orokorra Uarkape frontoian izango da, eta 09:30erako egin dute lehen deialdia; bigarrena, berriz, 10:00etarako da. "Gure batzarrak luzeak izaten dira; hiruzpalau ordukoa izango da", adierazi du Elena Goirizelaiak, Fagorreko komunikazio arduradunak.

Gai-zerrendan, besteak beste, Fagor Etxetresnen iazko kontuen eta emaitzen berri ematea eta haiek onartzea dago; 2012ko Gestio Planaren gaineko akordioa eta iazko emaitzen banaketa ere bai; 2013rako Gestio Plana onartzea ere proposatuko dute; eta, besteak beste, lanpostua bazkideen seme-alabei uztearen gaineko puntua kentzea planteatuko diete bazkideei.

Berez, aipatutako puntuok kooperatibaren beraren norabidea bideratuko dutenak izateak batzarrari garrantzi handia emateaz gainera, bestelako berezitasunik ere badu martitzeneko hitzorduak; izan ere, KontseiluBerria iniziatibak bere proposamena aurkeztuko du. Ahots Kooperatibista korronteko kideek eta beste bazkide batzuek osatu dute KontseiluBerria.

### Bost puntuko programa

Bada, KontseiluBerria iniziatibak bost puntuko programa aurkeztuko du Fagorren batzarrean, honako eskaerekin: "1: Debagoieneko eta Basauriko planta produktiboetako lana mantentzea; 2: aurrerakinak ez jaistea gehiago eta 20 milioi euroko aportazioa ahalbidetzea kooperatibaren kapital sozialari, aparteko ordainsariaren erdia emanez kopuru horretara irtsi arte; 3: Kontseilu Errektore gardenago eta parte-hartzaileagoa, Estatutu Sozialek dioten moduan; 4: Kapital sozialaren ekarpenak bueltatzea errespetatzea eta borondatezko ekarpenak negoziatzea, eta 5: Ekarpen Finantzario Subordinatuen portzentaje bat erostea, kasu kritikoak konpondu eta Fagorren ospea berreskuratzeko". Baina puntu horien artean, KontseiluBerriarentzat garrantzitsuenak dira "lanpostuak eta produkzioa hemen mantentzea (Debagoienean eta Basaurin) plantak itxi barik" eta kooperatibaren funtzionamendu orokorra "gardena eta parte-hartzailea" izatea, "ekonomiako enpresa sozial baten modura".



Fagorren ikurra. | GOIENA

### Errektore Kontseilu berria

Horrekin batera eta 400 bazkideren sinadurek babestuta, beste eskaera bat ere egin du korronte kritikoak: Kontseilu Errektore berria aukeratzeko bozketa eskatzeko puntua batzarreko gai-zerrendan sartzea. Bada, puntua gai-zerrendan onartu egin duten arren, KontseiluBerria iniziatibak azken orduan erabaki du ez duela hori "defendatu" behar.

"Hala ere, Kontseilu Errektoreko presidente izateko hautagai Kepa Belaustegik (KontseiluBerria iniziatibako kide denak) bazkideen esku utziko du puntu hori. Hori bai, gaur egun beharrezkoa ez dela pentsatzen duenez, eta arazotsua izan daitekeela uste duenez, bide hori bertan behera gera dadin ahalegina egingo du", jakinarazi dute KontseiluBerriko iturriek.

Errektore Kontseilu osoa berritzeko eskaera ez defendatzeko erabakian "eragina izan du, besteak beste, orain arteko Errektore Kontseiluko presidentearen (Xabier Retegi) dimisioak, Kontseiluko 12 kidetatik 7 berrituko direla (erdia baino gehiago) eta KontseiluBerriak hautagaitza alternatiborik" lortu ez izanak, esplikatu dute. Hala ere, esandakoa, bazkideen esku utziko dute batzarrean puntu hori bozkatu edo ez.

### Bozketa proposamena

Erabakia dena delakoa izanda ere, KontseiluBerria iniziatibak jakinarazi du bide hori itxiz gero, bost puntuko euren programa (edo "sikiera 1, 3, 4 eta 5 puntuak") lortzeko "ikusten duten bide bakarra" dela batzarrean aurkeztuko diren sei puntutan ze boto eman proposatzea, eta baita ere, Kepa Belaustegi presidente izatearen alde bozkatzea, "gure programarekin bat datozen presidente-orde, idazkari eta lau bokalen alde ere eginez".

### Seme-alaben jarraipenari, bai

Boto proposamenari dagokionez, berriz, KontseiluBerriak proposatzen du honako hiru puntuon kontra bozkatzea: 2012ko Gestio Plana; 2013ko Gestio Plana; eta bazkideen lanpostua bazkideen seme-alabei uztearen gaineko puntua kentzea.

Azken horrekin lotuta, diote "bazkideekiko konpromisoa" dela "krisi sasoian seme-alabei aukera eman behar" zaiela langile finko edo aldi baterako permanente moduan sartzeko. "Modu horretan, kapitala enpresan mantenduko litzateke, likidezia beharra eta kapital kopuru txikia dugun honetan". >

ESANAK

**"Fagor, eta zehazki Fagor Garagartza itxi edo saltzeko dagoenik ez da egia"**

ELENA GOIRIZELAIA | FAGOR

### Epe luzerako hazkunde proposamena

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak 2012ko emaitzak aurkeztu ditu asteon, "epe luzeko iraunkortasuneko hazkunde proposamenarekin batera". Zera azpimarratu dute: "Merkatu-kuota %0,7 gehitu du Espainian eta sektoreko bosgarren fabrikatzaile europarra izateari eusten dio, %16,3, %14,2 eta %7,2ko merkatu-kuotak lortuz Espainian, Frantzian eta Polonian, hurrenez hurren". 2016rako plan estrategikoan, berriz, "salmentak 100 milioi euro gehitu nahi ditu". Eta horretara bideratutako planaren ardatz nagusiak izango dira "enpresa-aliantzen bidez kooperatibak produkzio-kostuak optimizatzea, erosketa bateratuak egitea eta bere marketako etxetresna elektrikoak garatzeko bidean dauden herrialdeetan komertzializatzea".
Horrekin batera, jakinarazi du iaz 37 milioi euro inbertitu zituela berrikuntzetarako. Eta 1.167 milioi euroko fakturazioarekin itxi zuela ekitaldia (2011n baino %9 gutxiagorekin). Hain zuzen, 89 milioi euroko saldo negatiboa dute, "kontsumoaren beherakadaren, nazioarteko hedapenera bideratutako inbertsioaren eta merkatuaren errealitate berrira egokitzeko prozesuaren ondorioz". Bestalde, adierazi du, baita ere, "nazioarteko salmentak negozio-bolumenaren %76" izan zirela. Aldiz, fakturazioa %10,9 jaitsi zen estatuan. Hala ere, 2013an %10eko hazkundea espero dute nazioartean. "Hedapen-esparru berria urratuko du Dubain ireki berri duen filialari esker. De Dietrich, Fagor eta Brandt markak komertzializatuko dira Ekialde Ertainean".



Urteko kontuak eta 2012ko emaitzen banaketari, berriz, baiezkoa ematea proposatzen dute.

Eta horrekin batera, korronte kritikoko iturriek azpimarratu dute kooperatibak proposatutako soldaten jaitsieraren arrazoiaren atzetik "galerak eragin dituen kudeaketa akats handiak" daudela. "Geldialdiak eta esplikaziorik ez duten bestelako defizientziak" aipatzen dituzte. Hala ere, gaineratzen dute soldatak jaistea onartuko balitz, modu progresiboan egin beharko litzatekeela hori; hau da, "gehien jaitsita gehien irabazten duenari eta gutxien soldata txikiena duenari".

**"Epe luzerako proiektua"**

Edozelan ere. Fagorren batzar orokorrean erabakitzen den guztia ez da behin betikoa izango. Izan ere, Mondragon Korporazioak maiatzaren 13an duen batzarrak erabakitzeko eskumena dauka, kooperatiba legearen arabera.

Dena dela, argi dagoena da datozen asteotan finkatuko dela Fagorren norabidea. Ez ditu orain bizi bere historiako momenturik onenak, baina, "ez da egia" Fagor, eta zehazki, Fagor Garagartza ixtekotan dabiltzanik, eta ezta ere saltzeko bidean dagoenik, azkenaldian entzun izan den moduan. Elena Goirizelaiak puntu hori gezurtatzeaz batera, gogora ekarri du "abenduan lau urterako plan estrategikoa" onartu zela, eta "epe luzerako proiektua dugu", gehitu du indarrez.

# Debagoieneko EAJko zinegotziak, txipa duen edukiontziaren alde

## Jeltzaleek uste dute baliagarria dela birziklatzeko helburua lortzeko

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

Debagoieneko herrietako EAJko zinegotziek asteon eskatu diote Bilduri txipa duen bosgarren edukiontzia ezar dezala bailarako herri guztietan, atez atekoaren ordez. "Txip honen bidez jendeari hobariak aplikatu ahal izateko, eta eguneroko pedagogian birziklatzearen kultura areagotzeko", esan du Aintzane Oiarbide Bergarako zinegotziak, eta ondorengoa gehitu: "Ez behartuta edo inposizioaren bitartez, jendearen jarrera eta laguntza behar-beharrezkoa baita sistema batek ondo funtzionatzeko".


EAJko ordezkariak Oñatiko agerraldian. | JULEN IRIONDO

**Birziklatzeko helburua**

Bosgarren edukiontziarekin benetako apustua egin den lekuetan demostratu da, EAJren esanetan, oso baliagarria dela ahalik eta gehien birziklatzeko helburua lortzeko. Oñatiri dagokionez, bestalde, Lourdes Idoiagak esan du Bilduren Udal Gobernuak ez dituela bete udal tramitazioan ezarritako prozeduren arauak: "Ez dute aurkeztu, obligazioa izanda ere, Ingurumen batzordean edo Zerbitzu batzordean atez atekoa abian jartzeko osotasuneko proiekturik, proiektu global gabe eraman dute aurrera; behintzat, udal batzordeetan aurkeztu gabe diktamenerako edo ebaluaziorako. Bertan, hainbat ikuspegi izaten dira baloratu beharrekoak eta, besteak beste, gune historikoan izango duen eragina".

Oñatiko EAJko Udal Taldeko bozeramaileak gehitu du gune historikoak monumentu-multzo izendapena duela, eta gune publikoetan egin beharreko edozein aktuazioak monumentu-multzoarekiko integrazioa eta bateratasuna bermatu behar duela. Udalak zintzilikarioen ezaugarri eta kokapen zehatzekin proiektua idatzi eta Gipuzkoako Aldundian aurkeztu behar zuela, honek baimendu zezan: "Hori da ez dena bete EAJk eskatu arte eta gaur egun ez dugu ezagutzen azken diktamena zein izango den edo nola jokatuko duen Foru Aldundiak", esan du Idoiagak.

### Oñatiko alkateak ukatu egin ditu EAJko Idoiagaren esanak

Lourdes Idoiagak esandakoari erantzunez, berriz, Mikel Biain Oñatiko alkateak ukatu egin du Idoiagaren salaketa, eta dio hartutako erabaki guztiak "hartu beharreko organoetan" hartu direla, eta "lege baldintza guztiak beteta". Dio ez dela batzorde monografiko bat egin gaiaren gainean, baina batzordeetan aztertu aztertu dela gaia. Eta zehazki, gune historikorako proposamena EAJri helarazi ziotela eta gaia aztertzeko bilera eskaini ere bai, baina jeltzaleek ez dutela bildu nahi izan.

Oñatiko gune historikoari buruz esandakoaren gainean, berriz, Oñatiko alkateak adierazi du Gipuzkoako Diputazioarekin harremanetan dagoela Oñatiko Udala gai hori dela–eta, eta egin beharreko tramiteak egin dituela Hirigintza Sailak. Eta Biainek zehazten du Oñatiko gune historikoan ez dela "inongo inpakturik" izango, ez direla, adibidez, ontziak paretetan zintzilikatuko, baizik eta orain edukiontziak dauden lekuan egongo direla esekitokiak.



# Inperialismoa, herri boterea eta beste aztergai bihar Arrasaten

U.M. | ARRASATE

Euskal Herriko erakunde internazionalista Askapenak II. Formazio Mintegia egingo du Arrasaten, oraingo zapatuan eta datorrenean. *Herri jantzia, garaipenaren hazia* da leloa eta Etxaluze eraikinean egingo dute mintegia, goizez eta arratsaldez. Oraindik, gainera, izena emateko aukera bada, honako helbidean: *formaziomintegia@askapena.org*. "25 pertsonak eman dute izena bertan, baina arrasatear oso gutxik. Arrasatearrak animatu nahi ditugu bertan parte hartzera", adierazi dute antolatzaileek. Hitzaldiak doan dira. Bazkaria, berriz, 12 euro.

**Adituen eskutik**

Herri boterea, inperialismoa, borroka feminista eta mundu arabiarreko matxinadak eta inperioen kontraerasoa landuko dituzte bihar, gaietan adituak diren hizlariekin. 10:00etan hasiko dira eta 18:00etan izango da azkeneko hitzaldia.

Datorren zapatuan, berriz, Europa krisian, ezker iraultzaileen erronkak, alternatiba sozioekonomikoak eta euskal inperialismoa landuko dituzte.

**EGITARAUA**

**MAIATZAREN 4A**

**10:00** Iñaki Gil de San Vicente.

**12:00** Bilgune Feminista

**16:00** Manuel Navarrete.

**18:00** Martxelo Diaz.

**MAIATZAREN 11**

**10:00** Santi Ramirez.

**12:00** Abya Yala

**16:00** Luismi Uharte.

**18:00** Nekane Jurado.

## Herri Urratsera joateko autobusak daude Debagoienetik

Debagoieneko euskaldunon elkarteek autobusa antolatuko dute maiatzaren 12an Herri Urratserako. Irteera orduak honako hauek dira: 08:45ean Aretxabaletatik (Azbe); 09:00etan Arrasatetik (Garibai) eta 09:15ean Bergaratik (autobus geltokia). 12 euro da prezioa (10 euro bazkideendako).

## 'Zaldiekin jolasten' ekimenerako izen-ematea zabalik

Aniztasun funtzionala duten umeen gurasoen Zu Behar Zaitut! elkarteak 0 eta 20 urteko ume zein gazteentzako *Zaldiekin jolasten* ekimena antolatu du. Maiatzean eta ekainean egingo dute, bi ordu astero (70 euro). Izena emateko: 616 76 88 35 edo *zubeharzaitut@gmail.com* helbidean.

Larraitz Ugarte | Diputazioko bozeramailea eta Mugikortasun eta Azpiegituren diputatua

# "Gipuzkoako sare lehiakor, bateratu, bidezko eta iraunkorraren aldeko apustu handia da"

Mugi tarifa–sistemaren gaineko hasierako balorazioa egin du Ugarte diputatuak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hilabete baino gehiago pasa da Mugi tarifa-sistema bateratua martxan jarri zutenetik Gipuzkoako garraio publikoan. Erabiltzaileak, orokorrean, gustura daude sistema berriarekin, baina kexu bat zein beste ere eragin ditu Mugik. Horren guztiaren gainean galdetu diogu Larraitz Ugarteri, Diputazioko bozeramaileari.



Larraitz Ugarte. | GOIENA

**Zein da orain arteko balorazioa?**

Oso pozik gaude, Gipuzkoako garraio publikoko sare lehiakor, bateratu, bidezko eta iraunkorraren aldeko apustu handia delako. Proiektua diseinatzea eta kudeatzea ez da erraza izan, goitik behera aldatu behar izan dugulako Gipuzkoako garraio publikoaren sistema. Baina zailtasunak gainditu ditugu eta garraio publikorako tarifa-sistema bateratua duen EAEko lehen lurraldea gara.

**Herritarrek zela hartu dute Mugi?**

Harrera ona egin diote, gehienbat, onurengatik. Mugik deskontu handiak eskaintzen dizkie garraio publikoa gehien erabiltzen dutenei, garraiobide ezberdinetako bidaiek kostu bera izan dezatela bermatzen du, garraiatzaile berarekin egindako garraio-aldaketak doan dira eta deskontuak eskaintzen ditu ezberdinekin egindakoetan, eta hobariak eskaintzen dizkie taldeen bateko erabiltzaileei baldintza oso onuragarrietan bidaiatzeko.

**Zeresana eman dute gazteen taldeko arazoek edo Kutxabankeko sarean txartelak ezin kargatu izanak...**

> "Goitik behera aldatu dugu garraio publikoaren sistema"

> "Zailtasun gehien dituztenei laguntzea da Mugiren helburu nagusietako bat"

Arazoak izan ditugu, baina gehienak konpondu ditugu. Gazteei dagokienez, talde jakin batekoak direnez, egiaztatu behar dute errenta-eskakizunak ez duela 2,5ez gainditzen IPREM adierazlea, eta hori egiaztatzeko baimena eman behar dute. Arazoa izan da ezin izan dela egiaztatu, Ogasunarekin inongo harremanik ez edukitzeagatik, Gipuzkoako Foru Ogasunaren datu-basean erregistratu gabe zeuden gazteen errenta. Ondorioz horien txartelak blokeatu egin ziren, eta Mugi arrunta bidali zitzaien, eskakizuna betetzen ez zutelakoan. Egoeraren berri izan bezain pronto, Agintaritzak arazoa konpondu eta txartel horiek desblokeatu zituen. Horrela, aipatutako erabiltzaileek bi txartelak erabili ahal izango dituzte, denbora batez. Kutxabanki dagokionez, hark ez du bete Mugi sistemako txartelak bere sarean kargatzeko epeak betetzeko konpromisoa. Horrek atzerapenak eragin ditu, eta martxoaren 18a arte ezin izan dira Mugi txartelak Kutxabankeko kutxazainetan kargatu. Esan, arazo hori Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eskumenetik kanpo badago ere, barkamena eskatu nahi diegula erabiltzaileei horrek eragin ahal izan dizkien eragozpenengatik.

**Ezartze prozesuan, zer nabarmenduko zenuke?**

Parte hartu dugunon lan gogorra. Mugiren helburu nagusietako bat garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak saritzea da, eta gehienbat, zailtasun gehien dituztenei laguntzea, taldeentzako hobarien bidez. Horretarako, errenta-eskakizun bat ezarri dugu: talde jakin bateko erabiltzailearen errentak ezin du 2,5ez gainditu IPREM. Hori egiaztatzeko, banan-banan aztertu behar dira kasuak. Gainera, ahalegin handia egin dugu herritarrei arreta emateko. Horrela, 80.000 kontsulta baino gehiago kudeatu dira arreta zentroetan, eta 35.000 txartel berri baino gehiago inprimatu eta bidali dira. Horri esker, dagoeneko 180.000 txartel baino gehiago erabili dira Mugin, tarifa-sistema bateratuaren onurekin.

**Ze zailtasun nagusi izan dituzue?**

Nagusia aldaketa bera izan da; aurreikusi ezin diren hainbat gairi aurre egin behar izan diegu. Bereziki, informazio-eskaera masiboari. Berehala antzeman genuen hori, eta informazioa emateko zerbitzuak indartzea erabaki genuen. Hala, informazio-gune ibiltariak jarri genituen Gipuzkoako hainbat herritan. 20.000 lagun baino gehiagoren galderak erantzun dira, eta 6.000 eskaeratik gora izapidetu. Aldi berean, indartu egin genituen Mugiren informazioa emateko bideak: Easo kaleko (74. zk.) Bezeroei Arreta Emateko Bulegoak, 943 000 117 telefonoa eta *www.mugipuzkoa.com* webgunea. Azkenik, Mugi sareko saltokietako lana eta ahalegina azpimarratu nahiko nuke: 19.770 txartel izapidetu dituzte eta herritarrei informazioa eskaini diete, eskuzabaltasun osoz.

ULMA
ULMA Manutención, S. Coop. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIALDIA**

**Eguna:** 2013ko maiatzaren 10a.
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
**Tokia**: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2012ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
5. 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
7. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak.
8. POGU III eta ULMA Manutención, S. Coop.eko Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea, hala badagokio, Justifikazio Txostenean azaldutakoaren arabera.
9. ULMA Manutención, S. Coop.eko Estatutu Sozialetako 22. artikulua aldatzea, hala badagokio.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena.
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
13. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
14. Auditorea izendatzea edo berrautatzea.
15. Ahalmenak eskuordetzea.
16. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Manutención, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2013ko apirilaren 26a

COPRECI
COPRECI, KOOP. ELK.

**2013ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroldegian**, egingo da 2013ko maiatzaren 10ean, arratsaldeko 3 t'erdietan lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 4etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2012ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2013ko Gestio Plana onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2012ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2012ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. 2013 ekitaldirako Lan Aurrerakinen inguruko erabakiak.
8. Kooperatibako Estatutu Sozialen 53. artikulua aldatzea.
9. Fagor S.Coop.eko Estatutu Sozialen 43. eta 56. artikulua aldatzea.
10. 1/2013 Plusen Tarifa Araudia onartzea, Barne Erregelamenduko 72. artikuluaren aplikazioari buruzkoa.
11. Bazkide Berriak Hautatzeari buruzko Arauaren 7. artikulua ezabatzea.
12. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
13. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
14. Kontseilu Errektorea berritzea.
15. Zaintza Batzordea berritzea.
16. Kontseilu Soziala berritzea.
17. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Aretxabaleta, 2013ko apirilaren 23an

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren justifikazio txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo jasotzeko eskubidea.

## ZABALIK

**VALEN MOÑUX**
http://goiena.net/iritzia/



# Neskak azkarregiak dira

Nortzuk dira Ume Galduak? Galdetzen dio Wendyk Peter Pani.
– Bere zaintzaileak distraituta daudenean, kotxe kapotatik jausten diren mutikoak dira. Hamabost egunetan ez badituzte erreklamatzen, Sekula Betiko lurraldera eramaten dituzte.
– Mutikoak?... eta ez dago neskarik?
– Neskak azkarregiak dira hori gertatzeko".

Horrela dio *Peter Pan musikala*-ren oinarrizko gidoiak. Baina Bergaran taularatzerakoan, azken esaldi hauek *zentsuratu* behar izan genituen, gure Ume Galdu gehienak neskatilak baitira. Hainbat antzerki taldetan gertatzen den antzera, emakumeak gizonen papera egiten, Shakespeareren denboran bezala, baina alderantziz. Musika arloan ere berdin gertatzen ari da, gero eta gehiago. Neskek beti izan dute joera gehiago horrelako jardueretarako, baina gurasoen eragina oso handia da. Argi egiaztatzen dut amek bai jartzen dutela interes handia bere seme-alaben kezka artistikoetan. Aitek, berriz, euren laguntza eta ilusioa kirol arloan jartzen dute, gehienbat. Askotan etortzen zait burura *Billy Elliot* pelikula zoragarria. Zenbat mutil ezagutzen duzue dantza akademiaren baten, klasikoa, modernoa edo folklorikoa, matrikulatuta dagoenik? Antzerkia, musika, dantza... nesken monopolio bihurtzen ari da, baina, honekin batera, esfortzu intelektual handiagoa behar dituzten jardueretan neskak hartzen ari dira abantaila garbia: maila altuko ikasketak, oposaketak... Sendagilea den nire lagun batek dio urte gutxi barru sendagile guztiak emakumeak izango direla, medikuntza ikasketarako eskatzen diren kalifikazioak ez baitira eskuragarriak mutilentzat. Eta hauek, bitartean, zertan? Kirolean, jo eta su, agian. Baina hemen ere neskak ez dira atzean gelditzen. Norbaitek badaki nork irabazi zuen domina olinpiko bat gure eskualdean? Azkenean Peter Panek arrazoia: "Wendy, neskato batek hogei mutiko baino gehiago balio du".

> **"Amek interes handia jartzen dute seme-alaben kezka artistikoetan"**

## USTEAK USTE

**TXOMIN MADINA** | tmadina@goiena.com

# Inoiz ez delako berandu

Zuen baimenarekin, eta erabilera guztiz neurekoia eginaz, lerro hauek eskerrak emateko erabiliko ditut. Eskerrak, munduko marmitakorik onena egiten duen horri. Urtetako lanak laztutako eskuekin laztanik sentituenak ematen dituenari. Oraindik ere ezkutuko eskupekoak ematen dizkidanari. Sutondoa beti prest duenari. "Kontuz errepidean" esaten duenari. Elurra egin arren, agur esatera etxeko atera etortzen denari. Familia guztia mahaian batuta ikustean gozatzen duenari. Aditzok akaso iraganean jartzea litzateke zuzenena. Baina ez dut nahi, badakit-eta joan arren oraindik hor dagoela. Esandakoa. Hemendik, eskerrik asko zuri, amandria!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Dopina estatu arazoa denean

**Joxe Aranzabal**
http://blogak.goiena.net/faroa/

Espainiak ez du inolako asmorik, antza, dopina erauzteko kiroletik. Atzo izan genuen beste froga bat, azkena, *Puerto auziaren* epaian. Berau bi izenburutan laburbil daiteke, gaurko *Berria*-k ondo dakarren moduan: 1. *Puerto auziko* epaileak urtebeteko zigorra jarri dio Eufemiano Fuentesei, lau hilekoa Jose Ignacio Labartari, eta absoluzioa gainerakoei. 2. Epaileak ez du baimenik eman miaketetan atzemandako odol poltsak berriz aztertzeko.

Europan atzeman den dopin kasurik handiena ezerezean geratuko da. Bertan txirrindularitzaren izen handiak agertu ziren: txirrindulariak, kirol zuzendariak eta medikuak. Baina txirrindulariez gain, susmoa dago futbolariak, tenislariak eta beste kirolari asko ari zirela erabiltzen Eufemiano Fuentesen zerbitzu industrializatua. Epaileak, baina, ez du jakin nahi izan norenak ziren atzemandako odol poltsa asko eta asko. Eta jakinarazi du epaia behin betikoa denean odol poltsak suntsiko egingo direla.

Espainia obsesionatuta dago "Espainia markarekin", eta garrantzi ezin handiagoa ematen dio kirolari, beronen bidez lortu baititu nazioarteko garaipenak eta sona hainbat kiroletan: txirrindularitza, atletismoa, futbola, tenisa, saskibaloia... Susmoak –eta frogak– zabaldu direnean garaipen horietako asko eta asko dopinaren laguntzari esker lortu zirela, estatuak beste aldera begiratu du, orain bezala.

Eta zenbaitetan, Alberto Contador txirrindulariaren gaineko epaia plazaratu bezperetan bezala, Espainiako presidentea eta oposizioko burua –Zapatero eta Rajoy hurrenez hurren– txirrindulariaren alde agertu ziren publikoan, iritzi publikoan eta epaileengan eragin nahian.

Mezu garbia jasotzen ari gara: zirkuak segitu beharra dauka, nahiz eta, noiz edo behin, pasarte ilun samarrak agertu, *Puerto auzia* bezalakoak.

Hala ere, ez du merezi pasarte horietan erreparatzea.

Etorkizuna da inportantea, kirolaren distira eta epika.

# Orpazurda

**Anjel Lertxundi Esnal**
www.berria.info/blogak/lertxundi/

Berripaper honek orpazurda darabil. Baita Mitxelena XVIak ere Zaldieroaren atzoko zintan. Baina Xuxenek ez daki —nire Xuxenek ez, behintzat— zer den orpazurda bat: gorriz markatzen zuen Berasaluze lurrean ziplo utzi zuen tendoi madarikatuaren izena. Iratiko Oihanekook ere ez genekien zer kriskitin ote den orpazurda bat, eta hiztegian begiratu behar izan genuen. Hiztegietan ikasi genuen: lagunarteko tertulietan guztiz gehienok *Akilesen zurda, zaina* edo *tendoia* deitu geniona orpazurda bat omen da.

Juan Luis Zabalak debate interesgarria piztu du sarean, *31 eskutik* blog kolektiboan, "gazteen artean oso zabaldua dago batutik ihes egiteko" joerari buruzko kezkatik abiatuta. Naturaltasunaren zelofanarekin datorkigun oro ez da hain natural eta debateko kezka nagusia da kaleko erabileren eta bulegoetako elaborazioen arteko zangaren sakona...

Akiles orpotik soilik zen hilgarri. Akiles hilda, orpazurdak minik ez...

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAk eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiatuko da egilearekin egoten hark labur dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Iturbide egoitzako langileei esker ona

**Jose Mari Urizar Irasuegi**
Arrasate

Orain dela egun gutxi zendutako Bixente Irasuegiren senitartekoek gure esker ona adierazi nahi diegu Iturbide egoitzako langileei.

Bizitza luzea (98 urte), baina, era berean, bere belaunaldikoei tokatu zitzaien bezala, gogorra izan zuen osabak, eta Iturbiden jasotako maitasun artean bizitako azken urteak asko estimatu zituen.

Gehiegi entzuten da, zoritxarrez, nagusiek egoitza batzuetan jasotzen duten tratu kaxkarrari buruz, eta gure aldetik, behintzat, argi utzi nahi dugu guztiz kontrakoa bizi izan dugula. Horrelako erakunde bati eskatu diezaiokegun profesionaltasunetik haratago, bertan bizi diren pertsonekiko hurbiltasuna eta maitasuna sentitu dugu guk, eta bihotzez eskertzen dugu.

Gure nagusiek dituzten behar guztiak asetzeaz gain, beraien etxean egongo balira bezala tratatzen dituzue, eta halaxe zen osabaren kasuan. Arazoren batengatik ospitalizatzea tokatu zitzaion bakoitzean bere eskari bakarra etxera bueltatzea izaten zen, Iturbidera bueltatzea, alegia.

Horregatik, egiten duzuen lan guztia eskertzeaz gain, etorkizunean ere modu berean jarraitzera animatzen zaituztegu, bizi dugun krisialdi gogor honetan pertsonak lehenesten dituen ereduaren adibide garbia baitzarete.

Eskerrik asko, guztioi.

## Liburuak irakurtzen

**Argitxu Zubillaga**
Leintz Gatzaga

Irakurtzean bakardadea sentitzen dut. Bakardade gozoa. Liburua ireki eta, lehen orrian, beste mundu batera joaten naizela amestea da helburua, eta gehienetan lortzen dut.

Betidanik egon izan den gauza zoragarri eta polita da. Lehen aberatsen eskura zegoena, gaur egun, zorionez, denok disfrutatu ahal duguna.

Jende askori gustatzen zaio bizi garen mundu hau utzi eta liburuetan aurkitzen diren abentura, drama eta mundu xelebreetara bidaiatzea. Baina jendearen beste kopuru handi bati liburuaren azalak ikusteak ere alergia ematen diola ematen du.

Haurtzaroan dibertigarria da, zerbait berria ikasten ari zarelako. Gaztea zarenean, berriz, denbora galtzea dela iruditzen zaizu, eta heldua zarenean denbora falta omen zaizu irakurtzeko. Orduan, noiz irakurtzen dute hain gustuko dutenek? Benetan irakurtzea gustatzen zaigunok beti dugu astia liburuetan agertzen diren herri, hiri, pertsonaia nahiz izaki bitxiez disfrutatzeko. Autobusean, bazkaltzean, atsedenaldietan… liburua hartu eta muturra bertan sartzea gustatzen zaigulako, gure mundua, arazoak… gelditu eta beste mundu batez gozatu nahi dugulako.

Liburu batzuek bizitzaren ikuspuntua aldatzen dizute, beste batzuek irria sorrarazten dizute ezpainetan, badira negar eginarazten dizutenak ere, denak ezin dira gustukoak izan, eta hori da liburuek duten gauzarik politena.

## Atez atekoari bertsoak

**Eñaut Etxeberria Gereka**
(Oñati Zero Zabor)
Oñati

Xabier sukia bertsolariari gai hau jarri zioten Orixe txapelketan: "Etxera iritsitakoan zerbait aldatu dela sumatu duzu". Berak hiru bertso eder hauek bota zituen:

Etxera nator ttipi ta ttapa / Iluntzeko argi printzan / Eta gau freskoan brisan / Etxe ondoan kubo marroi bat /Nik espero nuen gisan (bir) / Aldaketa bat gertatuko da / Beraz ia gure bizitzan / Igual hala komeni zan / Zeozer aldatu egin da baina / Ez dakit zertan gabiltzan /Asko esaten ari zareten / Bezain txarra ez da izan (bir).

Aldaketa bat estetikoa / Ta aldaketa bat gugan / Kubo marroiaren gudan / Beraz aldatu behar sailkatu / Zaborra neguan, udan (bir) / Aldaketakin batzuk haserre / Ta beste batzuk liluran / Bagoaz abiaduran / Jendea kontra suma dezaket / Fede txarrez eta dudan / Birziklatzeko premia duen / Zenbat ikusten ditudan (bir).

Euskal Herria aldatuko da / Lehen aldatu zen Europa / Herriai hau diot opa / Etorkizuna ona izango da / Gero txin-txin eta topa (bir) / Astelehenean, asteartean, / Erabaki da zer bota / Ez doa inoren kontra / Baina ez dakit zergatik dagon / Hainbeste arrazoi mota / Ate bat dagon tokian beti / Irtenbide bat dago ta (bir).

## Intxortan gertatutakoak oroitzen

**Oxel Erostarbe**
(Elgetako alkatea)
Elgeta

Aurreko domekan, Gerra Zibilean gertatutakoak oroitzeko errekreazioa egin genuen Elgetan, *Intxortako atea*-n. Gure herrian gertatutakoak gogoratzeko hainbat ekimen aurrera eraman ditugu azken urteetan, behingoz justizia egon dadin eta berriro horrelakorik ez gertatzeko helburuarekin.

Idatzi honen bitartez, eskerrak eman gura dizkizuegu ekimen hau aurrera ateratzeko laguntza eman diguzuen guztioi, baita bertaratu zineten guztioi ere. Bereziki Intxorta 1937 Kultura Elkarteko kideak eta errekreazioan parte hartu zenuten lagunak aipatu gura genituzke. Udaletxetik herrigintzan dihardugunontzako gero eta zailagoa da auzolana oinarri duten ekimenak aurrera eramatea. Domekan erakutsi zenuten indarrak batuz, auzolanean, posible dela. Biba zuek!

## Bost mila eta bostehun

**Arrate Illaro Etxebarria**
(Euskaltzaleen Topagunea)
Getxo

Astean behin, auzoko taberna batean sartu eta bost laguneko taldetxoa egoten da bertan. Ez dute hutsik egiten, eta ez dago zalantzarik: berbalagunak dira. Belarria jarri nuen lehen aldian ohartu nintzen.

Freskagarri bat eskatu, eta ondoan esertzen naiz batzuetan. Asteburuari buruz hitz egiten dute, gizarte arazoei buruz, Athletici buruz… hitz egitea baita euren helburu nagusia, euskaraz hitz egitea. Estimatzekoa da egiten duten esfortzua, gozagarria daukaten ilusioa, eta azpimarratzekoa denen konpromisoa.

Boskote hori, ordea, ez da kasu isolatu bat. Urte hasierarekin batera, datu bilketa egin dugu Euskaltzaleen Topagunean, eta hara! 5.500 mintzalagun daude Euskal Herri osoan. 5.500 herritar, euskaldunon komunitateko kide aktibo izateko prest. Nork esango zien Donostiako Bagera euskaltzaleen elkarteko kideei, duela 20 urte martxan jarri zuten egitasmo xume hori hainbesteraino hedatuko zenik?

Euskaraz aritzeko ohitura dutenak ohiturarik ez dutenekin elkartzen ditu mintzapraktika programak. Euskaldunen elkarteen mugimenduak, euskaltegiek eta zenbait udalek apustu sendoa egin zuten duela hainbat urte, eta ordutik etengabe ari dira mintzalagun taldeak bikoizten. Iruñerrian, esaterako, 550 mintzakide batzen dira; eta Gasteizen, beste 640. Erraz esaten ditugu zenbakiak, baina irudikatuz gero, harrigarria irudituko zaio bati baino gehiagori. Ni, behintzat, harrituta gelditu nintzen Topagunean lanean hasi eta dimentsioa ezagutu nuenean.

Mintzalagunek euskarara hurbiltzeko egiten duten ahalegina goraipatzen dugu askotan, baina zer egin dezakegu freskagarria hartuta inguruan esertzen garen euskaldunok? Erronka handi bat daukagu. Euskaldunon elkarteek, bertako bazkideek zein euskaldun guztiok talde txikietan sortzen ari den dinamika hori zabaltzeko eginkizuna daukagula uste dugu Topagunean. Mintzalagunen eginahala gizarteratu behar dugu. Kalera atera ginen, ziren, baina orain administraziora, dendetara, bulegoetara zein merkatura atera behar dugu. Astero ordubetez egiten duten ahalegina egunerokora zabaldu behar dugu, hizkuntza ohituretan eragin, eta euskararentzako eta euskaldunontzako gune berriak irabazi behar ditugu. Algortako tabernan zein Bergarako parkean biltzen diren boskote horien lana islatu dezagun.

Ezin dugu ardura guztia euskaltegien esku utzi, hauek lana ederto eginda ere. Herritarra komunitatean parte hartzeko gogoz dago, eta euskaldun guztion funtzioa da kide berriei ateak zabaltzea. Mintzalagunen taldeek ez dute zentzurik, talde horietatik kanpo euskararen erabilera bultzatzen ez badugu. Irabazi ditzagun gune berriak, eta lagundu diezaiegun gurekin batera aritu nahi duten horiei, euskaldunon komunitateak kide berriak izan ditzan.

## PNV: berriro saldu gaituzue

**Igor Tome**
(Oñatiko Ernairen izenean)
Oñati

Apirilaren 8an, euskal gazteria berriro ere kolpatua izan zen. Berriro ere, herri honekiko beraien konpromisoagatik eta egunez egun gizarte justuago baten alde lan egiteagatik, beste 8 gaztek 6 urte pasatu beharko dituzte espetxean. Ulertezina, Euskal Herrian bizi dugun garai berri honetan horrelako sententziak lekuz kanpo daudelako. Mingarria, beste zortzi pertsonak lau hormaren artean igaroko dutelako beraien gaztaroa.

Bidegabekeria hori salatzeko asmoz, apirilaren 9tik 19ra aurrekaririk gabeko ekimen solidarioa burutu zen Donostiako Bulebarrean: askegunea. Eskubide zibil eta politikoen defentsan eraikitako gune horrek jasotzen zituen nazioarteko atxikimenduak amaigabeak ziren, eta inor gutxik aurreikusi zezakeen garrantzi politikoa izatea lortu zuen. Bazirudien, lehen aldiz, tankera honetako sententzia politikoen aurrean inflexio puntu bat markatuko genuela. Baina, berandu baino lehen, batzuek guztia desegitea erabaki zuten.

Bai, egia da, sententzia Madrilek ezarri zuen. Baina PNVk bidalitako polizia izan zen bertan zeuden pertsonak jipoitu eta askegunea suntsitu zuena. Gero, gainera, atxiloketak modu baketsuan egin zirela entzun behar izan genuen komunikabideetan. Bertan geunden 15 oñatiarretatik, batek ospitalean amaitu zuen, beste bati behatzak begietan sartu eta lepoa gogor estutu zioten, arnas gabe utziz, eta guztiok jasan genituen kolpeak, irainak eta mehatxuak (neska batzuk bortxatzearekin ere mehatxatu zituzten).

Azkenaldian, alderdi honetako kideen aldetik sarritan entzun dugu bake eta normalizazio politikorako lan egingo dutela. Gaizki hasi gara. Berriro ere, PNVk ez du inongo arazorik izan Ertzaintza bidali eta euskal gazteria jipoitu eta espetxeratzeko, nahiz eta beraiek ere sententzia hori injustua dela aitortu. Argi gelditu da Madrilekin daukaten konplizitatea egoera politikoaren normalizazioaren gainetik dagoela beraientzat. Zuek zarete gertatutakoaren erantzule politikoak. Herriak ez du ahaztuko.

# NAZIOARTEKO IX. MAGIA MOSTRA

## 2013ko MAIATZAK 3-4 eta 5

## ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

### 3 - BARIKUA

**22:30 MAGIA IKUSKIZUNA**
Prezioa: 15 € (bazkideek 12 €)

Arturo de Ascanio, Pepe Carrol eta Juan Tamariz izan dira kartomagiako errege Estatuan, DaOrtiz izena ere entzuten da. Inprobisazioaren, kreatibitatearen eta naturaltasunaren maisua da.

**Dani DaOrtiz**
(Malaga)
Liluratzeko moduko karta jokoak.



### 4 - ZAPATUA

**22:30 MAGIA GALA**
Prezioa: 18 € (bazkideek 15 €)

**Luis Boyano**
(Galizia)
Kabina espiritista



**Pilou**
(Frantzia)
Karta manipulazioa



**Tá Na Manga** (Portugal)
Ilusionismoa artez jantzita



**Mario Lopez**
(Girona)
Magia zigarroekin



**Edama**
(Errioxa)
Ilusio handiak



### 4 - ZAPATUA eta 5 - DOMEKA KARPAN DOAN



**Magia tailerrak umeendako**
Zapatuan 16:00etan, eta domekan 10:30ean.



**Katia, gorputzik gabeko emakumea**
Zapatuan 19:00etan, eta domekan 13:00etan.

Sarrerak dagoeneko salgai online ere: www.espaloia.com - Bi ikuskizunetarako bonoa: 21 €, bazkideendako 18 € - Tel.: 943 78 90 85

Antolatzaileak: ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA · MagialdiA VITORIA-GASTEIZ

Babesleak: Elgetako Udala · goiena KOMUNIKAZIO TALDEA · PIKUPE PRODUKZIOAK

Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia · GEO Grupo Elcoro Decoletaje, S.L. · kutxa gizarte ekintza

**Sacha Rosero Lema** | KichwaSisariy programaren koordinatzailea

# "Urte askoan entzun izan dugu gure hizkuntzak ez daukala baliorik"

- Galbidean dagoen kitxua hizkuntza berreskuratzeko ahaleginetan dihardu Rosero Lemak
- Garabide elkarteak gonbidatua, gurean da egunotan, eta Jaurlaritzarekin elkartu da



Sacha Rosero Lema, kitxuarren erara jantzita, oraingo astean Aretxabaletan. | ENEKO AZKARATE

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Sacha Rosero kitxua hiztuna da, kitxua-otabaloarra, Ekuadorkoa. Hizkuntza minorizatuen gaineko ikastaro baten parte hartu zuen duela urte bi, Mondragon Unibertsitatean, Garabide elkartearen bitartez, eta bere ama-hizkuntza berreskuratu, bultzatu eta zabaltzea erabaki zuen. KichwaSisariy programaren koordinatzailea da.

**Zer da KichwaSisariy?**
Gure ama-hizkuntzan esan nahi du kitxuaren loraldia. Eta, hain justu ere, horixe da lortu nahi duguna: berrindartzea, loratzea, hedatzea, erabiltzea.

**Zein da kitxuaren egoera?**
Une kritikoan dago. Jon Sarasuak zioen kitxuak minbizia duela, baina tripako mina osatzeko botikak ematen ari zaizkiola. Oso grafikoa da. Une honetan ikerketa soziolinguistikoa egiten ari gara eta ohartu gara belaunaldi arteko transmisioa eten egin dela. Urte askoan entzun izan dugu gure hizkuntzak ez daukala baliorik, nekazarien hizkuntza dela, e.a. Mezu hori errotu egin da jendartean. Duela 50 bat urte euskararekin gertatu zen moduan. Eta gurasoek beren seme-alabendako onena nahi dutenez, gaztelaniaz zuzentzen zaizkie eta ez zaie kitxuaz mintzatzen, horrek dakarrenarekin. Eskoletan ere ez da erakusten eta galdu egin da. Belaunaldi berriek ez dute erabiltzen.

**Zela murgildu zinen kitxuaren berreskurapenean?**
Mondragon Unibertsitatean, Garabidek antolatutako ikastaro batean parte hartzeko aukera eta zortea izan nuen. Eta euskararen berrindartze prozesua zelakoa izan den ikusteko aukera izan nuen. Zein zen euskararen egoera duela hamarkada batzuk eta zein den gaur egun. Horrek erakutsi digu posible dela. Kitxuaren hiztun pasiboa nintzen ni. Ulertzen nuen, baina ez nuen erabiltzen.

**Zenbat hiztun ditu kitxuak eta zein da bere hiztun eremua?**
Duela 10 urte egin zen errolda bat eta 3 milioi ginen. Ekuadorko Andeetako aldean asko erabiltzen da.

**Kitxua baturik baduzue?**
Bai, kitxua, idatzizkoa, batuta dago. Halere, lau kitxua aldaera ditugu: Iparraldekoa, Hegoaldekoa, Erdialdekoa eta Amazonetakoa; azken honetan hizkuntza nagusia da. Ekuadorren, Bolivian, Perun eta Kolonbian berba egiten da.

**Ze estatus juridiko dauka?**
Ekuadorko Konstituzioak dio kitxua ofiziala izan daitekeela dagoen lurraldean, baina ez du zehazten zela. Bestalde, iaz indarrean jarri zen Hezkuntza Legeak ere jasotzen du ekuadortar guztiok daukagula geure hizkuntzan hezteak izateko eskubidea, baina ez du baliabiderik jartzen hori gauza dadin.

**Ze eredu darabilzue hizkuntza berreskuratzeko?**
*Txepetx*-en eta Fishmanen ereduak jarraitzen ditugu, baina, batik bat, lehenengoa. Bestalde, Hawaiako eredua ere badarabilgu, teknologia berriak erabiltzen ditugulako hizkuntza erakusteko. Kitxua ikasteko hiztegi fonetiko bat lantzen dihardugu... Izan ere, esaterako, Imbaburan, gure lan eremuan, 500.000 laguneko eskualdean, norbaitek kitxua ikasi nahi badu, ez du libururik edo hiztegirik aurkituko hango liburudenda edo liburutegietan. Ez daude. Guk hezkuntzako liburuak itzuli, digitalizatu eta sarean jarri ditugu denen eskura. Orain badago aukerarik, *Kichwa.net* webgunean.

**Eskoletan–eta erakusteko ahalegi-netan ere bazabiltzate?**
Bai. Imbaburako probintzia osoan kitxua erakusteko programa bat jarri dugu abian. 605 eskola dira. Lortu dugu gure proiektua bere gain hartzea Hezkuntza Ministerioak, baliabideak eskainita. Horrekin lotuta, irakasleak hezteko programa ere martxan da. Irakasleak formatu behar ditugu: hizkuntza jakiteaz gain, erakusten jakin behar dute eta militanteak izan behar dute. Bestalde, hamar urtera begira ireki nahiko genituzke lehen kitxuar ikastolak, ikasgai guztiak gure hizkuntzan eman ahal izateko.

**Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen dizue horretan, ezta?**
Bai, euskararekin egindako esperientzia guretako garrantzitsua da eta aholkularitza eskainiko digu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordeak. Lan hitzarmena bultzatu nahi dugu Ekuadorko eta Euskadiko gobernuen artean.

**Erakundeek, gobernuak, ze jarrera daukate kitxuarekiko?**
Aldekoa. Rafael Correa presidentea, esaterako, kitxua hiztuna da. Eta bere agerpen publikoetan erabiltzen du. Hori oso garrantzitsua da hizkuntzari estatusa emateko. Jada ez da nekazarien hizkuntza bakarrik. Zerbitzu publikoetan, ospitaleetan edo polizian, halere, ez zaituzte artatzen kitxuaz. Ez gara horretara heldu oraindik. Baina ministerio batzuk hasi dira erabiltzen kitxua publizitatezko mezuak zabaltzeko. Baita hiriburuan, Quiton, ere. Eta horrek badauka ondoriorik; izan ere, hainbat gaztelania hiztun hasi dira ohartzen kitxua ikastea garrantzitsua dela. Horrenbestez, oro har, gobernuaren jarrera ona da. Presidentearen edo Asanbladaren webguneak kitxuaz daude, hedabideetan albiste batzuk ere bai...

**Lan munduan–eta zein da egoera?**
Ezberdina da tokiaren arabera. Esaterako, Otavalon, badaukagu nolabaiteko botere ekonomikoa. Indar ekonomikoa daukan komunitate indigena bakarra da, musikari eta artisautzari esker. Aurrezki eta kreditu 30 bat kooperatiba daude. Eta bertako gerenteen ekimenez, kooperatiba horietan lan egin behar dutenek kitxua jakin behar dute.

**Bereziki komunikazio teknologia berrienak erabiltzen diharduzue hizkuntza zabaltzeko, ezta?**
Bai, eskura ditugun baliabideak erabiltzen ditugu eta kanpaina egiten gabiltza gure hizkuntza agerikoa izan dadin Interneten. Hiru webgune ditugu eta beste 5 profil Facebooken... 7 milioi bisita jaso ditugu eta horietatik %10ek kitxuaz erantzun du. Hori oso pozgarria da guretako, ze ez baita gure hurbilean dagoen jendea. Baina gure identitatea bultzatzen laguntzen dute; onena da gazteak dabiltzala horretan.

**Katalunian urteetan bizi izandakoa zara, baina orain berriro ere sorterrira itzuli zara...**
Bai, duela 6 hilabetetik Ekuadorren bizi naiz. Inportantea da orain han egotea, proiektua aurrera ateratzeko. 21 urte eman ditut aberritik kanpo, munduan barrena, han eta hemen. Une egokia da kitxua berreskuratzeko prozesuan buru-belarri murgiltzeko.

> "Kitxuak minbizia du, baina tripako minarendako botika hartzen du"

> "Belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa eten egin da"

> "Duela 10 urte egin genuen errolda bat eta 3 milioi kitxua hiztun ginen"

> "Guretako, euskara berreskuratzeko esperientzia eredugarria da"

# HERRIAK

OÑATI

# Ikasle ohien omenezkoa

- III. Arantzazu Eguneko ospakizunetan, seminarioan ikasi zutenek parte hartuko dute
- 'Nik Arantzazun ikasi nuen' lelopean mahai ingurua, elizkizuna eta bazkaria izango dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

1990ean itxi zituen ateak Arantzazuko seminarioak. Orduko eraikinetik ez dago arrastorik egungo Arantzazun. Akaso, Gandiaga Topagunearen barruan dauden pilotalekuetan har daiteke 70eko hamarkadako usaina. Aisialdirako eta kirola egiteko erabiltzen zituzten frontoiak, eta baita Arantzazura heldu aurretik frantziskotarrek zituzten futbol zelaiak. Gune haietan hartzen zuten atseden fraide izateko ikasketak aukeratu zuten mutikoek. "Arantzazukoa barnetegia zen. Eskola asko eman eta hartzen genituen. Domeka arratsaldeetan ere, ikasi egiten genuen". Berba horiekin gogoratzen du seminarioko jarduna Iñaki Beristainek.

Seminarioko pareta horien barruan bizi izandakoak eta ikasitakoak gogora ekartzeko, Arantzazuko ikasle ohiek topaketa egingo dute domekan (ikus beheko egitaraua). *Nik Arantzazun ikasi nuen* lelopean, III. Arantzazu Eguna ikasleen omenezkoa izango da. 150 bat ikasle espero dituzte, baina Arantzazuko seminarioaren historiak beste datu batzuk erakusten ditu: 1897. urtetik ateak itxi zituen arte 3.265 mutikok ikasi zuten han. Gehienak, gipuzkoarrak (1.765), bizkaitarrak (832), nafarrak (203) eta arabarrak (191). "Baina hemendik kanpoko fraidegai asko egon zen Arantzazun. Batez ere, fraide komentuak zeuden probintzietatik etorritakoak ziren: Errioxa, Burgos, Soria eta Valladolid", esan digu Beristainek.

### Ikasleen profilari buruz

1922an, fraidegaiak hezteko Eskola Serafikoa izatera pasa zen Arantzazuko seminarioa. Garai hartan, Giza Zientzietako bost ikasturte eskaintzen zituen, eta latina zen ikasgai nagusia. Gainera, ez zituzten edozein eskolatan ematen ziren ohiko ikasgaiak bakarrik ematen: erretorika-eskolak eta literatura emanaldiak oso ohikoak ziren Arantzazun. Urte haietan nabarmen hazi zen ikasle kopurua, eta, eraikina txiki geratu zenez, Foruan (Bizkaia) beste zentro bat egin zuten. Arantzazun frantziskotar izateko beharrezko formazioaren lehen hiru ikasturteak eskaintzen zituzten; azken biak, Foruan.


1959-60 ikasturteko ikasleak eta irakasleak Arantzazuko basilikaren sarreran.


Natur zientzietako eskolak.


Piano eskolak hartzen.


Arantzazuko ikasleak seminarioko gela baten.



1983-84 ikasturteko ikasleak Arantzazun. | ARGAZKIAK: ARANTZAZUKO ARTXIBOA

1922tik 1968ra arte seminarioko fraidegaiak landa-guneetatik edo hiritartzen ari ziren guneetatik zetozen. Euren gurasoak nekazariak ziren edo maila ekonomiko xumeko industria-langileak, eta sei seme-alaba zituen familia sinestuneko kideak.

1968an Eskola Serafikoa frantziskotarren seminario bilakatu zen, eta ikasleen profila erabat aldatu zen: gazte haiek bi seme-alaba zituzten familietako kideak ziren eta gurasoen interesei kasu eginez aukeratzen zituzten fraide izateko ikasketak, ez horrenbeste bokazioari. Han hasi zen seminarioaren gainbehera. "Ibilbide erlijiosoarekin jarraitzeko azken erabakia hartu behar zutenean, inork gutxik egiten zuen aurrera. Gainera, 1990ean, LOGSE legea indarrean jarri zuten. Horrek ikasle kopuruaren eta eraikinaren horniduraren inguruan hainbat aldaketa egitera behartzen zuen, eta seminarioaren itxiera azkartu zuen", esan digu Iñaki Beristainek.

Ateak itxi zituenetik, hutsik egon zen seminarioa, 2005ean Gandiaga Topagunea Kultura Zentroa eratzeko eraikinaren egitura birmoldatu zuten arte. Hortxe elkartuko dira, etzi, fraidegai izateko bidea hasitakoak –akaso, goiko argazkietako batzuk–: batzuk fraide izatera helduko ziren, eta beste batzuek askotariko bideak jarraitu zituzten. Talde argazkia egingo dute 13:00etan.

**DATUA**

**3.265**

IKASLE

Horiek dira 1897tik 1990era arte Arantzazuko seminarioan fraide izateko ikasketak aukeratu zituzten mutikoak. Horietatik gehienak gipuzkoarrak ziren: 1.765.

**EGITARAUA**

**10:00** Arantzazuko iraganari, gaur egunari eta etorkizunari buruzko gogoeta, Gandiaga Topagunean.

**12:00** Meza nagusia.

**13:00** Talde argazkia, bertsolariak eta trikitilariak Arantzazuko plazan.

**14:00** Bazkaria hotelean.

**ESANAK**

**"1968a ezkero ikasleen profila erabat aldatu zen: ez zituzten ikasketak bokazioagatik aukeratzen"**

IÑAKI BERISTAIN | FRANTZISKOTARRA

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iriztu - Iluntz | **5-3** |
| At. Betrayer - Aston Birra | **3-1** |
| Fidel & Discipulos - Dribling | **3-4** |
| Lasagabaster - Aldatz | **4-0** |
| Ostantz - Haizea's Weah | **7-5** |
| Abokajarro - Sonografos | **5-2** |

**A MULTZOAREN SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Lasagabaster | 12 | 3 |
| 2 | Sonografos | 11 | 3 |
| 3 | At. Betrayer | 8 | 3 |
| 4 | Aldatz | 8 | 3 |
| 5 | Abokajarro | 7 | 3 |
| 6 | Aston Birra | 2 | 3 |

**B MULTZOAREN SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Iriztu | 13 | 3 |
| 2 | Ostantz | 11 | 3 |
| 3 | Dribling | 9 | 3 |
| 4 | Fidel & Discipulos | 7 | 3 |
| 5 | Haizea's Weah | 5 | 3 |
| 6 | Iluntz | 3 | 3 |

**PARTIDUAK**

MAIATZAK 4, ZAPATUA

**10:30** Iriztu-Ostantz / **At. Betrayer**
**11:30** At. Betrayer-Abokajarro / **Ostantz**
**12:30** Haizea's Weah-Fidel. / **Abokajarro**

MAIATZAK 5, DOMEKA

**11:30** Sonografos-Lasaga. / **Dribling**
**12:30** Iluntz-Dribling / **Sonografos**
**16:00** Aston Birra-Aldatz / **Antolakuntza**

### Lehen biak lehian

Bi multzoetako lehen bi sailkatuak lehiatuko dira: Lasagabaster Sonografosen aurka eta Iriztu Ostantzen aurka. Ikustea merezi duten lehiak izango dira.



Omenaldiaren amaieran aurreskua dantzatu zioten Guridiren emazteari eta seme-alabei. | JAGOBA DOMINGO

# Omenaldi xume bezain hunkigarria Aitor Guridiri

Jende asko elkartu zen Gudarien plazan, auzo-alkate izandakoa omentzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Egun ezin aproposagoa aukeratu zuten Aitor Guridi zenari merezitako omenaldia egiteko: San Andres auzoko jaietako egun handiena eta Langileen Nazioarteko Eguna. Izan ere, Guridi San Andresko alkate izan eta auzoaren alde lan mardula egiteaz aparte, langileen borrokan ere aritu zen zenbait urtez.

Gudarien plaza jendez bete zen Guridiri eta haren familiari esker ona eta gertutasuna erakusteko. Halako jendetza hurbildu izana esanguratsua da oso. Omenaldi xumea baina hunkigarria izan zen; Guridi ez zen halako ekitaldien lagun, baina "egin beharrekoa" zen, Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkateak eta Juan Antonio Barriocanal zinegotziak –auzoko alkatea ere izandakoa– esan zutenez.

**Laguntzeko eta lanerako gertu**

Laguntzeko eta lanerako izan zuen prestutasuna azpimarratu zuen Azkarragaurizarrek: "Elkarlanerako gertu zegoen pertsona zintzo eta apala zen, gaur egun beharrezkoak diren horietakoa". Barriocanalek, bestalde, San Andres auzoan dauden kultura ezberdinak batzen saiatu zela azpimarratu zuen, eta beti auzokideei laguntzeko lanean egon izana eskertu zion. Auzoko kaleak alaitzen aritu ostean, 13:00etan heldu ziren txistulariak Gudarien plazara eta bertako oholtzara igo ziren Aitor Guridiren emaztea eta seme-alabak.

Eurekin batera, Guridi ondo ezagutzen zuten lagunak; adibidez, Jose Luis Etxeberria *Porru* udaltzainburu ohia. Omenaldiaren amaieran, Jon Barriocanal eungo auzo-alkateak koadro bat oparitu zion familiari, auzoko eragile guztien izenean. Guridik berak ezagutzera eman zuen Labeko kobari aipamena egiten dion Eugenio Otxoaren bertso bat jasotzen du koadro horrek. Amaitzeko, aurreskua dantzatu zioten hunkituta zeuden senitartekoei.

## Merkataritza eta turismoa eztabaida iturri osokoan

**J.B.** | ARRASATE

Erabaki garrantzitsuak hartu ziren martitzeneko osoko bilkuran. Besteak beste, aho batez onartu ziren aparkatzeko TAO sistema unibertsitate inguruan proba modura jartzea –urte amaierarako jartzea aurreikusten da–, Garaia Berrikuntza Guneari Udalak ia 50.000 euroko ekarpena egitea eta autobus urbanoaren zerbitzua handitzea, hiru geltoki berri jarrita. Gai horiek aurrez landutakoak zirenez, ez zen interbentziorik egon.

**Lanean, "buru-belarri"**

Alderdi sozialistak mozioa aurkeztu zuen, Udalari merkataritza eta turismoa bultzatzeko plan estrategiko bat eta Aldundiari diru partida bat eskatuz, besteak beste. Mozioa ez zen onartu, eskaera batzuk betetzen direlako eta horietan "buru-belarri" ari direlako lanean: "Merkatariekin oso harreman estua dugu eta guretako estrategikoa da, adibidez, azoka biziberritzeko ekimena. Oso pozik gaude Azoka Egunak izan zuen harrerarekin", esan zuen Maider Morras Bilduko bozeramaileak. PSE-EEko Aritz Arrietak harriduraz hartu zuen erabakia: "Eskatzen duguna da Aldundiari diru partida berezi bat eskatzea. Ez dut uste puntu batzuk betetzen direla esatea argudioa denik, batak ez du bestea kentzen".

### Erraldoien eta kilikien ate irekiak bihar, jende berria erakartzeko

Erraldoi eta kilikien konpartsak ate irekien eguna antolatu du biharko, kide berriak erakartzeko. 18:00etan hasita, Repelencia eta The Convicts taldeen kontzertua eta txistorra pintxoak egongo dira Zerrajerako erlojuaren erakinean, doan. Erraldoiak eta kilikiak probatu ahal izango dira.

# Arizmendi, Europako Gazte Parlamentura begira

Espainia mailako azken kanporaketan "lan polita" egin zuten gure ikasleek; orain, epaiaren zain daude

**J.B.** | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko batxilergoko hiru ikaslek hartu zuten parte Europako Gazte Parlamenturako azken kanporaketan. Bilbon jokatu zen kanporaketa, apirilaren 25etik 28ra: Leire Carreras, Irati Lopez eta Iker Bengoetxea. Ikasleekin batera egon zen Ana Arantzabal irakasleak kontatu digunez, "lan polita" egin zuten ikasle arrasatearrek: "24 ikastetxek hartu zuten parte, eta, ingelesari dagokionez, oso maila altua zegoen". Ingelesez berba egitera oso ohituta dauden ikasleak izan ziren Bilbon.

Espainiako azken kanporaketan hartu zuten parte eta bi ikastetxek bakarrik lortuko dute Europa mailarako txartela; astebeteko epea eskatu zuten epaimahaikideek irabazleak zeintzuk izango diren jakinarazteko.

**Saria, hamar egun Zurichen**

Hori bai, txartela lortu edo ez, Arizmendiko ikasleak pozik egon daitezke, lau eguneko esperientzia ezin aberasgarriago bat bizi izan zutelako. Irabazleek hamar egun pasako dute Zurichen (Suitza), bertan egingo den proban, Europa osoko ikasleekin batera. Dirutan ematen den saririk ez dago eta hainbat gastu ere partaideek ordaindu beharko dituzte.



Iker Bengoetxea, Irati Lopez eta Leire Carreras, Bilboko udaletxean. | ANA ARANTZABAL

**Esperientzia aberasgarria**

Lagun berriak ezagutzea, taldean lan egiten ikastea... Lau eguneko esperientzia ederra izan zen ikasleendako. Bilboko udaletxean egin zuten harrera ekitaldia –"oso ekitaldi polita", Arantzabalen esanetan– eta hiru egunetan zehar ekintza ezberdinak egin ostean, Bilborock eraikinean egin zuten azken debatea. Europako herrialde bat zozketan jaso eta hura ordezkatzeko lana eman zieten ikasleei. Gaztelupe guneko ikasleei Grezia egokitu zitzaien. Arrasateko ikastetxeaz gain, Euskal Herritik beste bi ikastetxek lortu zuten Espainia mailako kanporaketarako txartela.

GOIENA RENT
AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA
✔ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
✔ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
20€-tik eguneko
✔ Empresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
✔ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com
WWW.GOIENARENT.COM

# Azken txanpan sartzera doa Kooltur ekimenaren hirugarren ikasturtea

Fiachras taldearen kontzertua izango da azken emanaldia, ekainaren 6an

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kooltur ekimenaren *Kooltur Ostegunak* azken txanpan sartu dira dagoeneko; ekainaren 6an izango da hirugarren ikasturte honetako azken emanaldia. Hiru ikasturte dira dagoeneko eguenak kalitatez musikatuz. Eta musika izan ez denean, bestelako emanaldi interesgarriak eskaini dituzte. Ohikoak ez diren proposamenak ekarri dituzte gaztetxera, beti ere kalitatea bermatuz.

Horregatik lortu dute antolatzaileek arrasatearren zein bailarako herritarren artean errotu den ekimena izatea.

**Lau saio, askotariko eskaintza**

Geratzen diren lau saioetan, ikasturte osoan egin duten moduan, askotarikoa izango da eskaintza. Maiatzaren 9an antzerkia izango da protagonista: *Publikoari gorroto* antzezlana eskainiko du Ander Lipusek. Antzerkiari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra, publikoarekiko keinuz eta umorez. Pixkanaka, ordea, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... Giza izatearen amildegi ertzera iristeko asmoz dator aktorea. Lipus da eta beraz, ikuskizuna bermatuta dago. Maiatzaren 16an, Ibai Nikolai musikari berezia igoko da gaztetxeko agertokira: Australiako aborigenekin bizi eta gero, didgeridooa gainean zeramala Europa zeharkatu zuen. Orain, bere laugarren eta azken lana aurkeztera dator, haren ibilbideko lanik pertsonalena eta ausartena.

Hilaren 23rako The Capaces taldearen kontzertua lotu dute antolatzaileek. Bartzelonatik datoz eta Europako punk-rock talderik onenen artean kokatzen dute adituek. 1998an sortu zen taldea eta beraz, eskarmenturik ez zaie falta. Hilaren 30ean, greba deialdia dela-eta, ez da emanaldirik egongo. Ikasturtearekin amaitzeko, ekainaren 6an, Fiachras taldeak joko du. Lazkaoko Haritz Artola, Bergarako Aitor Aldanondo eta konpainia Sumision City Blues taldearekin batera single-a kaleratu berri datozela igoko dira agertokira. Folka, rocka eta beste hainbat doinu; baina, batez ere, hitzei eta ahotsari garrantzia berezia ematen dioten kantuak.



Ander Lipus da *Publikoari gorroto* antzezlaneko protagonista nagusia. | GOIENA

## Zelaitxotarren afari berezia

Mariano Azkarate *Zelaitxo*-ren (beheko argazkian) bilobek eta haien bikotekideek afari berezia egin zuten apirilaren 27an Musakolako Ziar-Ola elkartean. Giro ederrean ibili zirela esan digute.





JOSE LUIS AZKARATE

## Gaixo daudenei babesa erakusteko, meza berezia domekan

Gaixoen Eguna dela-eta, domekan meza berezia esango du Horacio Argarate parrokoak San Juan Bataiatzailea elizan: "Ahalegin berezia egiten dugu mezara joan ezin diren gaixoak etor daitezen. Mezan, noski, aipamena egiten diegu, eta otoitz bereziak egiten ditugu haien alde".



# Udal Gobernuak EAJ, PSE-EE, Bergara Garbia eta Zero Zaborrekin batzartu nahi du

- Bergara Garbiarekin atzoko adostutako bilera aprobetxatu nahi zuten mahaiaren bueltan batzeko
- Bilera atzeratu egin da eta EAJ Gobernuaren hondakinen proposamena idatziz jasotzeko zain dago

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehen iluntzean eta hondakinen kudeaketaren gaiak eragin zuen eztabaida gehien eskaera eta galderen tartean.

EAJk idatzi bat aurkeztu zuen bilkuran, alkateari hainbat galdera eginda. Horietako batean azalpenak eskatzen zizkion Debagoieneko Mankomunitatean, hondakinen kudeaketarekin lotuta, errekurrituta dagoen adjudikazio baten inguruan.

Maren Belastegi zinegotziak erantzun zuen. Haren arabera, Mankomunitateak, otsailaren 26an, Cespa enpresari eman zion hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua eta Urbaser enpresak, martxoaren 21ean, erabakia errekurritu egin zuen. Errekurtsoa, orain, Euskal Herriko Kontratu Baliabideetako Administrazioa ari da aztertzen, eta, Belastegiren hitzetan, beranduenez hiru edo lau hilabeteren buruan jakingo da administrazio horren erabakia. Hau da, uztail inguruan.

Udal Gobernuak garbi utzi nahi izan zuen bilketa eta garraio zerbitzuaren lizitazioa dagoela geldi, baina hondakinen kudeaketarekin lotutako gainontzeko lehiaketek aurrera segitzen dutela.

EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbide ez zen gustura gelditu Gobernu taldearen erantzunarekin. Eurak horrela eskatu arren, alkateak beharrean, Belastegi zinegotziak eman zuelako erantzuna. "Gu alkatearengana zuzendu gara, bera izan zelako hedabideen aurrean Bergaran atez atekoa martxan ipiniko zela adierazi zuena". Horrez gain, jeltzalearen esanetan, zehaztasunik gabeko erantzuna izan zen: "Ez digute zehazki erantzun. Orain arte ezkutuan izan duten gai da, beste gai asko bezala, eta errekurtsoaren inguruan ez digute azaldu zergatik gertatu den. Gainera, behin eta berriz galdetu behar izan dugu prozesua geldi dagoen".

**Eragile guztiak batzeko deia**

EAJk aurkeztutako idatzian, bestetik, alkateari galdetzean zioten ea "Legazpin egindako galdeketa Bergaran egiteko zain zegoen" erabakiren bat hartzeko eta herriari kasu egiteko. Kasu honetan, Ariane Kareaga zinegotziak hartu zuen hitza. Udal Gobernuaren izenean udalbatzako alderdi guztiak gonbidatu zituen Gobernuko ordezkariek atzo, eguena, Bergara Garbiarekin egitekoak ziren bilerara. Mahai baten bueltan eseri, gaiaren inguruan elkarrekin hausnartu eta adostasun batera iristeko ahalegina egitea ezinbestekoa dela azaldu zuen Kareagak. Bergara Zero Zabor taldea ere gonbidatuko dute bilerara.

Oiarbidek adierazi zuen jeltzaleek beti izan dutela "adostasun politikoetara iristeko kultura" eta orain ere horretarako prest daudela, baina gaineratu zuen gonbidapena berandu datorrela. Oiarbidek azaldu zuen urte eta pikuko "indiferentziaren" ostean ez dutela ulertzen orain hausnarketarako eta adostasunerako Gobernuaren deia. "Hitzak" dagoeneko ez dutela "balio" gaineratu zuen. Horregatik, jeltzaleek Gobernuari eskatu diote hondakinen kudeaketaren gainean duten proposamena idatziz bidaltzeko eta horren arabera erabakiko dutela bileran parte hartu edo ez.

Udal Gobernua atzo Bergara Garbiarekin egitekoa zen bilera atzeratu egin da azkenean. "Oraindik ez dakigu noiz egingo den bilera hori, baina gure nahia da batzar horretara eragile eta alderdi politiko guztiak joatea", azaldu zion atzo, eguena, GOIENAri Maren Belastegi zinegotziak.

**Elgetako adostasuna**

Udal Gobernuak eta EAJk puntu bakar batean egin zuten bat asteleheneko bilkuran: Elgetako udalbatzak hondakinen gaian lortutako adostasuna dela eredua esan zuten biek ere. Dena dela, badirudi alde bakoitzak bere modura ulertzen duela Elgetako eredua.

"Pozten gara EAJk egindako proposamenagatik. Uste genuen beraien mugak beste batzuk zirela, aipatu izan dute ahalik eta gehien gaika bildu eta gainontzekoa errraustegian erretzea zela beraien eredua. Hortaz, pozten gara Elgetan %70-80ko gaikako bilketa helburu moduan adostu izana. Guk ere hori dugu oinarri eta helburu", azaldu dute Gobernuko ordezkariek.

EAJk, bestetik, honela ulertzen du Elgetan adostutakoa: "Ez dakigu zertara datorren esatea Elgetako kasua babesteak pozten dituela. Gu beti izan gara adostasunak lortzearen aldekoak. Elgetan erakutsi dute, hasieratik, krispazio eta inposaketa barik gauzak beste modu batera egin daitezkeela. Lehenengo, politikarien artean adostu gaiak eta ondoren, herritarrei planteatu. Hori da guk proposatzen dugun bidea", azaldu zuen Aintzane Oiarbidek.

**ESANAK**

> "Ezinbestekoa da guztiok mahai baten bueltan esertzea gaia aztertzeko"
> ARIANE KAREAGA | UDAL GOBERNUA

> "Gobernuaren proposamena idatziz jaso nahi dugu; hitzek ez dute balio"
> AINTZANE OIARBIDE | EAJ

# Pol Polen argazki zaharrak Aroztegin

A.B. | BERGARA

Aroztegi aretoko erakusketa ikusienetako bat izango da, seguruenik, Pol Pol Mendi Taldeak gaur, egubakoitza, inauguratuko duena. Izan ere, bergarar asko eta asko dira urte batean edo bestean Pol Pol taldearekin irteerak edo bestelako ekintzak egin dituztenak. Bada, orain, garai hartako momentu onak berriro ere gogora ekartzeko aukera izango dute.


Erakusketan ikusi ahal izango den argazkietako bat. | POL-POL MENDI TALDEA

**1942tik 1971ra bitartean**

Erakusketa Pol Pol Mendi Taldea sortu eta lehen 30 urteetako ibilbidea jasotzen duten 40 argazkik osatzen dute. Denetariko argazkiak egongo dira ikusgai bertan. Taldearen hasiera nola izan zen azaltzen duen panel bat ere egongo da. Inaugurazio ekitaldia gaur 19:00etan izango da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Aroztegi aretoa zabalik dago astelehenetik egubakoitzera (18:00-20:30); zapatuetan (12:00-14:00 eta 18:00-20:30) eta domeketan (12:00-14:00).

# Okene Abrego, Mariano Hurtado eta Buterflai gaur gaztetxean

A.B. | BERGARA

Aurkezpen jaialdiaren ostean, gaur egingo dute Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren lehenengo kontzertua. Hain justu ere, Okene Abrego eta Mariano Hurtado bikotea eta Buterflai kantautorea igoko dira gaztetxeko taula gainera.

Inoreneroni taldeko abeslaria da Okene Abrego. Erritmo azkarrak eta oldarkorrak jorratu izan ditu, baina, betiere, bere ahots berezi eta sakonarekin. Gaur gauean Mariano Hurtado –Inoreneroni, El Hombre Burbuja– baxu-jotzailea izango du aldamenean.

Buterflaik, bestetik, gitarra bat nahikoa du bere ideia libertarioak abesti bilakatzeko. Bizi izateko beste molde bat defendatzen du Gaztelako kantautore anarkistak.

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

**Txapa Irratian ere bai**

Gaztetxera joateko aukerarik ez dutenek irrati bidez ere jarraitu ahal izango dituzte. Txapa Irratiak zuzenean eskainiko ditu FMko 97,2an eta *www.txapairratia.org* atarian ere egongo dira entzungai.

ETXEBERRIA
BITXITEGIA – ERLOJUTEGIA
*2013an ezkonduz gero, etor zaitez ETXEBERRIA bitxitegira ezkontza-eraztunak erostera eta agian, DOAN irtengo zaizkizu. Informa zaitez!*
Bidekurutzeta 16 · Tel. **943 76 23 94** · Bergara
*relojeriaetxeberria@gmail.com*

## OHARRAK

**1949AN JAIOTAKOEN KINTADA HILAREN 11N**

14:00etan elkartuko dira Oxirondo azokan eta urbanoan joango dira Tartufora. Izena emateko 30 euro sartu behar dira ondorengo kontuan: 3035 0009 10 0091143369.

**GAIXOEN ALDEKO MEZA**

Gaixoen Pazkoko meza egingo dute bihar, zapatua, Santa Marinan, 19:00etan.

**HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSAK**

Maiatzaren 12an 09:15ean irtengo da autobusa, Bergarako autobus geltokitik. Txartelak Jardunen bulegoan eskura daitezke 12 euroren truke.

**SANTIKURTZ JAIAK**

Igandean, 12:15ean, meza egingo dute San Juan auzoko Santikurtz ermitan eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte.

# Herriko hegazti espezieak ezagutzera emateko hitzaldia eta irteera asteburuan

## Hitzaldia bihar izango da eta irteera domekan, Gerriko Berdean barrena

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako Udalak eta Pol-Pol Mendi Taldeko Mendia Bizirik taldeak herriko hegazti espezieak ezagutzeko ekintzak antolatu dituzte asteburureko.

Maiatzaren 4an, zapatua, *Bergarako hegaztiak* delako kafe-solasaldia egongo da Kiko Alvarez ornitologo bergarararrekin. Pol-Pol Mendi Taldeak Udal Pilotalekuan duen egoitzan izango da, 18:00etan.

Maiatzaren 5ean, domeka, berriz, hegaztiak ezagutzeko irteera egongo da, herriko Gerriko Berdean barrena. Gidaria Mikel Olano izango da, hegaztien identifikazioan aditua, eta 09:00etan abiatuko dira, San Martin plazatik. Nahiz eta behaketa, batez ere, entzumenean oinarritzen den, komenigarria da irteerara prismatikoak eramatea, antolatzaileek azpimarratu dutenez.


Txonta arrunta. | GOIENA

**Inbentarioa eginda dago**

Agenda 21en testuinguruan, udalerriko biodibertsitatea ezagutzeko inbentarioak egin zituen Bergarako Udalak 2006-2010 urteen artean. Kiko Alvarezek eta Mikel Olanok hegaztien inbentarioa egin zuten, eta, "horren berri emateko eta, bide batez, Bergara hobeto ezagutzeko eta beste era batera gozatzeko" antolatu dute Bergarako hegaztiak ezagutzeko asteburua, eta interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

**Behaketa hedatu nahi dute**

Antolatzaileen esanetan, hegaztien inbentarioa egitea ezinbestekoa da ingurumena babesten duen legedia bete ahal izateko. Baina, gainera, hegaztien behaketa Europan oso zabalduta dagoen aisialdi jarduera da, milaka zale dituena.

Hegaztien behaketaz edo *birdwatching*-az gozatzeko, prismatikoak, entzumen arreta eta hegaztien gida bat dira oinarrizko premiak. "Eta ezagutza hori da, hain zuzen ere, maiatzaren 4an eta 5ean zabaltzen hasi nahi duguna", esan dute arduradunek.


Herritarrak Bearteko artisten lanak ikusten San Martin plazan. | GOIENA

# Bearteko artistek Regino Valle omenduko dute domekan

## Beart eguna egingo dute, eta erakusketa plazan

M.B. | BERGARA

Domekan, maiatzak 5, Beart eguna egingo dute artisten elkarteko kideek. Azken urteetan egin duten moduan, erakusketa egingo dute San Martin plazan. Elkarteko 40 bat lagunek erakutsiko dituzte euren lanak, 12:00etan hasita. Eguerdian, berriz, bazkaria izango dute Agorrosinen eta 40 bat lagun batzea espero dute.

Juanjo Altuna Bearteko lehendakariak azaldu duenez, domekako Beart eguna berezia izango da; izan ere, Regino Valle omenduko dute. "Kulturaren arloan egindako urteetako lana aitortu eta eskertu nahi diogu", esan du Altunak. "Hari eskainitako eguna izango da domekakoa", gehitu du.

Eta, era berean, Valleri oroigarria emango diotela esan du: "Bazkarian, Xabier Ugaldek egindako eskultura emango diogu".

# 'Ekarri laguna' kanpaina abiatu dute Agorrosinen

M.B. | BERGARA

Agorrosin Ekintza Guneak *Ekarri laguna* kanpaina jarri du martxan. Ikastaroetan parte hartzen duten herritarrek euren ikastaroetara lagun bat eraman ahal izango dute, doan, proba egin dezan. Interesatuek begiraleei esan eta ikastarora lagunarekin joatea baino ez dute; lagunak ez du zertan abonatua izan.

Bestalde, bihar, maiatzak 4, da azken eguna Agorrosin Ekintza Guneko uda kanpainako zozketan izena emateko. Horretarako, Agorrosinera jo daiteke, edo 943 77 70 95 telefono zenbakira deitu. Partaidetza sustatzeko, ez-abonatu prezioak merkeago ipini dituzte. 900 plaza daude, eta 25 jarduera.

### Bertako loreen erabilera terapeutikoaz hitzaldia egingo du Carmen Romanellik hilaren 9an

*Geure loreen erabilera terapeutikoa. Hirutasun esentziak. Bat izatearen metodoa* delako hitzaldia egingo du, 18:30ean, Fisioterapia Baraka Zentroan –Masterreka 13, behea, eskuma–. Carmen Romanelli kinesiologo eta terapeuta durangarrak gure mendietako loreekin egindako esentzien metodo terapeutiko berritzailea azalduko du.

### 'Gizakia eta bere oreka lotuta dago bere sustraiarekin' delako hitzaldia egongo da gaur

Jexux Larretxea makrobiotika aholkulariak *Gizakia eta bere oreka lotuta dago bere sustraiekin* delako hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Irizar jauregiako areto nagusian. Bada, interesa duten herritar guztiek har dezakete parte bertan.

### 2013-2014 ikasturterako matrikulazio epea ireki dute Musika Eskolan ekainaren 15era arte

Bergarako Musika Eskolak 2013-2014 ikasturterako izen-emate epea zabaldu berri du. Eskaintza zabala du eta interesa duten guztiek ekainaren 15era arte dute izena emateko. Horretarako, idazkaritzara jo daiteke, 15:30etik 19:30era, edo 943 76 57 80 telefono zenbakira deitu.

### 'Dorretxe eta jauregi artean' bisita gidatua egiteko aukera egongo da bihar, zapatuan, 17:00etan

Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeek elkarrekin antolatutako *Ezkutuko altxorrak* bisita gidatu sortaren barruan, *Dorretxe eta jauregi artean* delako bisita gidatua egiteko aukera egongo da bihar, zapatuan. 17:00etan, San Martin plazatik abiatuta. Izena emateko 943 79 64 63 zenbakira deitu behar da.

### Pentekoste jaietan jokatuko den goitibehera lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

Maiatzaren 19an jokatuko da, jaietako domekan, aurten laugarrenez. 16:00etan jokatuko da txapelketa, nahiz eta pilotuek 15:00etarako egon beharko duten San Martzialerako maldan. Interesa duten guztiek har dezakete parte 679 31 62 72 edo 943 76 07 47 zenbakira deituta (Irene). Izena emateko azken eguna maiatzaren 13a da.

### Astelehenean, maiatzaren 6an, zabalduko dute udaleku irekietan izena emateko epea

Uztailaren 1etik 19ra izango dira udaleku irekiak, 10:00etatik 13:00etara, eta 2001-2010 urte artean jaiotako haurrek parte har dezakete. Izena emateko epea maiatzaren 6tik 17ra izango da; horretarako, kultura etxera jo daiteke, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara, edo *www.bergara.net* webgunera.

### Benito Lertxundik bihar, maiatzak 4, pilotalekuan egitekoa zen kontzertua bertan behera geratu da

"Promozio kanpaina behar bezala egiteko nahiko denbora izan ez delako" hartu du erabakia Gin Musika SL enpresa antolatzaileak. *Oroimenaren oraina* diskoaren biraren barruko kontzertua zen, eta "baldintza egokietan eman ahal izateko" laga dute bertan behera. Sarrera erosita zutenei kultura etxean itzuliko diete dirua.

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53



San Juan kaleak plataforma itxura izango du aurrerantzean, Pake Lekutik Metalgua etxe pareraino. | MIREIA BIKUÑA

# Hasi dituzte San Juan kaleko irisgarritasun lanak

Ugarte enpresak lau hilabeteko tartea dauka kaleari itxura berria emateko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Osasun zentro, kiroldegiko aparkaleku, ikastola, Pake Leku, Turismo Bulego, Unibertsitate etorbide eta Foru plaza arteko lotura egiten du San Juan kaleak. Udalak garrantzi berezia eman die hango irisgarritasuna hobetzeko lanei. Hori horrela, kaleari beste itxura bat emateko deialdia egin zuen, eta, esleipena egin ondoren, hasi dituzte lanak. Ugarte enpresak egingo ditu, lau hilabetean.

Oraingoz, ur-hoditeria aldatzeko lanak egin dituzte. Hoditeriaren noranzkoa zehazteko hainbat kata egin ondoren, kalea goitik behera zulatu beharko dute. Pake Leku paretik kiroldegiko parkineraino zulatuko dute lehenengo. Hori horrela, kale zati hori itxita egongo da hamabost bat egunetan. Bigarren fasean, aparkalekutik osasun etxe aurreko biribilguneraino zulatuko dute. Orduan, kalea ez dute guztiz itxiko, kiroldegi azpiko aparkalekurako sarrera libre egon dadin.

### Plataforma bakarraren itxura

Ur-saneamendua berritu ondoren, errepide gainean egingo dituzte lanak. San Juan kaleak plataforma itxura izango du, Errekaldek egun duen itxuraren antzekoa. Hau da, espaloiak eta galtzada maila berean egongo dira, gazteleku paretik osasun etxearen pareko biribilguneraino.

Irisgarritasun lanak eginda, oinezkoek izango dute lehentasuna. Hori horrela, egun dauden hiru zebrabideak kendu egingo dituzte, eta bakarra ipiniko dute: San Juan kaleak Bidebarrieta kalearekin bat egiten duen lekuan, Metalgua etxe parean. Han, zebrabidea markatu egingo dute seinale bertikal eta horizontalekin. Bestalde, kiroldegi azpiko aparkalekurako sarreran dauden barandak, luzatu egingo dituzte, eta zoladura ezberdina jarriko dute, parkinerako sarreran dagoen desnibelaz ohartarazteko.

### Oztopoak zirkulazioan

San Juan kaleko lanak eragina izango du zirkulazioan: azokara doazen kamioiek ikastola eta azoka arteko bidea erabiliko dute; hiletetako autoek ikastola eta udaltzaingoaren arteko bidea; eta Corpusetarako etorriko diren barrakek Txaketuaneko bidegurutzetik sartuko dira plazara. Udaltzaingoak sarrera-irteera guztiak planifikatuta ditu.

## Askotariko ekitaldiak Ikastolaren Egunetan

M.B. | OÑATI

Gaur, maiatzak 3, eta bihar, Txantxiku Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek egun handiak ospatuko dituzte; hain zuzen ere, Ikastolaren Egunak izango dira.

Gaur, askotariko ekintzak egingo dituzte hango ikasleek. Adinka banatuta, jolasak, tailerrak eta beste egingo dituzte. 18:00etan, kiroldegiko pilotalekuan, jaialdia egingo dute gurasoendako. Antzerkiak, koreografiak eta abestiak eskainiko dituzte.

Bihar, berriz, 11:00etan zabalduko dute jolaslekua: puzgarriak eta musika egongo dira han; eta geletan, eskulanak eta tailerrak. Ikastolaren aretoan atzerritik etorritako ikasleen herrialdeetako jantziak, jakiak, musika eta ohiturak batzen dituen erakusketa ikus ahal izango da. 17:00etan, urtero, ehunka neska-mutiko batzen dituen saioa: Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Sentitu, Pentsatu, Ekin* ikuskizuna egingo dute. Ikastolako Haur Hezkuntzako 5. mailako ikasleek parte hartuko dute, taula gainean.

## Esaera zaharren txapelketa, San Migel txiki jaietako berrikuntza

M.B. | OÑATI

Gaurtik domekara arte jai giroan murgilduko dira Kale Zaharrean. Egitarau zabala prestatu dute, eta berrikuntza nagusia esaera zaharren txapelketa da. Zapatuan 12:00etan egingo dute. Bertsolarien esanak entzun, eta buruz ikasitako atsotitzekin lotu beharko dituzte parte-hartzaileek.

### Rocka eta erromeriak

Jaiak, baina, gaur hasiko dituzte, Alberto Arregiren omenezko txapelketetako finalekin. 19:00etan ardo eta gazta dastatzea egongo dira eta 22:30ean, Bagauda, Zurraia eta Cobra taldeen kontzertua.

Zapatuan txirrindulari lasterketa, umeendako marrazki tailerrak, *Nor polikiago* lasterketa, auzoko emakumeen bazkaria, herriko artisauen postuak eta Hoiez eta Gozogozo taldeen erromeria, besteak beste.

Domekan, *Aintxinako Kale Zaharra* ezagutzeko aukera egongo da Jerardo Elortzarekin (12:30). Auzo bazkaria, Oñatzekoen dantzak, erromeria eta afari-merienda egingo dituzte, jaiak bukatzeko, besteak beste.

## Herriko lau auzo-konpost gune martxan

Bidebarrieta, Zubibarri, Ugarkalde eta San Lorentzoko auzo-konpost guneak martxan daude dagoeneko. Asteon zabaldu dituzte, eta horiek erabiltzeko izena eman duten 157 familiek jaso dituzte kuboak. Oraindik inauguratzeko geratzen dira Errekaldeko eta Eteo zaharraren pareko auzo-konpost guneak.



MIREIA BIKUÑA

Guztiz edder

Udaberriko **loreek** bezala,
gure manikura eta pedikuretan
ere kolore **alaiak** eskaintzen ditugu.

Limatu eta margotu: **7 euro**.
Solariuma: **10 saio 60 euro**.

**Zatoz**
eta **aprobetxatu**
gure **eskaintzak**!!



Kale Barria 29, behea
(Orbea etxea, parke aldetik)
20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

**Oscar Encina** | 'Bértikal' jokoaren sortzailea

# "Hemen ere gauzak egin daitezkeela erakutsi gura nuen"

Ideia izan eta bi urteren ostean jaio da 'Bértikal' jokoa. Aretxabaletan sortu dute eta abilezia jokoa da; maiatzean lehenengo lehiaketa egingo dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

*Bértikal* jokoa aurkeztu zuten apirilaren 22an Aretxabaletan. Proiektuaren atzean Oscar Encina aretxabaletarra dago.

**Nola jaio zen *Bértikal* jokoa?**

Banekien zerbait egin gura nuela, baina ez nekien zer. Ohean sartzean ideia bat edukitzen dudanean, izpi bat bada ere, apuntatu egiten dut. Labirinto bat otu zitzaidan, eta bolatxo bat. Hortik ideia garatzen hasi nintzen lankideekin, duela bi urte izan zen. Ahal izan dudan denbora eskaini diot, eta, azkenean, *Bértikal* sortu da.

**Garrantzia eman gura izan diozu herrian eginda egoteari, ezta?**

Hala da. Ia guztia egin dugu hemen, moldeak izan ezik; horiek Txinatik ekarri behar izan ditut, hemengoek eskari handiak besterik ez baitute hornitzen, eta nik gutxi batzuk behar nituen. Pentsa, behin betiko azken sei moldeetarako hogei egin behar izan ditut aurretik.

**Baina gainerako guztia hemen egiten duzu.**

Bai. Nituen makina batzuk egokitu ditut eta piezak landuko ditugu, kolorea eman, muntatze lanak egin... Horretan inbertitu gura izan dut. Ni enpresaria naiz duela 25 urtetik eta uste dut gu garela lanpostuak sortzen ditugunak, eta ez Gobernua. Egiten dudanak inguruan aberastasuna sortzeko balio badu, ederto. Nik hiru lanpostu sortu ditut, eta langabezian zeuden hiru gaztek lagundu dute *Bértikal* aurrera eramaten. Gazteak dira, prestatuta daude... Ez dakit postu gehiago sortzeko aukerarik izango dudan, baina, ongi joaten baldin bazait niri, zergatik ez inguruan inbertitu? Egia da agian jokoa Txinan eginez gero gehiago irabaziko nukeela, baina ez dut hori bilatzen. Nire buruari erakutsi gura diot hemen ere egin daitezkeela gauzak.

***Bértikal*-ek abilezia eskatzen du eta teknologia berriez haratago doa.**

Hori ere bilatzen nuen; jende guztia mugikorrei pega-pega eginda dagoela iruditzen zait eta argi daukat mundu birtualetik haratago joan behar dugula. Jokoak mundu horretatik ateratzen gaitu, une labur batez bada ere, bere sarean harrapatzen du jokalaria.

**Aurkezpeneko bideoan balio batzuk azpimarratu zenituzten.**

Argi utzi gura genuen joko hutsa dela, ez duela axola irabazi edo galdu, ongi pasatzea delako helburua. Futbolak ere hori beharko luke, baina ikusleengan sortzen duen biolentzia, nahiz eta ahozkoa bakarrik izan, izugarria da.

**Maiatzean lehiaketa egingo dute Aretxabaletan.**

Datorren astean hasiko da eta izena eman daiteke dagoeneko, euro baten truke. Prezio hori ipini dugu, modu sinbolikoan. Jendeak ez du bere joko propioa eraman beharrik; guk ipiniko dugu eta erabiliko den *Bértikal* bakoitzak zirkuitu ezberdin bat izan dezake... Zirkuitua azkarren egiten duenak irabaziko du. Finala hilaren 30ean izango da, eta hiru sari egongo dira. Bide batez, lehenengo txapelketa irabazten duenak datorren urteko ekainean Aretxabaletan egingo den estatu mailako txapelketan parte hartu ahal izango du. Sari potoloa egongo da, 15.000 euro!




Oscar Encina, *Bértikal* jokoarekin. | LARA GARABETEA

**"Bértikal"-ek mundu birtualetik ateratzen gaitu, une batez bada ere"**

# Zortzigarrenez, udaberriko jaia egingo dute bihar Arizmendikoek

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Bihar egingo dute Arizmendiko udaberriko jaia. Aintzane Gardokik, Lehen Mailako Hezkuntzako kudeatzaileak, eguna antolatzen aritu diren lagun kopurua azpimarratu gura izan du: "Irakasleez gainera, guraso askok lagundu dute antolaketarekin; hain zuzen ere, 80 lagunek baino gehiagok hartu dute parte".

Azken urteetan gurasoen parte hartzea jaitsi egin den arren, indar berezia egin dute haien inplikazioa lortzeko, eta eskerrak eman gura dizkiete guztiei, euren ahaleginagatik.

**Egitarau borobila**

Basabeazpin elkartuko dira, 10:30ean, eta ondoren, herriko hainbat gunetan, umeentzako eta gurasoentzako jolasak egingo dituzte, 10:45ean. Talogintza tailerra eta dantza gidatuak egingo dituzte Herriko Plazan, 12:00etan, eta trikitilariek eta buruhandiek kalejira egingo dute, 13:30ean. Ordu erdira bazkaria egingo dute; 240 lagun inguru eseriko dira mahaiaren bueltan. Ostean, umeentzako tailerrak egongo dira, 15:00etan, eta 17:30ean, txokolate janarekin eta Argitxoren bisitarekin amaituko da eguna.

# Maiatzean zehar antzerkia nagusituko da Zaraia aretoan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Maiatzean ez dute zinemarik eskainiko Zaraian; ostera, antzezlan ugari ikusteko aukera egongo da. Hala, haurrentzako abenturaz betetako *Maddi pirata* antzezlana eskainiko dute domekan, maiatzak 5, 17:00etan. Hilaren 10ean, berriz, Zuhaitz Gurrutxagak bisitatuko du Aretxabaleta, *Confidencias de un futbolisto* bakarrizketa saioa eskaintzeko; 22:00etan hasiko da emanaldia.

Ortzai taldeak *Eta orain?* ikuskizuna taularatuko du, gogoetara bultzatu gura duen fikziozko drama bat, Iker Ortiz de Zarate zuzendariaren esanetan. Nazioartean ari da talde gasteiztarra obra eszenaratzen, Paris, New York eta Venezian, besteak beste, eta Aretxabaletara iritsiko da maiatzaren 17an, egubakoitza, 22:00etan.

MDM taldearen txanda izango da ondoren eta *Scrrable* haurrentzako ikuskizuna taularatuko du hilaren 19an, 17:00etan. Eta hilabetea amaitzeko, *Un loco de desatar* lana ekarriko du Trastada taldeak, hilaren 31n.

## Zumaiara irteera egingo dute 1962an eta 1963an jaiotakoek, eta izen-ematea ireki dute

Ekainaren 1ean ospatuko dute 1963an eta 1962ko azaroan eta abenduan jaiotakoek euren eguna. Zumaian egun-pasa egingo dute, Flyscha bisitatu, herria ezagutu eta bazkaria eginda. 50 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek, eta, horietatik, 30 euro sartu beharko dituzte aurrez, hilaren 10a baino lehen, kontu honetan: 2095 5024 90 9112696221.

Goiena Klubak opari piloa banatu du apirilean. **Orain, badatoz maiatzeko zozketak. Zorte on!**

**AISIA DEBA HOTELEAN****

**2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala**

- Isabel Arenaza Legasa (Oñati)
- Andoni Axpe Madinabeitia (Arrasate)
- Julian Arriaran Otaegi (Bergara)

**2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua)**

- Arantzazu Igartua Lizarralde (Bergara)
- Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)

**TELEBISTA ETA BLUY RAY****

- Idoia Moreno Zubikarai (Bergara)

**BASERRISAREAKO OTARREAK****

- Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)
- Tomas Beitia Arejolaleiba (Eskoriatza)
- Arantxa Zubillaga (Arrasate)
- Juan Luis Gallastegi Arrondo (Bergara)

**ARRIKRUTZ KOBETARAKO sarrerak***

- Mila Martinez de Zuazo (Oñati)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)
- Eneritz Urbieta Atxa (Bergara)

**SARIAK JASOTZEKO**

*** Arrikrutzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute.
**ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI . 943 08 20 00
Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

**** Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.
**GOIENA.** Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

943 25 05 05 | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

# Ezohiko bilkuran antzokia eta dirulaguntzak berbagai

Gainera, Itziar Martinez zinegotziak kargua utzi zuen arrazoi pertsonalengatik

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Ezohiko osoko bilkura egin zuten martitzenean Eskoriatzan. Hirigintza eta diru kontuak eta zinegotzi baten kargu aldaketa zeuden gai-zerrendan, besteak beste. Horrez gainera, Ezker Anitza alderdiak aurkeztuta, administrazioen arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko legearen proiektuaren gaineko mozioa aurkeztu eta onartu zuten.

**Santa Anako antzokia**

Santa Anako etorkizuneko antzokia izan zuten hizpide. Egitasmoa jendaurrean egon ostean eta alegazioak aurkezteko epea itxita, jaso duten kontrako arrazoibide bakarrari Udaleko hainbat sailek emandako erantzunak ezagutu zituzten.

"Antzokiak atarte bat behar du egun espaloia dagoen tokian; horregatik, arau subsidiarioen aldaketa bat planteatu zen gune horri eraikigarritasuna emateko. Hasierako onarpenaren ostean, publikatu eta alegazio bat agertu da". Hala azaldu du Beñat Herce alkateak. "Formari buruzko puntu bat jasotzen zuen alegazioak, eta, akats bat zegoenez, puntu hori onartu dugu aho batez. Bestalde, euskarazko txostena egitea eskatu zen, eta arrazoia eman zaio herritarrari".

Alegazioak beste lau puntu zituen: "Arkitektoak esaten duenez, diseinu egitasmoarekin daukate zerikusia, eta ez arau subsidiarioaren aldaketarekin; ondorioz, ez dira onartu". Hala ere, Hercek azaldu duenez, kontuan hartuko dira puntu horiek behin proiektua egiten denean, bilera irekia deituko baitute herritarren iritzia jaso eta baloratzeko, beste batzuetan egin duten moduan.



Martinezek kargua utzi zuen. | Z.V.D.M.

## Dirulaguntzak eta krisia

Ezohiko osoko bilkuran lau dirulaguntzaz egin zen berba. Amuskarentzako laguntza onartu zen, eta, bestalde, euskararen erabilera normalizatzeko laguntzak, kultura arloko elkarteentzako eta gazteentzako laguntzen oinarriak finkatu zituzten.

Beñat Herce alkateak gogoratu zuenez, urtero ematen diren laguntza berdinak dira, kopuru antzerakoetan. Eta, era berean, gaineratu zuen laguntzak emateko orduan krisiak ez duela eragin nabarmenik izan.

**Madrilgo asmoen aurka**

Ezker Anitzak proposatuta, Madrilgo Gobernuak duela hilabete batzuk aurkeztutako aurreproiektu baten aurrean mozio bat onartu zuten apirileko ezohiko bilkuran. Nahiz eta alderdiko Juan Luis Merino zinegotzia ezin izan zen bertan egon, Eskoriatzako alkateak mozioa aurkezteko konpromisoa hartu zuen.

"Aurreproiektua aurrera aterako balitz, udalendako ondorio oso latzak ekarriko lituzkeela ikusten dugu: txikiak desagertze bidean ipin ditzakeelako, Mankomunitateak ere zalantzan ipintzen ditu, 20.000 biztanletik beherako herrietan eskumenak jaisten dira eta diputazioaren esku utzi beharko lirateke...".

Hala, Eskoriatzan izan dezakeen eraginagatik, lege horren kontrakotasuna azaltzeko helburuarekin onartu zuten mozioa, Elizateetako zinegotzien abstentzioarekin.

**Martinezen azken bilkura**

Martitzenean, gainera, orain arte Gazteria, Hezkuntza eta Berdintasun arloetako zinegotzi arduraduna izan den Itziar Martinezek kargua utzi zuen, arrazoi pertsonalengatik.

Martinez hunkituta agertu zen azken bilkuran, eta asko ikasi duela esan eta eskerrak eman zizkien lankideei. Bestalde, Udalak Martinezek herriagatik lan egiteko hartutako konpromisoa azpimarratu zuen eta eskerrak eman zizkioten guztiek denbora honetako lanagatik.

Horrez gainera, Bildu-Eusko Alkartasunak Martinezen ordez hautagai berria aurkeztu zuen segidan. Hain zuzen ere, Maider Landa Ruiz de Azua izendatu zuten kargurako eta martitzenean izendapena onartu zuten: "Eskaera dagokion tokira bideratu eta ea hurrengo bilkuran ofizial egiten dugun".

# Berrogei koadro inguru salduta, helburua bete du Xeli Mendizabalek

Erakusketa solidarioa egin du Mendizabalek eta batutako dirua Albaniara bidaltzeko izango da

**Z.V.D.M.** | ESKORIATZA

Pozik dago Xeli Mendizabal antolatutako erakusketa solidarioak izandako oihartzunarekin. Apirilaren 25etik 28ra bitartean izan zituen lanak ikusgai kultura etxean. Jende ugari bertaratu zen erakusketara, aurreneko hiru egunetan batez ere; batez beste, 25 lagun izan dira egunero, antolatzaileen esanetan.

**Euskal Herritik kanpora**

Mendizabalek erabilitako teknikak eta jorratutako askotariko gaiek jende ugariren interesa piztu dute. Hala, Eskoriatzan egindako erakusketa solidarioaren ondorioz, margolanetako batzuk Debagoiena utzita kanpora ere joango direla eman dute aditzera. "Alemaniara edo Frantziara, besteak beste".

Bildutako diru guztia Albaniara bideratuko du Arizmendi Ikastolako Almen guneko irakasle ohiak. Hango Marianisten Ordenak esku artean dituen proiektuak finantzatzeko izango da; zehatzago esanda, Mendiolako Jesus Madinabeitia misiolari marianista Albaniako Lezhë hirian bultzatzen ari den proiektuetarako.

"Helburu hori edukitzeak erosleengan eragingo zuen, ziurrenik". Arrazoiak arrazoi, aurrez pentsatutakoa baino lan gehiago saldu zituen Mendizabalek; 40 inguru.

# Eskalada ezagutzeko bi ekimen datorren astean

Mendi hilabetearen barruan, eskalada praktikatzeko aukera izango dute herritarrek

**Z.V.D.M.** | ESKORIATZA

Maiatzean protagonismo berezia izango du mendiak Eskoriatzan; hain zuzen ere, mendi hilabetea prestatu dute maiatzaren 29ra arte. Besteak beste, eskalada ezagutzeko eta praktikatzeko aukera egongo da.

Hala, maiatzaren 7an, martitzenean, eskalada jaialdia egingo dute kiroldegian. Bi taldetan banatu dute ekimena, adinka sailkatuta. Hain zuzen ere, 10 eta 18 urte arteko gazteek 17:00etatik 18:00ak bitartean izango dute aukera katu-oinak jantzita paretan gora ibiltzeko. Horren ondoren, 18:00etatik 19:00etara 18 urte gorakoen txanda izango da.

Maiatzaren 9an, berriz, eskalada kalera aterako dute, 17:00etan. Herriko paretak baliatuko dituzte kirola praktikatzeko; aurrez eman behar da izena.



OLAZAR

## Olazarkoak Andaluzia ezagutzera joan ziren

Olazar erretiratuen elkarteko kideek bidaia egin zuten apirilaren 15etik 22ra, Costa del Solera. Bi autobus antolatu behar izan zituzten; hain zuzen ere, 83 lagunek eman zuten izena Andaluzia aldera joateko. Malagako eta Granadako hainbat toki ezagutu zituzten; han izan zirenek zazpi egunetan elkarren artean egondako giro ederra azpimarratu dute. Argazkia Trevelez herrian (Alpujarras) egin zuten.

### Herrixa Dantzan ekimenaren azken saioa gidatuko du Patxi Monterok domeka honetan (18:00)

Fernando Eskoriatza plazan arituko da Patxi Montero, Herrixa Dantzan saioa gidatzen. Zuzeneko musikak lagunduta jardungo du; hain zuzen ere, Jainaga eta Narbaiza bikotea izango ditu alboan. Animatzen diren herritarrek elkarrekin dantzan ondo pasatzeko dantza tradizional ludiko eta errazak ikasteko aukera izango dute. Monterok aditzera eman duenez, ikasturteko azken saioa izango da: "Asmoa da datorren ikasturtean ohiko Herrixa Dantzan saioak itzultzea, hiru hilabetean behin".

### Epe laburrera Atxorrotzen auzolana beharrezkoa izango dela eta, bilera deitu dute martitzenerako

Martitzenean, hilak 7, bilera egingo dute Ibarraundi museoan, 19:00etan hasita. Auzolanaren gainekoa izango da; hain zuzen ere, Atxorrotzeko ermitako teilak aldatzea beharrezkoa dela-eta auzolanean egitea pentsatu dute, eta herritarrei dei egin diete bileran parte har dezaten. Ibarraunditik gogora ekarri dutenez, mendian eginiko azken auzolana 2009an egin zuten, eta, kasu hartan, egiten ari ziren indusketek eragindako zuloa estaltzeko hondarra igo zuten giza-katea eginda.

# Jaietako lepoko zapiaren diseinua lehiaketa bidez aukeratuko dute

▸ Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaitzen da

▸ Taldeka edo bakarka aurkez daitezke diseinu lanak, udaletxean

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Herriko jaietan soinean erabiltzen dugun zapiaren irudia, aurten, lehiaketa bidez aukeratuko dute. Udalak testua ematen du eta parte-hartzaileek irudia proposatu beharko dute.

Parte hartzeko hainbat baldintza bete behar dira: alde batetik, Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake. Gainera, ez dago zertan bakarka aurkeztu, koadrilan ere aurkez baitaiteke. Parte hartzen duen talde edo pertsona bakoitzak nahi duen adina proposamen egin ditzake.

Testuari dagokionez, urterokoa, *Antzuolako jaixak 2013*. Lehiakideek diseinua proposatu beharko dute; betiere, testu horrek zapian agertu behar duela kontuan hartuta. Lepoko zapiak kolore bat izango du eta diseinuak edo irudiak, beste bi. Betiko triangelu forma izango du zapiak, 70x70x100 neurriarekin.

### Aurkezteko epea

Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira, DIN-A4 neurriko gutun-azal baten. Barruan, gutun-azal txikiago baten, partaidearen datuak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Talde batek parte hartzekotan, taldekide baten izena ipini beharko da. Lan bakoitzeko gutun bat aurkeztu beharko da. Guztia maiatzaren 31 aurretik egin beharko da.

Lanekin erakusketa egingo dute. Herritarren bozka bidez aukeratuko dute lepoko zapian zein irudi joango den. Irabazleak saria izango du.

Lanen eskubideak direla-eta Udalak argi utzi nahi du aurkeztutako lanak ustiatzeko eskubideak Antzuolako Udalari soilik eta doan emango zaizkiola. Aurkezten direnek jabetza intelektualaren eskubideak uzten dituztela jendaurrean agertzeko, bidezko agiria eman beharko dute, beharrezkoa denean.

Halaber, Antzuolako Udalaren esku geratuko da lan horietan jasotakoa erabiltzea eta nola erabili pentsatzea.

### Kukumarro lehiaketa

Maiatzaren 18an San Isidro eguna ospatzen dela eta, aurten ere Kukumarro lehiaketa erakusketa antolatu du Udalak. Hiru maila izango dira: lehena, 12 urtera arte (parte-hartzaile guztiek sariak izango dituzte); bigarren mailan, 12 urte gorakoek parte hartu ahal izango dute; eta azkenik, hirugarren mailan, erretiratuek. Bigarrenek 50 euroko saria izango dute eta erretiratuek, aldiz, 90 euro. Izena emateko azken eguna maiatzaren 16a izango da.




Beste urte batzuetako zapiak. | ANE ETXEBERRIA

## Elkartasun Festa ospatuko dute maiatzaren 11n, Afrikaren alde

A.E | ANTZUOLA

Maiatzaren 11n Elkartasun Festa izango da, Anelkar elkarteak antolatuta. Urtean zehar hainbat ekimen egiten ditu elkarte horrek, dirua batu eta Afrikako zenbait herritara bidaltzeko. Oraingoan, aldiz, gauez izango den festa solidarioa antolatu dute.

Afari goxo batekin hasiko da jaia; eskolako patioan izango da eta 15 euroren truke afaltzeko aukera izango dute gerturatutakoek. Horren ondoren, indarrak hartuta, Patxi Montero dantza gidariaren eskutik Herrixa Dantzan egingo dute. Eta behin gorputza berotuta, erromeria izango da.

Batzen den diru guztia Kongora eta Senegalera bidaliko dute, martxan dauden proiektuak finantzatzeko. Gau animatu eta solidario horretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Itzar liburu-dendan edo Nerea drogerian.

Antolatzaileek herritarrei dei egin diete jai horretan parte hartzeko; izan ere, ongi pasatzeko aukera paregabea izango da, baina baita Kongoko eta Senegalko herritarren alde elkartasuna erakutsi eta bertan egiten ari diren zenbait proiektu diruz laguntzeko. 15 euro dira, eta diru horrekin gauza asko egin daitezke han.

## Susana Morcillok bere lanak erakutsiko ditu Olaranen

A.E | ANTZUOLA

Maiatzaren 11n eta 12an Susana Morcillok argazki erakusketa egingo du Olaranen. Argazki bildumak arrastoaren inguruan hitz egiten du, oroitzapenari buruz: "Zelan pasatu den momentu bat eta nola jarraitzen duen gure barruan. Gero, gure buruan forma desberdinetan islatzen da momentu hau, forma desberdina hartzen du beste esperientzia batzuekin nahasten dugunean", dio Morcillok. "Oroitzapena zerbait izan denaren aztarna da, eta gure buruaren lekuren batean bizirik gelditzen da", azaldu digu erakusketaren egileak. Sentipenek eta oroitzapenek uzten dituzten aztarnak izango dira bildumaren gai garrantzitsuak. Izan ere, egilearen ustez: "Pentsamendua gure buruan dagoen kea da. Ezin da ukitu eta gure barruan geratzen da. Burmuinean geratzen da guztia, imajinazioa, fantasia, desioa... bizi diren toki berean".

Morcillok aurkezten duen bildumako irudiak "distortsionatuta daude, marrazkiak dirudite". Denboraz eta materiala ez den gauzez ere hitz egiten dut argazkien bidez". Susanaren lana hobeto ezagutu nahi duenak aukera polita du Olaran etxera joanda.

## Autodefentsa tailerrean izena emateko epea zabalik

Maiatzerako hainbat tailer eta hitzaldi antolatu ditu Udalak, eta horietako bat maiatzaren 25ean, zapatuan, izango da. Autodefentsa feminista tailerra izango da eta Olaran etxean egingo dute, 09:30etik 13:30era.

Hain zuzen ere, parte hartu nahi duten guztiek izena eman beharko dute, maiatzaren 15a aurretik, udaletxean edo Gizarte Zerbitzuen bulegoan. Horrekin lotuta, tailerraren inguruko informazioa behar izatekotan, udaletxera joan behar dute interesatuek.

## Atzerritarren Legeari buruzko saioa egingo dute astelehenean

Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, beste saio bat egingo dute datorren astean. Izan ere, astelehenerako, maiatzaren 6rako, Atzerritarren Legearen inguruko hitzaldia antolatu dute. Olaran etxean izango da eta herritar guztiak gonbidatuta daude. Saioa 18:00etatik 20:00etara izango da. Hain zuzen ere, atzerritarrei eta atzerritarrekin harremanetan daudenei zuzenduta dago, baina, edozelan ere, edozein joan daiteke. Gurutze Gorriko legelari bat izango da hizlaria.

## Gaixoen Pazkoko meza egingo dute domeka honetan

Urteroko ohiturari eutsiz, domeka honetan, maiatzak 5, Gaixoen Pazkoko Eguna ospatuko da bailarako hainbat herritan, baita Antzuolan ere. Horrela, 11:00etako meza desberdina izango da; izan ere, Gaixoen Pazkoko meza esango dute Errukizko Amaren parrokian. Herritar guztiak gonbidatuta daude mezara, eta joan ezin direnak gogoan izango dituztela adierazi dute mezara joatekoak diren herritarrek.

## Datorren egubakoitzean bertso jaialdia izango da

Datorren egubakoitzean, hilak 10, bertso jaialdia izango da Torresoroan, herriko Sasibertsolarixen eskutik.

Agin Rezola, Aitor Sarriegi, Jokin Uranga, Uxue Alberdi eta Aitzol Iturbe antzuolarrak arituko dira jendaurrean bertsoak botatzen. Gai-jartzaile lanetan, aldiz, Iraia Gabilondo arituko da. Horrenbestez, datorren astean, Torresoroan, gaueko hamarretan hasita, bertsoez gozatzeko aukera izango da.

## Lorabarri Astea hasiko da bihar, ABBri esker

J.B. | ARAMAIO

Aramaixo Basarri Barri egitasmoak Lorabarri Astea antolatu du. Bihar hasi eta hilaren 11ra bitartean ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Bihar ibilaldi gidatua egingo dute: *Aramaixo, pare bat gauza*. 12:00etan geratuko dira parkean eta Pedro Uribarrenak eta Alex Mendikutek egingo dituzte gidari lanak.

Domekan, berriz, sendabelarren gaineko saioa egingo dute: *Sendabelarrak denon eskura*. Rocio Domingo eta Gabi Villalba arituko dira azalpenak ematen. 10:00etan geratu dira pilotalekuan eta Arriolarako bide zaharra hartuko dute. 12:00etan erakusketa irekiko dute Sastiñan; besteak beste, argazkiak, olioa eta hortzetako pasta egongo dira ikusgai.

**Hilaren 11n azoka berezia**

Astearekin amaitzeko, hilaren 11n, azoka berezia egin gura dute Bizente Goikoetxea plazan. Antolatzaileek baserritarren laguntza eskatu dute egun horretarako eta eguaztenean, hilak 8, udaletxean bilduko dira, 19:30ean.

Azokan parte hartzeko interesa izanez gero, bertaratzearekin nahikoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Horrez gain, informazio gehiagorako honako telefonoa jarri dute antolatzaileek: 688 69 57 63 (Irati).

## Igoera ezin lortuta, Kopan zentratuko da orain Aramaixo taldea

Arabako areto futboleko Zilarrezko Mailatik igotzeko aukera barik geratu ostean, Aramaixo taldea Kopa irabazten saiatuko da orain. Domekan jokatuko du lehen kanporaketa Andoni Elejaldek koordinatzen duen taldeak: kanpoan jokatuko dute, Orlegi taldearen aurka (10:45). Hasiera baten, erraz irabazteko partidua da aramaioarrendako.

## San Martin jaiak antolatzeko bilera irekia egingo dute

San Martin jaiak ahalik eta parte hartzaileenak eta herrikoienak izateko asmoz, jai batzordea eratu eta herriko jai nagusien egitaraua osatzeko bilera deitu dute. Maiatzaren 6an egingo da bilera hori, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 17:00etan hasiko da eta herritar oro dago gonbidatuta.



Aramaioko biztanleria heldua dela dio ikerketak; irudian, erretiratuen ospakizuna kiroldegian. | ARTXIBOA

# Berdintasun Plana egiteko oinarriak finkatzen

### Daiteke enpresari esker, gizonen eta emakumeen arteko diagnosiaren gaineko emaitzak jaso berri ditu Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Legealdi berria hasi zenetik berdintasun politikei bultzada berezia ematea zegoen udalbatzaren lehentasunen artean. Horregatik, batzordeak antolatzerakoan, Berdintasun batzordea sortu zen Ongizatekoarekin batera. Batzorde horrek garatu beharreko lehentasunak zehazteko eta Aramaioko Berdintasun Planaren oinarriak finkatzeko asmoz, Udalak Daiteke aholkularitza enpresari eskatu zion berdintasun egoeraren diagnosia egiteko.

Horretarako, fase ezberdinak izan ditu ikerketak. Hasteko, talde sustatzailea osatu, lan-tresnen diseinua egin eta prozeduraren egitura zehaztu zuten. Gero, datuak bildu zituzten: elkarrizketak teknikari eta beste hainbat eragilerekin, galdetegiak zinegotziei eta bilera ezberdinak herritarrekin. 52 emakumek eta 15 gizonezkok hartu dute parte diagnostikoan. Azkenik, joan den astean aurkeztu zituzten ikerketak eman dituen ondorio nagusien berri, eta azken urteotan Aramaioko emakume eta gizonen egoeran eman diren aldaketak ikusteko aukera ematen du ikerketak.

Datu kuantitatiboak Eustat, Lanbide, Ine eta erroldatik jaso dituzte. Datu kualitatiboetarako, berriz, elkarrizketa indibidualak, talde elkarrizketak, elkarte ezberdinekin egindako bilerak eta Udaleko dokumentuak –webgunea barne– hartu dituzte aintzat.

**Desorekak ardurei dagokienez**

Udaleko langileei dagokienez, ondorioetako bat izan da lan batzuk "guztiz *feminizatuta*" daudela. Adibidez, ongizatea eta euskara moduko arloetan emakumeena da ardura baina hirigintzan, obretan eta zerbitzuetan gizonezkoak dira nagusi. Nahiz eta Udaleko lantalde osoan emakumeak gizonak baino gehiago izan –26 langiletik 17 dira emakumeak–, ardurak aztertuz gero, desorekak ikusten dira.

Bestalde, udal korporazioa orain arteko parekideena da: bost gizonek eta lau emakumek osatzen dute; aurreko hiru legealdietan emakume bakarra zegoen, eta zortzi gizonezko. Udalaren barne eta kanpo komunikazioa hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko eta estereotipatu gabeko irudiak erabiltzeko ezagutza eta tresna falta dagoela ondorioztatu du ikerketak, eta egilearen sentsibilitate eta borondatearen araberakoa izaten dela. Horren arrazoia da, Daiteke enpresakoen ustez, langileek gai horren inguruko formaziorik ez dutela jaso.

**Zaintza, emakumearena**

Gizarte zerbitzuetan, bestalde, emakumeek hartzen dute protagonismoa. Zaintza zerbitzua eta mendekotasuna duten pertsonen ardura emakumeena da eta gizarte zerbitzuetatik sentsibilizazio eta informazio mailan antolatutako ekintzetara gehien hurbiltzen dena ere emakumea da.

Kultur arloan ez da desorekarik ematen. Liburutegiaren eta ludotekaren erabilera orekatua da, adibidez. Kirol arloan, hona ondorio aipagarri bat: adinean aurrera egin ahala neskek kirola egiteari uzten diote.

**DATUA**

**67**

HERRITARREKIN EGON DIRA

Daiteke enpresako langileek 67 aramaioar elkarrizketatu dituzte. Horietatik 52 emakumezkoak izan dira eta 15, gizonezkoak.

**17**

EMAKUME 26 UDAL LANGILEETATIK

Udalak 26 langile ditu eta 17 emakumeak dira. Hala ere, ardura mailan desorekak daudela ondorioztatu du Daiteke enpresaren ikerketak.

## Portugalen ederto ibili ziren Alaiak elkartekoak

Apirilaren 22tik 28ra Portugal aldean ibili ziren Alaiak erretiratu elkartekoak. Eroski Bidaiek antolatutako bidaia izan zen eta ederto ibili ziren: "Oso gustura bueltatu gara; bertako historia, monumentuak eta jendearen izaera nabarmenduko genituzke", diote. Hurrengo bidaian pentsatzen hasiak dira dagoeneko.



ALAIAK ERRETIRATU ELKARTEA

ELGETA

# Hurrengo ikasturte hasierarako amaitu gura ditu lanak Udalak

## Hiru eskaintza aztertu dituzte, eta Goituk egingo du hirugarren fasea ere

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Domingo Iturbeko lanak amaitzeko azken esleipena onartu zuen udalbatzak apirileko osoko bilkuran. Adjudikazio horren barruan sartzen da euste horma, ezinduendako aldapak, harmailak, eta harmailetara Maala kaletik doazen bi sarbideak egitea.

Lanak hasieratik egiten diharduen Goitu enpresaren aurrekontua da udalbatzak aho batez onartu duena; aztertutako hiru aurrekontuen artean merkeena. Hala, Goituk amaituko ditu lanok.

Lanen hirugarren fase horrek 181.747,45 euroko aurrekontua du, eta irisgarritasunaren lanen barruan sartzen da.



Eskola aurreko harmailak egitea da orain lanen zatirik nagusiena . | L.Z.

### Ikasturte berrirako

Udal arduradunek bizkortasuna eman gura diote Domingo Iturbeko lanen azken faseari. "Ea abuzturako bukatzen diren", esan zuen osoko bilkuran Iban Retolaza hirigintza zinegotziak.

Udal ordezkariek azken Eskola Kontseiluan esandakoaren arabera neurri handi batean neguan izan dugun klimatologia eskasak atzeratu ditu lanok, baita proiektuan egin beharreko azken orduko zenbait aldaketak ere. Esaterako, lehenengo asmoa zen harmailetan porlana berdeguneekin txandakatzea. Azkenean, horrelakorik ez egitea erabaki dute neguan, eta eguraldi txarrarekin, berdegune horiek arazoak emango dituztelako: ur putzuak, lokatza...

### Lapurrak alhondigan

Astelehenetik martitzenerako gauean, bestalde, lapurreta egin zuten Artekaleko udal biltegian. Ate nagusia indarrez zabalduta sartu ziren lapurrak. Udal arduradunek motozerra bat eta zulatzaile bat sumatu dituzte faltan. Udal brigadako langileek materiala ugari gordetzen dute biltegi horretan, eta gainerakoa bertan dagoela esan dute. Ez da lapurrek udal eraikuntzetara egiten duten lehenengo bisita: haurreskolan eta ludoteka-gaztelekuan ere sartu ziren asko ez dela, martxoaren 22an.

# Dantza saio polita Txertubi bikotearekin

L.Z. | ELGETA

Bueltan dira domeketako Herrixa Dantzan saio irekiak Elgetan ere. Aurreko domekan, apirilak 28, jende kopuru polita elkartu zen Espaloian, eta asko dantzarako gertu hasiera-hasieratik.

Publiko fidela du Herrixa Dantzan ekimenak, eta adin guztietakoa, gainera. Arkaitz Minerrek eta Txus Aranburuk osatzen duten Txertubi bikotearen zuzeneko musikarekin egin zuen dantza saioa Patxi Monterok, eta saio borobila irten zen.



Iturriaren dantza, domekan, Txertubi taldearekin. | L.Z.

### Hiru hilean behin

Herrixa Dantzan hiru hilean behin egingo da aurrerantzean Elgetan, eta Udalaren babesarekin zuzeneko musikarekin beti. Txapela pasatzeko ohitura zaharra ere berreskuratuko dutela esan zuen Monterok. "Badaezpadako koltxoia izango da, zulorik ez gertatzeko eta erreserba egiten joateko", azaldu zuen Monterok. Eta domekan jendeak erantzun zuen.

# Hogei bikotek hartuko dute parte frontenis txapelketan

L.Z. | ELGETA

Orain arteko markak apurtu ditu Elgetako frontenis txapelketak. Aurten, 20 bikote ariko dira nor baino nor pilotalekuko kantxan: gizonezkoen txapelketan hamabi bikote, eta bikote mistoen txapelketan zortzi. Guztira, iaz baino zortzi bikote gehiago. Asier Osora da antolatzaile nagusia, eta pozik agertu da jasotako erantzunarekin: "Kanpoko hiru bikote ere apuntatu dira, baina erabaki dugu txapelketa herritarrendako egitea", esan du. Hala, izenematea ordaindu eta jokatzerik izango ez duten bikoteei jakinarazten zaie Espaloia kafe antzokian itzuliko zaiela ordaindutakoa.

Emakumezkoen txapelketarako, berriz, bikote bakarra aurkeztu da. Hala, antolatzaileek txapelketa hori ez egitea erabaki dute, eta bikote horri ere dirua itzuliko diote.

### Hasiera maiatzaren 10ean

Lehenengo norgehiagokak hurrengo barikuan, hilaren 10ean, hasiko dira. Bariku iluntzeetan eta zapatu arratsaldeetan jokatuko dira partiduak. "Ligaxkan soilik 94 partidu jokatuko dira", esan du Osorok. "Gizonezkoen txapelketako 66 partidu, eta txapelketa mistoko 28". Egutegia egitea da orain premiazkoena. Finalerdiak eta finalak urrun daude oraingoz.

## OHARRAK

**BISITA LUBAKIETARA**

Maiatzeko lehen domeka izanik, bisita gidatua 10:00etan irtengo da. Erreserbak egiteko: 943 71 89 11, 943 79 64 63 edo *turismoa@elgeta.net*.

**BI TALDE GAZTETXEAN**

BC Bombs eta Argies Elgetan izango dira hilaren 10ean. Sarrera: bost euro. Lehen garagardo upela doan.

### Zabalik dute matrikulazio epea haurreskolan

Atzo, maiatzak 2, zabaldu zuten matrikulazio epe berria Elgetako haurreskolan. Hala, zerbitzu hori irailean, urrian edo azaroan erabiltzen hasi nahi dutenek hilaren 13ra arteko epea dute izena emateko. Ordutegiak, prezioa, umeei ematen zaien zerbitzua... argibide guztiak haurreskolan bertan emango dituzte. Ordutegi bat ezarri dute herritarrako: astelehenetik barikura bitartean 09:30etik 11:30era edo 13:30etik 15:00etara. Zerbitzua ezagutzera joateko dei egin dute.

### 60 erretiratuk egingo dute egun osoko irteera eguaztenean

Arrakasta izan du Xalbadorpe elkarteak herriko erretiratuendako antolatutako egun osoko txangoak. "Ordu erdian bete dugu autobusa", esan du Pedro Mari Ubera presidenteak. Esan duenez, 50 lagunendako autobusa zuten hitzartuta, baina, azkenean, 60 lagunekoa eskatu dute. Ordizia eta Hondarribia bisitatuko dituzte eguaztenean, hilak 8, Elgetatik 08:15ean irtenda. Bazkaria Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean egingo dute. Arratsaldeko plana eguraldiaren arabera erabakiko dute.

### Karpa magikoa eta magoak prest daude IX. Magia Mostrarako

Espaloitik aditzera eman dutenez, egun magikoak ditugu ate joka Elgetan. Inprobisazioa, sorkuntza, liluratzeko moduko trikimailuak... magia saio asko eta asko ikusi ditugu Elgetan, baina, antolatzaileen esanetan, aurtengo egitaraua lehen mailakoa da. Karpa magikoak hartu du Elgetako plaza ia osoa. Bertan, haurrendako tailerrak eta *Katia gorputzik gabeko emakumearen* ikuskizuna izango dira doan. Gaurko eta biharko ikuskizunetarako sarrerak, berriz, salgai daude kafe antzokian eta *www.espaloia.com* atarian.

LEINTZ GATZAGA

# Dantzan ikasteko deia, Gurel elkartearen eskutik

## Maiatzaren 10ean hasi eta ekainaren 8ra arteko ikastaroa antolatu dute, egubakoitzetan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Sanjuanei begira proposatutako ikastaroaz gainera, Gurel elkarteak beste dantza ikastaro bat ere antolatu du: arin-arinak eta fandangoak ikastekoa.

Maiatzaren 10ean hasita, egubakoitzero egin gura dute, pilotalekuan, 18:30etik 19:30ak bitartean. "Lau ostiraletan izango litzateke: maiatzeko guztiak gehi ekaineko lehenengoa", zehaztu du Inaxio Gabilondok, Gurel elkarteko ordezkariak.

Hark esandakoaren arabera, oraingo ikastaro honetarako izena eman beharra dago. Eta zertxobait ordaindu beharra ere badago: "Bi euro nagusi bakoitzak (umeek doan), eta 10 euro Gureleko kideak ez direnak. Izena, berriz, Labidean eman beharra dago".

### Tailerra eta irteera

Bestalde, gogora ekarri du bihar, zapatua, konponketa tailerra antolatu dutela plazan, 11:00etan hasita. Jostailuak, bizikletak, patinetean, baloiak…konpontzeko bi boluntario izango dituzte, beharra duen edozeini zerbitzua ematen.

Eta domekan, berriz, Atxorrotzerako mendi irteera egingo dutela, Atxorrotz Egunarekin bat eginez. Kasu horretan, 10:00etan elkartuko dira plazan, denok batera joateko: "Goiz pasako irteera izango da, ordu eta erdi edo bi ordu ingurukoa. Dorletatik igota joaten gara", zehaztu du.

### Pilota partiduak izango dira domekan Dorleta txapelketan

09:00etan hasita, zazpi pilota partidu jokatuko dituzte oraingo domekan pilotalekuan: hiru beteranoenak izango dira, bi alebinenak eta bana infantil eta kadeteenak. Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Lakua, Zaramaga, Azkoitia eta Amurrioko pilotariek jardungo dute elkarren kontra oraingo honetan.

KENPOA

**Josu Letona** | Kenpo borrokalaria

# "Urte borobila izan da aurtengoa, nork esango zidan munduko bigarrena izango nintzela!"

- Turkian jokatutako munduko txapelketan bigarren postua lortu du arrasatearrak
- Helburu eta erronka guztiak lortuta pozik bueltatu da, nahiz eta minduta ere etorri den

**ANE ETXEBERRIA** | ARRASATE

33 urte bete berri ditu Josu Letona arrasatearrak eta oparia Turkiatik ekarri du. Izan ere, mundu mailako kenpo txapelketan bigarren postua lortu du. Kirol ezezaguna bada ere gure artean, Espainiako txapelduna eta munduko txapeldunordea daukagu herrian, eta harekin hitz egiteko aukera izan dugu.

**Bigarren postua lortu duzu munduko txapelketan; pozik, ezta?**

Bai, orokorrean oso urte ona izan da. Munduko txapelketa batean bi modalitate ezberdinetan bigarren postua lortzea sekula espero izango ez nukeen zerbait da. Gainera, nire maisuak, Rafa Carrietek, 4. postua lortu zuen katatan. Horretaz aparte, Espainiako txapelketan Atama kenpo taldeak lortu dituen emaitzak oso onak izan dira. Miguel Angel Palacinek gerriko berdeetarainoko mailan txapela lortu zuen. Karla Zabalak gerriko marroi eta beltzen arteko borroka jarraian bigarren postua lortu zuen. Nik gerriko marroi eta beltzen arteko punturako borrokan bigarren postua lortu nuen. Eta aipatzekoa da Jose Luis Maqueda, Xabi Ferreiro, Alberto Narro eta Ruben Alonsok eginiko lana. Guk egiten dugun kenpo mota *Full Defensea* da eta Espainiako Federazioarengandik lortu nahi dugun ofizialtasun eta errekonozimenduari begira aurrerapauso izugarria izan da. Benetan urte borobila izan da.

**Zein zen zure helburua Turkiara joan aurretik?**

Egia esan, joan aurretik ez neukan erreferentzia handirik. Maila handia espero nuen. Urduritasunak alde batera utzi eta lan duina egitea nuen helburu. Eta, nola ez, lesio gogorrik gabe bueltatzea. Beraz, egindako lanarekin benetan pozik nago. Ederra izan da.

**Zer sentitzen da borrokan zabiltzan bitartean?**

Borroka hasi aurretik burua hotz mantentzea izaten da helburua. Aurkariak aztertu eta estrategia ezberdinak lantzen ditut. Semikenpo modalitatean (puntura), hori nahiko erraza da. Kenpo K1 (KOa bilatzen den modalitatea) modalitatean, berriz, gauzak asko aldatzen dira.

**Kontaktu askoko txapelketa izan dela badakigu...**

Kontaktua osoa izan da. Espainia mailako txapelketetan kontaktua nahiko murrizten da, baina kasu honetan ez da batere murriztu. Batez ere Kenpo K1 modalitatean aurkariaren KOa bilatu da eta nik parte hartu ez dudan modalitateetan, hau da, *Kenpo knockdown* eta *Kenpo submission* modalitateetan lesio asko egon dira. Egia esan, modalitate hauek ez dira oso bateragarriak hurrengo egunetan lanera bueltatzearekin.

**Min hartuta etorri zara; zer moduz zaude?**

Ba, egia esan, izter ingurua nahiko zigortu didate, bai. Finalerdian kolpe nahiko handia jaso nuen, eta, berotan igarri ez nuen arren, borroka amaitzean handitzen hasi zitzaidan eta mina areagotzen. Finala hasi eta gutxira beste kolpe bat jaso nuen eta handik gutxira bertan behera utzi behar izan nuen borroka. Baina min muskularra denez, nahiko azkar errekuperatuko naiz.

**Konta egiguzu Turkian bizi izan duzuna...**

Lehen egunean semikenpo modalitatean aritu ginen. Zorionez, emaitza nahiko onak izan ziren; beraz, honek presio handia kendu zigun gainetik. Bigarren egunean, borrokarik izan behar ez genuenez, Antalya ezagutzeko aukera izan genuen eguerditik iluntzera arte. Hirugarren eguna Kenpo K1 modalitatean jardun genuena izan zen, eta honen ostean sari banaketa. Orokorrean, kirolarien arteko harremana oso ona izan da. Agian, baten batzuek jarrera oldarkor xamarra izan dute, baina, gehienbat, giroa nahiko alaia izan da. Egia esan, munduko leku askotako kirolariekin lehiatzea eta haiek ezagutzea esperientzia izugarria izan da.

**Espainiako txapelketa jokatu duzu, orain mundu mailakoa... kirol honetan lor daitekeen maila gorenera heldu zarela esan daiteke?**

Ba, egia esan, arte martzial honetan hasi nintzenean ez nuen pentsatzen honaino helduko nintzenik. Mundu mailako federazio batek antolatutako txapelketetan aritzea amateur mailan eman daitekeen pausorik handiena da. Pentsatzen dut puntu honetara helduta aurrerapausoa eman nahi duenak ikuspuntu profesionaletik hartu beharko lukeela gaia. Baina hau ez da nire kasua.

**Zure hurrengo erronka?**

Ba, seguruenik hau izangoda parte hartzen dudan azken aldia. Hau da urtero txapelketen ostean pentsatzen dudana. 33 urte bete berri ditut eta ez dakit zenbat denbora gelditzen zaidan parte hartzaile bezala. Ikusiko dugu.



Letona, kenpoak duen mugimendu adierazgarriarekin. | JAGOBA DOMINGO



Josu Letona, beste parte hartzaileekin, saria jasotzen. | IKER LETONA

**"Urte borobila izan da aurtengoa; inoiz imajinatuko ez nukeena"**

**"30 selekzio desberdin eta 400 borrokalaritik gora izan gara Turkian"**

**"Maila handia izan da, eta kontaktu osoa; min hartuta etorri naiz"**

**"33 urte ditut... Agian, azken parte hartzea izan da aurtengoa, ez dakit"**

## 8 urte kenpoa praktikatzen

Josu Letona arrasatearrak 8 bat urte daramatza askorentzat ezezaguna den kirol hau praktikatzen. Anaiarekin hasi zen, hark praktikatzen baitzuen. Behin anaiarekin borrokatu eta jipoia jaso zuenez, kirol hau serioago praktikatzen hasi zen. Eskoriatzan talde polita dago eta haiekin entrenatzen da astean lau aldiz. Espainiako txapelduna eta munduko txapeldunordea da Letona, eta, aurten, helburu guztiak bete ditu; ea laster beste dominaren batekin bueltatzen den...

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.




Jon Odriozola, Iker Sanchez eta Markel Irizar, asteleheneko saioan. | XABIER URZELAI

TXIRRINDULARITZA

# "Talde profesionalek harrobiko klubei begira egin beharko lukete lan"

## Odriozola, Sanchez eta Irizar 'Harmailatik' saioan izan ziren bailarako ziklismoaz berbetan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Bergarako Bizikleta Jardunaldien barruan antolatutako mahaingurua izan zen astelehenekoa. Eta mahaiaren bueltan batu ziren Lokatza taldeko entrenatzaile Iker Sanchez, ikuspegi orokorragoa duen Eki Sport Gipuzkoa taldeko zuzendari Jon Odriozola, eta bailarako harrobiak eman duen profesionaletako bat, Markel Irizar.

Gai orokorra izanda ere, ibarrean errepideko txirrindularitza osasuntsu ote dagoen izan zen lehen galdera. Izan ere, profesional mailan hiru ordezkari ditugu (Irizar, Velasco eta Aristi) eta hori argigarria izan daiteke, edo ez. Iker Sanchez hasi zen berbetan: "Seguru Markel [Irizar] kadete mailan zebilen sasoia gaur egungoa baino askoz hobea zela, gazte gehiago zebiltzala sasoi hartan. Urte batzuetan beherakada handia egon zen, baina orain errekuperatzen dabil, kategoria txikietan neska-mutikoak dabiltza, eta ez nuke esango egoera txarra denik, baina bai hobetzeko modukoa". Lan horren erakusle dira azken hiru astetan Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Bergaran alebin eta infantilendako egin dituzten lasterketak: "Adin horretan txirrindularitzak jolas bat izan behar du".

**Guraso moduan, begi onez**

Irizarrek guraso ikuspuntutik egin zuen berba: "Semeetako batek esango balidake bizikletan ibiltzea nahi duela, animatu egingo nuke. Txirrindularitzak, maila horietan, hezkuntza ikuspuntutik oso balio positiboak dituela uste dut. Nik halaxe bizi izan nuen, nahiz eta egia den gazte-gaztetatik oso serio hartu nuela ziklismoa, profesionaletara iristeko bide hori da irakatsi zidatena".

**Harrobiko klubak, bakarrik**

Telebistako txirrindularitzak ondo landutako harrobia behar du, baina horretarako klubek laguntasuna behar dute. Hori izan zen Odriozolak azpimarratu zuena. Esaterako, ziklista gazteekin lan egiteko ondo prestatutako entrenatzaileak behar dira, borondate ona izatea ez delako nahikoa: "Badira bi urte guk proiektu bat aurkeztu genuela, baina hainbat arrazoi tarteko azken apustua egitea falta da. Proiektu horren asmoa da Gipuzkoan talde profesional bat sortzea, helburu garbi batzuekin. Talde txikia izan daiteke, ez da horrenbeste aurrekontu behar, baina helburu garbiak izan behar ditu. Gora begira egon beharrean, lurraldeko klubei begira egin beharko luke lan talde horrek, Dorletako Ama, Aloña Mendi edo Lokatza moduko klubekin hartu-emana izan, bertako entrenatzaileak hezteko lan egin, etxeko txirrindulari gazteei laguntzeko, ziklismoa eta ikasketak bateragarri egiteko unibertsitateekin hitzarmenak egin... Hori guztia jasota dago proiektuan, eta hori da herri honetan dugun talde profesionalean gaur egun egiten ez dena".

Euskaltel taldearen bilakaeraz oso kritiko, bailarara etorrita, Kanpanzar Harrobiak taldeak bailaran afizionatu mailan zegoen hutsunea bete izana azpimarratu zuen Odriozolak, izan ere, urtetan Debagoienean lasterketak bai, baina amateur mailan oso txirrindulari gutxi izan ditugu, eta talderik ere ez. Amaitzeko, gogoeta propioa: ederra da afizionatuetan horren maila ona izatea. Baina kontraesana dirudien arren, horrek ez die mesede egiten bizikletaz *gozatu* nahi duten amateurrei, profesionaletara salto egin nahi dutenekin lehiatu behar dutelako. Eta alde handiegia dago, ondorioz, bizikleta oso serio hartzen ez dutenek amore ematen dute.

ESANAK

**"Badatoz gazteak bizikletan ibiltzeko gogoz"**

IKER SANCHEZ | LOKATZA

**"Ziklismoak balio positiboak ditu haurrendako"**

MARKEL IRIZAR | RADIOSHACK

**"Entrenatzaileak hezi behar dira, borondatea ez da nahikoa"**

JON ODRIOZOLA | EKI GIPUZKOA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

**LIGA BBVA**
Getafe-Reala
Domeka. 12:00. Getafe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Zarautz-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Asti.
Hondarribia-Mondra
Zapatua. 16:30. Ondartza.
Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Argixao.
Real Union-Bergara
Zapatua. 16:30. Irun.

**ERREG. PREFERENTEA**
Zestoa-Antzuola
Zapatua. 15:30. Iraeta.

**1. ERREGIONALA IGOERA FASEA**
Añorga-Aretxabaleta UDA B
Zapatua. 17:00. Rezola.

**ERREGIONALA, KOPA**
Zestoa-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Zestoa.
Zumaiako-Bergara B
Zapatua. 17:45. Zumaia.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aurrera-Mondra
Domeka. 17:00. Zaldupe.
Orioko-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Orio.
Urola-Bergara
Domeka. 16:00. Argixao.

**GAZTEAK, IGOERA FASEA**
Aretxabaleta-Martutene
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**GAZTEAK, KOPA**
Ikasberri-Aloña Mendi
Domeka. 15:00. Azpeitia.

### ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Lagun Onak-Eskoriatza
Zapatua. 18:30. Galdakao.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Aretxabaleta-Hirukide
Zapatua. 17:00. Ibarra.

**KADETE MAILA**
Erain-Arizmendi Eskoriatza
Zapatua. 09:30. Donostia.

### SASKIBALOIA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Lizuan.com
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**GIPUZKOAKO SENIORRAK**
Astigarraga-MU A
Zapatua. 16:00. Astigarraga.
Bosteko-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.

**BIGARREN SENIOR MAILA**
Aloña Mendi-Orioko
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**HIRUGARREN SENIORRAK**
Cafes Aitona B- MU B
Zapatua. 20:00. Altza.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Eskoriatza-Cafes Aitona
Zapatua. 18:00. Manuel M.

**GAZTEAK, PARTAIDETZA**
Aloña Mendi-Arri BKL
Zapatua. 12:00. Zubikoa.
Zast zarautz-Soraluce BKE
Domeka. 16:00. Argixao.
Zast zarautz-Soraluce BKE
Domeka. 16:00. Argixao.
Easo Amara-MU B
Zapatua. 18:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**KOPA NAZIONAL MAILA**
Soraluce BKE-Elgoibar
Zapatua. 18:00. Bergara.

**KOPA, LURRALDEKO MAILA**
Izarraitz Aloña-Urola
Zapatua. 17:30. Oñati.

**KOPA, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Aiala zarautz
Egubakoitza. 20:00. Zubikoa.

### PILOTA

**GAUR, EGUBAKOITZA**
**Eskoriatzan, 19:00etan:**
Beloki-Rodriguez.
Eibar-Andonegi.
**Aretxabaletan, 19:00etan:**
Arrasate 2-LAPKE 1
Arrasate 3-LAPKE3
**Bergaran, 19:00etan:**
Bergara2-Goierri1
Bergara (Zubiz)-Intxurre (Jon)
Bergara (Perez)-Aretx (Errasti).
Bergara (Osa)-Aretx.(Etxeber.).
**Arrasaten, 20:30ean:**
Zuazua-Agirre
Arregi-Zubizarreta.

**ZAPATUAN**
**Arrasaten, 11:00etan:**
Iturriotz-Garmendia
Egia-Matxain
Garate-Arrue

### MENDI BIZIKLETA

**MUSAKOLAKO JAIETAKO MTB MARTXA**
Domeka. 09:00. Musakolan.

### ZIKLOTURISMOA

**ASPANOGI 6+3 MARTXA**
Domeka. 09:00. Bergara.

ESKUBALOIA

# Ford Mugarrik Santoñan jokatuko du igoera fasea datorren astean

X.U. | ARRASATE

Martitzenean jakinarazi zion Espainiako Federazioak Arrasateko Ford Mugarri eskubaloi taldeari non jokatuko duen igoera fasea, eta baita ze kontrario izango dituen aurrean ere. Santoñan (Kantabria) jokatuko dute fase erabakigarria, maiatzaren 10eko, 11ko eta 12ko aste bukaeran.

Hala, Arrasatekoekin batera, euren multzoetan onenak izan direlako egongo dira fase horretan Santoña –fasea antolatzeko apustu sendoena egin duen taldea–, Madrilgo Virgen Europa eta Galiziako ordezkari Pontevedra. Lehen partidua egubakoitzean, hilak 10, jokatuko dute Pablo Gartziaren mutilek, Virgen Europa taldearen kontra. Maiatzaren 11n izango da bigarren lehia, Pontevedraren aurka. Eta amaitzeko, domekan izango dute kontrario gogorrena, etxeko zaleen aurrean jokatuko duen Santoña izango du aurrean Ford Mugarrik.

Aurreratu bezala, Arrasateko taldeari ezer gutxirako balio izan dio fasea etxera ekartzeko lehenengo geratu izanak, mahai gainean diru gehien jarri duenak jokatuko du-eta etxean.

ZIKLOTURISMOA

## Domekan egingo dute Aspanogi 6+3 martxa zikloturista Bergaran

Domekan (09:00) 105 kilometroko martxa zikloturista egingo dute, Bergarako Agorrosin kirolgunetik abiatuta. Goizean bertan izena emateko aukera egongo da (federatuek 15 euro, ez federatuek 25), eta zikloturistek 6 mendate gainditu beharko dituzte. Izen-ematearen dirua Aspanogiri laguntzeko erabiliko dute.

PADELA

## Gaur ere eman daiteke izena AKEko III. Padel Txapelketan

17 bikotek eman dute izena gizonezkoen kategorian, 3 bikotek maila mistoan eta beste lauk emakumezkoetan. Baina antolatzaileek erabaki dute izen-emate epea gaur arte luzatzea (*ake.padel@gmail.com*). Asteburuan egingo dituzte taldeak, eta gero, bikoteek zehaztuko dituzte partiduen ordutegiak.

KULTURA

# Mendi Tour: mendia pantailan

- Mendia ardatz hartuta, zinema zikloa Amaia antzokian, maiatzaren 7an, 20:30ean
- Bilboko Mendi Film Festivalen erakutsitako eta saritutako zazpi film labur ikusgai

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Mendi Tour zinema emanaldia ekarriko du Amaia antzokira Besaide mendi elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Martitzeneko zinema zikloaren barruan, maiatzaren 7an, 20:30ean, erakutsiko dituzte Bilboko Mendi Film Festivalen iaz abenduan erakutsi eta saritutako zazpi film labur. Sarrera bost euro da.

**Mendia ardatz hartuta**

Askotariko estilo eta formulak erabilita, mendia agertoki moduan batzuetan, mendian praktikatzen diren kirolak oinarri hartuta beste batzuetan, edo jarduera horietako protagonisten izaera eta bizimodu aintzat hartutako kontakizunak batzen dituzte pelikula horietan; betiere, mendia ardatz hartuta.

Batzuetan hitzekin edo musikarekin jantzita, beste batzuetan giro soinua izanik entzuten den bakarra, irudi ikusgarriek ematen diote bereziki indarra kontatutako istorioei; mendizaleez gainera, askotariko ikusleei, gozamenerako, hausnarketarako, ondo pasatzeko, eta hunkitzeko bidea emanez.

**Mendia ardatz hartuta**

Mendi Film Festivalen adar bat da Mendi Tour jaialdia, Bilboko jaialdian erakutsitakoa Euskal Herrian zehar zabaltzeko bidea ematen duena. Herriz herriko programazioak egiten dituzte, erakutsiko duten herriaren edo elkartearen ezaugarri edo zaletasunen arabera. Arrasateko egitaraua Besaidekoekin elkarlanean osatu dute. "Festibalean hainbat egunetan erakutsitakoaren aukeraketa bat da Arrasatera ekarriko duguna. Zerrenda egiterakoan hainbat kontu uztartu ditugu: saritutako lanak; euskarazko azpitituluak dituzten zein gertuko gai edo protagonistak dituztenak izan dira, besteak beste, kontuan hartutakoak. Iazko mendi astean Alex Txikon Arrasaten izan genuenez, Txikonen lana ekarriko dugu eta Pou anaiak gasteiztarrak izateak ere izan du eragina", dio Aitor Zubiagak, Besaide mendi taldeko presidenteak. Bilbon estreinatu zuten Pou anaien *Nit de bruixes* 3D filma zineman erakutsiko duten bigarren aldia da Arrasatekoa.



*Nit de bruixes* filma, Iker eta Eneko Pou anaiek Katalunian 3Dn eginikoa . | MENDI FILM FESTIVAL



*Origins: Obe and Ashima* filma. | MENDI FILM FESTIVAL



Alex Txikon protagonista den *Bajo Cero*. | MENDI FILM FESTIVAL

**Besaide eta Udalaren eskutik**

Besaideren iazko batzarrean mendi zinemaldia herrira ekartzea pentsatu zuten. Udalari proposatu zioten orduan, eta, haren laguntzarekin, Arrasateko eta beste herri batzuetatik joandako 300 bat ikusle batu ziren Amaia antzokian; txalo zaparradekin eskertu zuten erakutsitakoa. Iazko harrera ikusita, Mendi Tour zinema zikloaren bigarren edizioa egiteko proposamena egin zion berriz ere Besaidek Udalari; Udalak diruz lagundu du, ekoizpenaren kostua bere gain hartuz, eta mendi taldearenak izan dira, besteak beste, zabalkunde lanak. Asmoa urtero egitea dela diote Besaidetik, eta badirudi Mendi Film Festivaletik ez dutela trabarik izango, iaz txunditura gelditu ziren-eta antzokiaren ezaugarri eta kalitate paregabeaz.

**Munduan erreferente**

2008an abiatu zuten zinema jaialdia 2012. urtean Bilbora eroan zuten, Gasteizen egiteko zituzten arazo ekonomikoak eta, era berean, zinemaldiak izan duen hazkundeak bultzatuta. Euskal Herrian erabat errotuta dagoen jaialdia mundu mailan ere erreferente bilakatu da, Jabi Baraiazarra Mendi Film Festivaleko sortzailearen esanetan: "Goi mailako pelikulak erakusteko agertokiaz gainera, protagonistendako eta atzean dauden teknikarien ezinbesteko topaleku ere bilakatu da. Inspirazio iturri handia ere badena herrietara zabaldu dugu".

**JABI BARAIAZARRA** | MENDIFILMFESTIVAL TALDEKOA

## "Filmak mendietatik haratago doaz"



JABI BARAIAZARRA

2008an abiatutako Mendi Film Festival jaialdia nazioartean erreferente da gaur egun.

**Ze ibilbide izan duzue?**

Sumatzen genuen hutsunea betetzeko abiatu genuen lagun talde batek mendia ardatz hartutako zinema jaialdia. Gaur egun mundu mailan ere sona handia du, zinemagile, mendizale eta kirolarien artean.

**Eta zer da Mendi Tour?**

Jaialdiaren adar bat; urteroko edizioko onena herrietako zinemetan erakusteko asmoa duena.

**Mendizaleentzako bakarrik ez.**

Hori da gure borroka; film horiek mendietatik haratago doaz. Ikusgarriak izateaz gainera, bizitzari beste modu baten begiratzeko aukera ematen digute.

## Mendi Tour

**Of Souls + Water: The Nomad**

7' | Ingelesa | Euskarazko azpitituluak

Eric Boomer *Nomad*, Idahoko kayaklaria, da protagonista. Irudi ikaragarriekin, Boomerren nortasunaren gaineko gogoeta jasotzen du.

**Why?**

8' | Ingelesa | Euskarazko azpitituluak

Hiru kirolariren ahotik hiru kirol jardun batzen ditu: kayaka, mendi bizikleta eta eskalada. Praktikatzen duten jardunaren zergatia azaltzen du bakoitzak.

**Moonwalk**

4' | Mutua

Irudi ikaragarriak eta akzioz betetako film bizia. Musikarik eta hitzik ez duena eta plano sekuentzia bakarrekoa. Dean Potter eskalatzailea da protagonista.

**Bajo cero**

20' | Gaztelera

Alex Txikon eta Carlos Suarez eskalatzaileen arteko solasaldi gordina. Aurreko espedizioan desagertutako hiru kideen gainean jarduten dute.

**Origins: Obe and Ashima**

22' | Ingelesa | Euskarazko azpitit.

New Yorken bizi den Japoniako neskatila eskalatzailearen eta haren entrenatzailearen arteko harremanaren istorioa.

**Silbergeier**

20' | Frantsesa | Euskarazko azpitit.

Erritmo eta umore handiko film freskoa. Nina Capres eskalatzailearen istorioa.

**Nit de bruixes**

8' | Gaztelera | 3 D

Iker eta Eneko Pou anaiek Katalunian grabatutakoa. Iazko Bilboko jaialdian estreinatua; Arrasatekoa du bigarren emanaldia.

# Zer ikasi dezaket dudan ikasketa mailatik abiatuta? Nola heldu naiteke Lanbide Heziketara? Zer ikasi dezaket hemen inguruan?

**Galdera horiek guztiak eta gehiago erantzuteko prest izango gaituzu Azokako stand desberdinetan.**

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**FORMAZIOA**
**LANERAKO AUKERA!**

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak

**ANTOLATZAILEA**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Nafarroa etorbidea, 17 - behea
20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)
Tel.: 943 79 30 90 Faxa: 943 79 67 72
*garapen-agentzia@debagoiena.net www.debagoiena.com*

GRUPO spri — *www.facebook.com/goiazdebagoiena* — Gipuzkoa BERRIA
EUSKADI Goza ezazu — EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA / DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO — Gipuzkoako Foru Aldundia: Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua / Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

**Non:** Kulturateko klaustroan, Arrasate.
**Noiz:** Maiatzak 8 eta 9
**Azoka ordutegia:** 09:30-13:30 eta 16:00-19:00

## Maiatzak 8, asteazkena

____ **Ikasleentzat**

**09:30 - EKINTZAILETASUN ESPERIENTZIAK**
____Kulturateko Areto Nagusian

**11:30 - "INTERNETEN ZE IRUDI ARI NAIZ EMATEN?"**
____Kulturateko Areto Nagusian

____ **Jende ororentzat**

**17:00 - INTERNET-EN LANA BILATZEKO HERRAMINTAK (ES)**
- On-line reputazioa. Nola zaindu dezaket nire on-line reputazioa?
- Nola sortu dezaket nire on-line reputazioa?
- Internet-en presentzia lortzeko herramintak
- Zein tresna eskaintzen ditu Internetek lana bilatzeko?
Lan-eskaintzen atariak, sare-sozialak, enpresen web orriak, …

>> Miguel Fernandez Arrieta
IKTetan irakasle eta ikerlaria (MGEP-MU)
____Kulturateko Areto Nagusian

## Maiatzak 9, osteguna

___ **Jende ororentzat**

**10:00 (euskaraz) / 18:00 (Gazteleraz)**
**"LANBIDE HEZIKETAREN SISTEMA INTEGRATUAK ZER DAUKA LANGILE ETA LANGABETUEI ESKAINTZEKO? EZAGUTU ZURE AUKERAK."**
>> Gloria Gonzalez Marco
Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisistema Integratzeko Teknikaria (Lanbide)
____Biteri gelan.


**Roberto Lozano**
*"Lanpostu konkretu batzuetan, lanbide heziketak erraztasun handiagoa eskaintzen du lan munduan sartzeko"*


**Patricia Yuste**
*"Madrildik Aretxabaletara etortzeak benetan merezi izan du"*


**Xabier Agirre**
*" Lanbide Heziketak, lan arlora sartzeko erraztasunak ematen ditu"*


**Mikel Naranjo**
*"Lanbide Heziketak unibertsitatera heltzeko bidea zabaldu dit"*


**Andoni Bernal**
*"Lanbide Heziketako ikasketak lan merkatura bideratuago daude"*


**Jon Urkia**
*"Lanera begira, praktikoak diren ezagupenak ikasten dira"*

**PARTEHARTZAILEAK AZOKAN**

Oñati gestio heziketa — Oñatiko b.h. institutua — Mariaren Lagundia Ikastola — Miguel Altuna Institutua Bergara — arizmendi ikastola — Aretxabaleta Lanbide Eskola — MGEP — arrasate epa-hhi — AKADEMIA BASTIDA
IKASI — bizikasi — alecop — kutxa — Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua / Servicio Vasco de Empleo — EURES — Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón — Bergarako Udala — Oñatiko udala — Aretxabaletako Udala — saiolan

# Asteburua Atxorrotzera begira

## Ekitaldiz betetako aste bukaerarekin ospatuko dute Atxorrotz eguna

**IMANOL GALLEGO** | ESKORIATZA

Urtero moduan, maiatzeko lehen aste bukaera data berezia izango da Eskoriatzan. Atxorrotz eguna gogotsu hartzen dute eskoriatzarrek, eta, hala, maiatzeko lehen asteburua ekitaldiz betea izango dute.

Atxorrotz eguna, baina, ez da Eskoriatzan asteburu honetan egingo duten ospakizun bakarra. Aitzorrotz elkarteak ere, urte osoan antolatzen dituen kultura ekintzen barruan, zapatu honetan bere eguna ospatuko du. Aitzorrotz elkarteko kide Iñaki Kortazarren hitzetan, "euskara eta kultura sustatzeko eguna izango da".

Eskoriatzako elkarteak festa giroan ospatu nahi du bere eguna, eta, horregatik, kultura, aisialdia eta kirola festa berean batu ditu. Ekintza gehienek plaza izango dute agertoki, baina jai giroa herri osoan igarriko da. Herri bazkaria ere plazan izango da; nagusiek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek, berriz, 10 euro. Eta bazkariaren ostean, plazan bertan, gainera, txikiak entretenitzeko asmoarekin, Potx eta Motx pailazoek saioa eskainiko dute.

Aipatzekoa da Aitzorrotz elkarteak, urte osoan egiten dituen ekintzez gain, egun berezi horretarako egiten duen lan handia. Izan ere, egun horretan, Inkernu tabernaren aurrean joko duten taldeen artean, kontzertu berezi bat egongo da. Balerdi Balerdi taldeak, bananduta egon eta gero, berriro elkartzea erabaki du, eta zapatukoa gure bailaran, elkartu ostean, eskainiko duten lehenengo kontzertua izango da.



Atxorrotz egunean jende ugari batzen da. | GOIENA

### Domeka, egun handia

Dudarik gabe, domekakoa izango da egun handiena. Ohiturak agintzen duen moduan, txistularien dianaren ostean, 09:30ean Atxorrotzera igoera izango da. 11:00etan meza entzun ostean, 12:30ean Iñaki Sagredoren eskutik Atxorrotzen egiten ari diren indusketak ezagutzeko aukera egongo da. Goiza mendian igaro ostean, festa herrira jaitsiko da. Arratsaldeko seietan, herritarrek egindako tortillak salgai jarriko dituzte, eta, aste bukaerari amaiera emateko, plazan Herrixa Dantzan ekimena egingo dute.

Bada, antolatzaileek adin tarte guztiei zuzendutako ekintzak antolatu eta gero, asteburuan guztion parte hartzea besterik ez da falta.

### ASTEBURUKO EGITARAUA

**ZAPATUA**

**10:30** Saskibaloia: kadeteak.
**10:30** Saskibaloia: gazteak.
**11:00** Etxafuegoak.
**11:45** Kalejira txistulari eta buruhandiekin.
**12:00** Sagardo eta talo postuen irekitzea.
**13:00** Bertsolariak plazan.
**14:00** Bertso triki-poteoa.
**15:00** Herri bazkaria plazan.
**17:30** Potx eta Motx pailazoak plazan.
**18:00** Menim eta Balerdi Balerdi. Inkernu kanpoan.
**18:00** Saskibaloia: seniorrak.
**20:00** Triki-poteoa.
**22:30** Never Surrender Inkernu kanpoan.

**DOMEKA**

**09:00** Diana txistulariekin.
**09:30** Atxorrotzera igoera.
**11:00** Meza.
**12:30** Iñaki Sagredoren eskutik Atxorrotzeko indusketak ikusteko bisita.
**18:00** Herritarrek egindako tortillen salmenta plazan.
**18:00** Herrixa Dantzan.

# Lehen aldiz Magia Mostran haurrentzako magia tailerra

**I.G.** | ELGETA

Erronka ez da erraza izango, baina 6 eta 12 urte bitarteko haurrek magia mundura erakartzeko saioa antolatu du Elgetako Magia Mostrak lehen aldiz.

Bideojoko eta haurren ohiko jolasetatik urrun, Elgetako plazan egingo den tailerrean ipuin, istorio, pertsonaia eta legenden bitartez, fantasiaren eta ilusioaren mundura sarrera bat izango da.

Magiaren eta ilusionismoaren diziplina ezberdinak jorratuko dira bertan: karta-jokoak, ilusio-optikoak, objektuen mentalismoa... Betiere, magian horren ohiko bihurtu diren materialak erabilita. Horretarako, umeek eskulanen bitartez euren material magiko propioa sortuko dute.

### Sormena lantzeko tailerra

Magia izango da tailerraren helburua, baina, horretaz gain, haurrek sormena, irudimena eta eskulanak egiteko trebezia ere landuko dute.

Gasteizko Magialdia jaialdian ikusle eta parte hartzaileen erantzuna ikusi ostean, argi dago haurrek ederto pasatzen dutela. Elgetako Magia Mostrak gazteek magiaren mundua hobeto ezagut dezaten antolatutako tailerrean ere gogotik disfrutatuko dute.



Haurrek, truku ugari ikasteaz gainera, ederki pasako dute. | MAGIA TAILERRAK



Bergarako Musika Eskolakoak, Hondarribian eskainitako kontzertuaren ostean. | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

# 'Ahotsen soinua' emanaldia Santa Marina parrokian

## Emanaldi bakarra izango den arren, adin askotariko hiru abesbatzak hartuko dute parte

**I.G.** | BERGARA

Apirilean Musika zikloaren barruan, biharko, 20:00etan, *Ahotsen soinua* emanaldia antolatu du Bergarako Musika Eskolak. Santa Marina parrokiak, hiru adin tartetan banatutako ekitaldian, herriko abesbatzen kantaldia hartuko du. 150 gaztek hartuko dute parte, eta, Marije Ugalde antolatzailearen hitzetan, "oso emanaldi anitza izango da".

### Mota guztietako musika

Gurean ahotsak eta abesbatzek garrantzi handia dutela konturatuta, Bergarako Musika Eskolak ahotsa bereziki zaindu duen arloa da. Horregatik, gazteen trebakuntzan, abesbatzan parte hartzeko aukera izaten dute.

Zapatuko kontzertuan, kantari gazteak hiru abesbatzatan batu dituzte: hasiberrien abesbatza (5-8 urte bitarteko haurrak), haurren abesbatza (9-12 urte bitartekoak) eta Gabero (12 urtetik gorakoak). Gazteenek Brasil eta Afrikako abesti herrikoiak kantatuko dituzte. Bigarrenek musika erlijiosoa eta The Police eta The Beatles taldeen doinuak tartekatuko dituzte. Emanaldia borobiltzeko, nagusiek askotariko doinu motak uztartuko dituzte. Emanaldiak ordubete iraungo du, eta, Santa Marina parrokiak toki handia daukan arren, garaiz joatea komeni da.

Kantaldia aurtengo Apirilean Musika zikloaren azken emanaldietako bat izango da. Izan ere, datorren zapatuan hari-taldeak Orioko topaketan egingo duen emanaldiaren ondoren, maiatzaren 14ko ipuin pedagogikoa besterik ez da falta izango.

## '3, 2... zast, egizu jolas', bertsoak eta jolasak Zabalotegin

Etxeko txikienentzako bertso-antzezlana ekarriko du Ttinbili Ttanbala antzerki taldeak Bergarako Zabalotegi aretora domekan, 18:00etan, lau euroren truke. Haurrei zuzenduta dagoen ikuskizunak antzerkia, txotxongiloak eta bertsogintza uztartuko ditu. Libe, Ximon eta Ander izango dira arratsaldeko protagonistak eta ikuskizunean agertuko diren txotxongiloek proposatutako proba batzuen bidez, umeekin jolastu eta abestuko dute.

## Sugeak eta ilusionistak etzi, domekan, Laino skate parkean

Hiru eta lau metroko sugeek, bihurrikariek, ilusionistek eta magiak bat egingo dute domeka arratsaldean Bergarako Laino skate parkean. Portugaldik datorren Espectaculos Silver zirkuak geldialdia egingo du Bergarako skate parkean, 18:00etan hasita, eta sarrera doan izango da. Espainiako Estatuan barrena biran dago zirkua, eta, sugeekin egingo dituzten ikuskizunez gain, haurrentzako magia jolasak ere egingo dituzte.


Sumision City Blues zuzenean. | GOIENA

# Sumision City Blues gaur Iluntz tabernan, 'Angelines' aurkezten

▶ Bi aste barru Fiachras taldearekin single berria kaleratuko dute

▶ Punk jarrera eta kantu onak uztartzen ditu boskote gasteiztarrak

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Sumision City Blues taldeak egiten duen musika definitzea ezinezkoa izatetik gertu dago. Rock-and-rollaren hainbat estilo ezberdin bereganatu eta guztiekin koktel bat egiten dute. Hala ere, haien kantuek badute ezaugarri komun bat, arima eta punk jarrera. Sumision City Bluesek zigilu propioa du, eta, hortaz, gozatzeko aukera paregabea da gaur Arrasateko Iluntz tabernan 22:30ean eskainiko duten kontzertua.

### 'Single' berria kaleratzear

Esan bezala, rock-and-rolla mugarik gabe eta inongo lotsarik gabe interpretatzen dute underground musikaren eszenan oso ezagunak diren musikari hauek. Eta hilabete batzuetako lasaitasuna alde batera utzita, bueltan dira, Fiachras taldearekin batera argitaratuko duten singlea aurkezteko asmoz.

Disko labur berrian talde bakoitzaren bi kantu berri egongo dira. Sumision City Blueskoen kasuan, Gasteizko Sonora Studioan grabatu dituzte, kontrolean Martin Guridi zutela. *Bandcamp* webgunean dagoeneko entzungai dago *Angelines* kantua, eta beste kantua *Besar a cualquiera* izango da. Taldean ohikoa den moduan, bi kantuen aldea nabaria da, baina *Pela*-ren hitzek nortasun berezia ematen diete biei ala biei.

### Ibilbide labur baina emankorra

Sumision City Blues ez da talde beteranoa, baina, urte hauetan, lan batzuk kaleratu dituzte. Betiere, lan motzak izan dira, bi edo lau kantukoak. Hain zuzen ere, lehenengoa lau kantuz osatutako *Sumision City Blues* disko laburra izan zen, 2011n, eta, horrekin batera, beste hiru kantu argitaratu zituzten 7"-ko biniloan. Ondorengo pausoa 2012an kaleratu zuten *El odio, la ternura y la demacración humana* disko laburra izan zen. Aurten, berriz, *Gasteiz Dirt Capital* izeneko bilduman beste bi kantu sartu dituzte eta bi aste barru Fiachras bergararrekin batera beste bi argitaratuko dituzte.

Guztira, hamahiru kantu eta beste bi heltzear, eta guztiekin gozatzeko aukera gaur, 22:30ean, Iluntz tabernan, doan.



ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

ROOMBA 620 — 350 € — iRobot
GARBIGAILUA 3TS - 8GS — 1200 b/min, 6 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — 299 € — Balay
GARBIGAILUA F-7212 — 1200 b/min, 7 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — 399 € — FAGOR
GARBIGAILUA F-7212X — 1200 b/min, 7 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — 475 € — FAGOR
GARBIGAILUA F-8212 — 1200 b/min, 8 Kg — A++ Sailkapen energetikoa — 430 € — FAGOR
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13 — A++ Sailkapen energetikoa — 399 € — FAGOR
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-19X — 8 Kg — 450 € — FAGOR
KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE — 8 Kg — 420 € — FAGOR
INDUKZIO PLAKA URBAN I-33S — 365 € — edesa
INDUKZIO PLAKA IF-33BS — 465 € — FAGOR
LABE PIROLITIKOA 6H-760AX — 450 €
BERMEA 2 URTE

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A++ 70%
A+ 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Josu Cid rap abeslari aretxabaletarra.

ANDER LARRAÑAGA

**Josu Cid | Rap abeslaria**

# "Pazientzia izatea da garrantzitsuena, eta ez rapean bakarrik, gauza guztietan orokorrean"

**ANDER LARRAÑAGA** | ARETXABALETA

Josu Cid (Aretxabaleta, 1991) txikitatik egon da rap munduan; 10 urte zituenetik bizi izan du musika mota hau, etxean, anaia nagusiak entzuten zuelako. Urte batzuk geroago, errimak egiten hasi zen, eta, kantu batzuk grabatu ondoren, lan batzuk argitaratu ditu, bakarrik zein konpainian. Honez gain, ahal duen guztietan oholtza batera igotzen da zainetan daraman erritmoa ikusleari erakusteko.

**Nola definituko zenuke zure musika? Zer kontatzen duzu zure kantuetan?**

Rap munduan guztiok egiten dugu antzekoa. Nork bere bizitza eta anekdotak kontatzen ditu, edota zerbaiten inguruan iritzia ematen du.

**Zenbat lan edo disko argitaratu dituzu orain arte?**

Orain dela lau urte, *Diosu 2009* izeneko maketa txiki bat grabatu nuen. Hasiera batean, estudio batean egin nahi nuen, baina, diru nahikorik ez nuenez, mikrofonoak, bozgorailuak eta beharrezko materiala erosi eta etxean muntatu nuen estudioa. Lagun batek *Vikario Pesadilla en VKR* izeneko diskoa kaleratu berri du eta pare bat abestitan ere kolaboratu dut.

**Bat-bateko inprobisazioa jorratzen duzu kontzertuetan ala aurrez prestatutako abestiak?**

Gehienetan, prestatuak izaten dira. Batzuetan, aldiz, barrutik ateratzen zaidana egiten dut eta inprobisaziorantz jotzen dut; unearen arabera izaten da.

**Zertan desberdintzen da hip-hop musika gainontzeko musikatik?**

Adierazpen askatasunean, gehienbat. Rap abestietan dezente gehiago esaten dira pentsatzen diren gauzak beste estilo batzuetako abestietan baino.

**Zein beste talde edo abeslarirekin parte hartu duzu abesti edo emanaldietan?**

Normalean, lagunekin igotzen nahiz agertokira. Urte hauetan zehar jende asko ezagutu dut, eta, azken diskoan, Kodigo Norteko DJ batzuekin grabatu ditugu kantuak.

**Zein da rap musikaren egoera Debagoienean eta, orokorrean, Euskal Herrian?**

Ez du indar handirik. Edozelan ere, herriaren arabera da; leku batzuetan nahiko zabalduta dago eta beste batzuetan, ez. Arrasaten, adibidez, jende dezentek entzuten du; Aretxabaletan, aldiz, ia inork. Azkenaldian, rapa moda ere bilakatu da, musika estilo bat izateaz gainera. Baina rapa ez da hori bakarrik; izan ere, bizi izateko modu bat ere badela esango nuke.

**Rapak eta bertsolaritzak puntu asko dituzte batera. Zuk ere bizi al duzu bertsolaritza rapa bezain beste?**

Bertsolaritza ez dut askorik jarraitzen, baina egia da nahiko antzekoak direla. Hala ere, desberdintasuna da rapak musika duela atzetik; hau da, instrumentalagoa da. Bertsolaritza, aldiz, ahots hutsean oinarritzen da, gehienetan.

**Rap txapelketaren batean parte hartu izan duzu inoiz?**

Red Bull txapelketan parte hartzeko asmoa nuen, baina, azkenean, ez nintzen aurkeztu, denboraldi baterako utzi bainuen musika. Horrez gain, hemen inguruan egin diren hip-hop ekitaldi batzuetan igo izan naiz oholtzara errima batzuk egiteko eta, bide batez, nire musika ezagutzera emateko.

**Rap musika egiteaz gainera, zein beste zaletasun dituzu?**

Margotzea oso gustuko dut eta betidanik egin dudan zerbait da. Denboraldi batez, break dancea egin nuen, baina, nire indargunea ez zela ikusita, utzi egin nuen. Bestetik, kirolak ere oso gustuko ditut; gehienbat, futbola eta saskibaloia.

**Zer gomendatuko zenieke rap munduan hasiberriak direnei?**

Pazientzia izatea da garrantzitsuena, ez rapean bakarrik, gauza guztietan orokorrean. Denbora luzea eskaini behar zaio afizio honi, apurka-apurka ikasten eta hobetzen joateko.

### PERTSONALA

**Rap abeslari bat:** Kosta.

**Rap jaialdirik gustukoena:** Caceresko La Raya Rap jaialdia.

**Bidaiatzeko toki bat:** New York.

**Bidaia gustukoena:** Madrilera neskalagunarekin joan nintzenean.

**Erronka bat:** Rap munduko musikatik bizi izatea.

**Zure herriko txokorik kutunena:** Herriko Plaza.

**Liburu bat:** Mario Lunaren *SexCode.*

**Janari gustukoena:** Kebaba.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Leintz-Gatzaga.** Etxea salgai erdigunean. Orube handia dauka aldamenean. 160.000 euro. Deitu 677 52 46 71 edo 615 74 13 47 telefono zenbakietara.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 685 72 78 12

**Bergara.** Etxebizitza interesgarria ematen da errentan erdigunean. Garajearekin, eguzkitsua eta guztiz hornitua. 688 62 39 45

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. 648 46 90 51

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 629 80 77 73

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 300 euro gastu guztiak barne. Deitu 619 83 13 51 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Olaia. 687 26 46 58

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Ruben. 688 694 976

## 2. GARAJEAK

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Harane Erreka auzoan garajea hartuko nuke errentan. 617 78 73 21

**Oñati.** Garaje itxia hartuko nuke errentan. Kokapena eta tamaina berdin zait, urtean zehar asko erabiltzen ez diren gauzak gordetzeko nahiko bainuke. Gehien axola zaidan kontzeptua ekonomikoa izatea da, ez baitut asko erabiliko. Trasteleku bat ere izan daiteke. 625 70 86 49

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke Errekalde edo Moiua kaleen inguruan. 650 27 05 78

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Ama kale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzerako gurako nuke. 630 13 08 92

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Taberna salgai
Alde Zaharrean.
Tel. 666 40 65 19

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gaztea arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasten. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 77 43 24

**Arrasate.** 54 emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko esperientzias. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Bergara, Arrasate eta Oñatin.** lan egingo nuke. Garbitasun lanak: etxebizitzak, tabernak, atarteak eta abar. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. Orduka ere bai. Berehala lanean hasteko moduan. 625 86 99 51

**Bergara.** Emakume euskalduna prest goizetan etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 96 19 22

**Bergara.** Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna, ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Debagoiena.** 18 urteko mutil espainiarrak lorategizaintza lanak egingo lituzke. Gidabaimena eta esperientzia. Deitu 722 32 43 67 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: nagusiak eta haurrak zaintzen zein atari, etxe eta abarren garbiketan. Brenda. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 13 02 48

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: tabernako sukaldean, garbiketak egiten, zaintzan eta abar. Hotelean lan egin izan dut. Autoa daukat. 636 11 23 40 edo 648 10 26 53

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Gauez ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 96 08 22

**Debagoiena.** Eritzaintza tituludun neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. 943 76 48 26 edo 650 17 74 87

**Debagoiena.** Mutila lanereko gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. 943 53 35 82 edo 691 72 67 38

INMOBILIARIA KOROSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m2. 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350 €. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan lan egingo nuke: garajeak, baserriak, tabernak eta etxebizitzak garbitzen, baita mezulari moduan ere. Pascual. 625 96 73 33

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: nagusiak zaintzen, taberna, jatetxe eta abarrak garbitzen, gidari edo igeltsari. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen edo nekazaritzan aritzeko nintzateke. Etxean bizi izaten edo orduka. Lege dokumentuak eta erreferentziak ditut. 630 45 51 03

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: zaintza lanetan zein atari, taberna eta abarrak garbitzen. 661 94 19 13

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea prest lana egiteko. 943 79 96 25

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernan. Bertan bizi izaten ere bai. 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Etxean bizi izaten edo bestela. 617 64 08 48.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketak egingo niutzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. 615 06 28 04.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Manikura eta pedikura lanak ere egingo nituzke. 727 74 42 36

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zein garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 68 12 79

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketak egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Udan umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. 653 70 85 52

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14.

**Debagoiena.** Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danny. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska zaintza lanetarako gertu: etxean bizi izaten, egun osoz zein orduka. 671 10 39 13

**Debagoiena.** Nicaraguako neska nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 722 14 42 86

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

**Debagoiena.** Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. 647 10 58 72

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Loretegi lanak eta eraikuntza lanak egingo nituzke. Biurtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiten ere lagundu nezake. 663 34 70 36

**Sukaldari laguntzailea lanerako prest.** Debagoieneko herri guztietan sukaldari laguntzailea, zerbitzaria eta garbitzailea eskaintzen da. 610 93 98 21

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Ekonometria.** Ekonometria ikasgaia ematen duen irakasle bila nabil. Deitu 652 73 12 34 zenbakira.

**Plano mekanikoak.** Goi zikloko plano mekanikoen interpretazioan laguntzeko eskola partikularrak jasoko nituzke, astean bizpahiru egunez. 646 36 68 02 edo 943 76 47 56.

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak opari.** Brako eta ardi txakur nahasketa. Astebete daukate. Beltz kolorekoak. 637 90 57 15

**Txakurkumeak.** Aurki bi hilabete egingo dituzten txakurkume mestizoak ematen ditut opari. Inigo. 688 92 00 86

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoi diatonikoa.** Tekladuna, salgai. Polita. 80 baxukoa. 400 euro. Atzerrira bizitzera noalako saltzen dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

### 802. EROSI

**Akordeoi kromatikoa.** Akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 607 16 03 60 edo 607 15 26 62.

**Babycook duo.** Babycook duo erosi nahi dut. 635 70 05 14

**Haurren aulkirako zakuak.** Bugaboo Donkey haurren aulkirako bi zaku berdin erosiko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 70 05 14

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

### 804. HARTU

**Musika tresnak.** Batukada Feministak perkusioko musika tresnak behar ditu, nahiz eta egoera txarrean egon, birziklatu egingo dugu. Etxean edo entsailu lokaletan musika tresnaren bat kentzeko edo botatzeko edukiz gero, jarri harremanetan 615 78 10 68 telefonoran.

### 806. GALDU

**Belarritakoa Bergaran.** San Pedro kalea eta Correos bitartean erdian zirkonita brillantea duen zilarrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitzea eskertuko nizuke. 637 52 89 83

**Betaurrekoak Bergaran.** Orain dela aste batzuk Bergarako erdialdean, eguzkitako betaurreko batzuk galdu nituen. Graduatuta daude. Fundaren barruan zeuden. Beltzak eta txuriak dira. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 617 51 27 71

**HTC telefono mugikorra.** Larunbat iluntzean edo gauean, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolan. Zuria da. Mesedez, aurkitu duenak dei diezadala: 695 95 07 24

**Marmot jaka beltza.** Zira beltza galdu dut: Marmot etxekoa, baltza eta txanoarekin. Aurkitu baduzu deitu eidazu mesedez eta bila fango naiz. Eskerrik asko. 678 53 12 25

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Euskara-Frantsesa.** Mintzapraktika egiteko jende bila nabil. Deitu 685 76 59 73 telefonora.

## ASTEA GOIENAN



JULEN IRIONDO

### Aravis eta Sasies mendateetan gora

Frantziako Alpeak alderik alde bizikletan zeharkatzeko abenturan, hirugarren eguna izango du oraingoa Julen Iriondok. Aravis eta Sasies mendateak igo beharko ditu, ez mendate zailegiak, baina beste burukomin batzuk izango ditu bidean...
**'Pedalka'**
Eguena, 21:50:


ZUZEU.COM

### Gaurkotasuna umore eta ironia kutsuarekin

Gorka Bereziartuak eta Unai Break aurkeztutako programan egunerokotasunarekin loturiko albisteak umore eta ironia kutsuarekin kontatzen dituzte. *Argia* aldizkariak astean behin Interneterako propio sortutako programa da *Beranduegi.tv.*
**'Beranduegi.tv'**
Zapatua, 17:51:

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA 3

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Onein
**14:10** Pedalka
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** AZK2012
**15:58** Ikusmira
**16:28** Beranduegi.tv
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Planik bai?
**17:23** Berriak
**17:43** Eguraldia
**17:46** Planik bai?
**18:06** Altxorraren bila
**18:38** Zorion Agurrak
**18:41** 28.Klip
**19:13** Beranduegi.tv
**19:43** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:13** Planik bai?
**20:35** Gurean gaur
**21:05** Pedalka
**21:35** AZK2012
**22:07** AsteON
**22:37** Berriak
**22:57** Eguraldia
**23:00** AsteON
**23:30** Planik bai?
**23:50** Berriak
**00:02** AZK2012

### ZAPATUA 4

**10:00** 28.Klip
**10:31** Zorion Agurrak
**10:36** AZK2012
**11:36** Magazinea
**12:36** Onein
**13:03** Berriak
**13:18** Atik Zra
**14:18** Magazinea
**15:18** Zorion Agurrak
**15:23** Onein
**15:49** Planik bai?
**16:09** Hitzlandia
**16:36** AsteON
**17:06** Pedalka
**17:36** Zorion Agurrak
**17:41** Beranduegi.tv
**18:05** Magazinea
**19:05** Planik bai?
**19:25** Berriak
**19:40** Altxorraren bila
**20:12** AsteON
**20:48** Beranduegi.tv
**21:12** Bertso saioa
**21:47** Pedalka
**22:17** Magazinea
**23:17** Berriak
**23:32** AsteON
**00:55** Beranduegi.tv

### DOMEKA 5

**10:00** Klaketa
**10:37** Zorion Agurrak
**10:42** Onein
**11:09** AZK2012
**12:09** Ikusi irratia
**12:39** Onein
**13:05** Magazinea
**14:05** AsteON
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Altxorraren bila
**15:17** Pedalka
**15:47** Prozaka.eus
**16:57** Bertso saioa
**17:32** Beranduegi.tv
**17:56** Klaketa
**18:33** Atik Zra
**19:33** Magazinea
**20:33** Berriak
**20:48** Zorion Agurrak
**20:53** AsteON
**21:23** Ekogune
**21:53** AZK2012
**22:53** Klaketa
**23:30** Beranduegi.tv
**23:55** Magazinea
**00:38** Berriak
**00:58** Eguraldia

### ASTELEHENA 6

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:36** Onein
**14:14** Ekogune
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AZK2012
**16:18** Pedalka
**16:48** Zorion Agurrak
**16:53** Berriak
**17:18** Eguraldia
**17:21** Onein
**17:47** Ikusi irratia
**18:21** Ekogune
**18:51** Ikusmira
**19:14** Altxorraren bila
**19:46** Zorion Agurrak
**19:51** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**22:00** Harmailatik
**22:45** Berriak
**23:05** Eguraldia
**23:08** Magazinea
**23:53** Harmailatik

### MARTITZENA 7

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:50** Onein
**16:25** AsteON
**16:55** Zorion Agurrak
**17:00** Berriak
**17:20** Eguraldia
**17:23** AZK2012
**17:48** Altxorraren bila
**18:20** Ikusi irratia
**18:56** Harmailatik
**19:41** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** AZK2012
**22:00** Berriak
**22:20** Eguraldia
**22:25** Magazinea
**23:10** Bizitegia
**23:38** Berriak
**23:58** Eguraldia
**00:23** Berriak
**00:43** Eguraldia
**00:46** Magazinea

### EGUAZTENA 8

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:18** Harmailatik
**14:03** Pedalka
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:45** Onein
**16:07** Harmailatik
**16:52** AZK2012
**17:22** Zorion Agurrak
**17:27** Berriak
**17:47** Eguraldia
**17:49** Ikusmira
**18:05** Ikusi irratia
**18:38** Bizitegia
**19:08** Beranduegi.tv
**19:38** Zorion Agurrak
**19:44** Berriak
**20:09** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:31** AsteON
**22:01** Ekogune
**22:31** Berriak
**22:51** Eguraldia
**22:53** Magazinea
**23:38** Harmailatik
**00:10** Berriak
**00:30** Eguraldia

### EGUENA 9

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Altxorraren bila
**13:47** Ikusmira
**14:03** Onein
**14:41** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Ikusmira
**15:29** AZK2012
**15:59** Berriak
**16:19** Eguraldia
**16:22** Onein
**16:57** Bertso saioa
**17:32** Planik bai?
**17:52** Hitzlandia
**18:19** AZK2012
**18:49** Onein
**19:08** Zorion Agurrak
**19:13** Beranduegi.tv
**19:38** Planik bai?
**19:58** Berriak
**20:18** Eguraldia
**20:20** Magazinea
**21:05** Gurean gaur
**21:35** Pedalka
**22:05** Planik bai?
**22:25** Berriak
**22:45** Eguraldia
**22:48** Magazinea
**23:33** Klaketa
**00:03** Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

### 'Publikoari gorroto' antzerkirako sarrerak egueneko zozketan

Datorren asteko egueneko zozketan, Kooltur Ostegunetan antolatutako ekintzarako sarrerak ditugu. *Publikoari gorroto* antzerkia eskainiko dute Huts Teatroko kideek gaztetxean. Sarrerak nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

### 'Igo autobusera' saioan Mondraren mendeurrena gaur

Gaurko *Igo autobusera* saioko elkarrizketatua Fernando Lazpiur izango da eta Mondra futbol taldearen mendeurrenaren inguruan hitz egingo dugu harekin. Ospakizunen berri izango dugu eta Mondraren 100 urteak errepasatuko ditugu gaurko saioan Arrasate Irratian, 107.7an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 4** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Domeka, 5** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 6** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Martitzena, 7** | ERKUDEN | Zarugalde, 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguaztena, 8** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguena, 9** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 4** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 5** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 6** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 7** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 8** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 9** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 3** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 4** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 5** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 6** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 7** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 8** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 9** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 17º
Min. 10º

**ZAPATUA, 4**
Egun eguzkitsua izango da zapatukoa. Goizean giro ona nagusi izango da eta arratsalde inguruan tenperaturak gora egingo du.



Max. 19º
Min. 10º

**DOMEKA, 5**
Eguzkia eta giro ona nagusi izango da; hala ere, hodeitza sartzen joango da. Ez du euririk egingo domekan.

### EUSKAL HERRIA



Giro ona asteburu osoan, eguzkia nagusi izango da; hala ere, hodei batzuk egongo dira tartean.

## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Lan orientatzaileak** Debagoieneko Mankomunitatea. Lan poltsa osatzeko deialdia egin du Mankomunitateak. Epea: maiatzak 6.

**Ekonomialaria** Debabarreneko Mankomunitatea. Aldi baterako ekonomialari-teknikaria behar dute. Epea: maiatzak 6.

**Idazkaritza, kontratazio eta ondare teknikaria** Durangoko Udala. Lan poltsa osatu nahi dute. Epea: maiatzak 9.

**Gaztelaniazko irakasleak** Hezkuntza Ministerioa. Atzerriko herrialdeetan lan egiteko (Bulgaria, Txina, Eslovakia, Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Errusia eta Turkia). Epea: maiatzak 13.

**Begiraleak** Uztaileko udalekuetarako begiraleak behar dira Arrasaterako (maiatzak 10) eta Bergararako (maiatzak 17).

### BEKAK

**Kazetari praktikak *Berria*-n** Udan *Berria* egunkarian praktikak. Sarbide probak hiriburuetan maiatzaren 14an.

**Nazioarteko bekak** Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Unibertsitateko gazte tituludunak nazioartekotzearen alorrean prestatzeko beka Epea: maiatzak 20.

**Graduondoak** Caja Madrid. AEBetan, Kanadan eta Europan graduondoko prestakuntza, Caja Madrid bekak 2013-2014. Epea: maiatzak 8.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net




### Honorino eta Amelia

Honorino Marcos eta Amelia Fernandez aretxabaletarrak berriz ezkonduko dira maiatzaren 4an, Mendiolan. "Hori da marka hori! Har ezazue familiakoen partetik zorion agur bero bat zuen urrezko ezteietan. Ondo pasatu (bir)ezkontza eguna, eutsi zuen maitasunari eta majo bizi!".



### Mikel eta Itxaso

Mikel Nin eta Itxaso Ibarruri zapatuan, maiatzaren 4an, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zuen eguna heldu da eta elkarrekin oso ondo pasatzeko desiratzen gaude. Musuak, koadrilakoen partetik".

## HILDAKOAK

**Maitere Markuleta Lete.** Oñatin, apirilaren 25ean. 65 urte.
**Angel Torres Eneriz.** Bergaran, apirilaren 26an. 82 urte.
**Juan Bautista Agorria Burgoa.** Arrasaten, apirilaren 28an. 68 urte.
**Pedro Aiastui Bikuña.** Oñatin, apirilaren 29an. 88 urte.
**Ana Maria Bengoa Bedia.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 86 urte.
**Bernabe Garcia Poza.** Bergaran, apirilaren 30ean. 82 urte.
**Jesus Urbieta Zubikarai.** Bergaran, apirilaren 30ean. 92 urte.
**M. Concepcion Sopelana Gonzalez.** Bergaran, apirilaren 30ean. 91 urte.
**Julian Beitia Oruna**. Bergaran, apirilaren 30ean. 90 urte.
**Hilaria Antxustegi Asumendi.** Bergaran, maiatzaren 1ean. 81 urte.

OROIGARRIA

## Mikel Perea Uribe-Echevarria



Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 25ean, 31 urte zituela.

*Isilean joan zara baina*
*zure epeltasuna eta umorea*
*gurekin geratzen dira.*

**Zure betiko lagunak**
**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 3an.**

OROIGARRIA

## Aitor Guridi Iriarte



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko,*
*gure artean egongo zara betiko.*

**Maite eta Junkal.**
**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 3an.**

OROIGARRIA

## Jesus Urbieta Zubikarai



Osintxun hil zen 2013ko apirilaren 30ean, 92 urte zituela.

*Agur, aitxitxa maitia,*
*ez dugu inoiz ahaztuko zure irribarrea eta beti izango zara gure bihotzean.*

**Zure bilobak: Iñigo eta Leire, Eneritz eta Bixen, Janire eta Jon, Ainhoa eta Iban, Nerea eta Mikel, Ion; Birlobak: Maddi eta Maialen.**
**Osintxun, 2013ko maiatzaren 3an.**

OROIGARRIA

## Juan Bautista Agorria Burgoa



Iruñean hil zen 2013ko apirilaren 28an, 68 urte zituela.

*Urak dakarrena urak daroa*
*Zuk emandakoa gurekin geratzen da.*
*Bihotzez.*

**Emaztea: M. Antonia Beitia; alabak: Olatz eta Joseba Bartolome; Idurre eta Ibai Urzelai. Lobak: Naroa, Oier, Oxel eta Aretx.**
**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 3an.**

OROIGARRIA

## Juan Bautista Agorria Burgoa



*Zu bezalakoei esker euskararen iturria ez da agortuko.*
*Eskerrik asko, Juan Bautista*

aed arrasate euskaldun dezagun

**AED.**
**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 3an.**

ESKER ONA

## Bernabe Garcia Poza



Bergaran hil zen 2013ko apirilaren 30ean, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2013ko maiatzaren 3an.**

ESKER ONA

## Ana Maria Bengoa Bedia



Mateo Iturberen alarguna

Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 30ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko senideen izenean.

**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 3an.**

URTEURRENA

## Julia Urcelay Lizarralde



Oñatin hil zen 2012ko maiatzaren 4an, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
maiatzaren 4an, 19:00etan, Oñatiko
Mikel Deunaren Eliza Nagusian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2013ko maiatzaren 3an.**

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**ARRASATE IX. Musikaldia**
Arrasate Musikaleko txistulari bandak txisturako obra klasikoak eta moldaketak joko ditu. Ekitaldian lagun, dantzan, Lore Gazteak taldekoak izango dituzte. Musikaldia ekimenaren barruan antolatutako emanaldia izango da. Domekan, aldiz, Sonar haize boskoteak eskainiko du kontzertua parrokian.
Bihar, zapatua, herriko plazan 19:00etan.


ARANTZAZU EZKIBEL


JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI Pirritx, Porrotx eta Marimotots**
Euskal Herriko pailazo ezagunenek *Sentitu, pentsatu, ekin* ikuskizuna eskainiko dute Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Txantxiku Ikastolaren egunaren barruan antolatutako emanaldia izango da.
Bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian 17:00etan.

# NON-ZER

MAIATZAK 3
MAIATZAK 9

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Okene Abrego, Mariano Hurtado eta Buterflai**
Egubakoitzak kartzelan ekimenak Okene Abrego eta Mariano Hurtado bikotea ekarriko ditu gaztetxera. Eurekin batera Buterflai bakarlaria izango da taula gainean. Gitarra bat nahikoa izango du abestiak sortzeko.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:00etan.

**OÑATI Kobra, Bagauda eta Zurraia**
San Migel txiki jaietako rock emanaldia. Doan izango da.
Gaur, egubakoitza, San Anton plazatxoan 22:30ean.

**ARRASATE Sumision City Blues**
Sumision City Blue seta Fiachras taldeek Iluntz taberna girotuko dute. Doako emanaldia izango da.
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan 22:00etan.

**ESKORIATZA Menim eta Balerdi Balerdi**
Zapatuan Aitzorrotz Kultur Elkartearen eguna ospatuko da Eskoriatzan. Egun osoko egitaraua prestatu dute, non musikak garrantzia izanen duen. Doan izango da.
Bihar, zapatua, Inkernu tabernaren kanpoaldean 18:00etan.

**ESKORIATZA Never Surrender**
Zapatuan Aitzorrotz Kultur Elkartearen eguna ospatuko da Eskoriatzan. Egun osoko egitaraua prestatu dute: iluntzean Never Surrender taldeak girotuko du Inkernu kanpoaldea.
Bihar, zapatua, Inkernu tabernaren kanpoaldean 22:30ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA '3, 2, Zast...Egizu jolas!' antzerkia**
3 eta 8 urte bitarteko haurrendako bertso-antzezlana izango da. Sarrera 4 euro.
Etzi, domeka, Zabalotegin 18:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA Zirkoa**
Ilusionistak, kontorsionistak, magia, sugeak... Laino skate parkean. Sarrera doan izango da.
Etzi, domeka, Laino skate parkean18:00etan.

**ELGETA Magia Mostra: 'Katia, gorputzik gabeko emakumea'**
Bi emanaldi eskainiko dute.
Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Herriko plazako karpan 19:00etan eta 13:00etan.

**ELGETA Magia Gala Dani DaOrtiz aurkezlearekin**
Dani DaOrtiz (aurkezlea), Luis Boyano, Tá Na Manga, Mario Lopez, Nestor Hato eta Edama. Sarrera: 18 euro (15 euro bazkideendako). Bi ikuskizunetarako bonoak, barikukoa eta zapatukoa: 21 euro (bazkideak 18 euro).
Bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian 22:30ean.

**ELGETA Magia Mostra: Dani DaOrtiz**
Lehen mailako magoa. Sarrera 15 euro (12 euro bazkideek).
Gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian 22:30ean.

## DANTZA

**ESKORIATZA Herrixa Dantzan**
Gidatutako dantzaldia, dantza tradizionalekin osatutakoa: sokan, korruan, bikoteka... denetarik.

Parte-hartzea libre. Musika zuzenean Jainaga eta Narbaiza bikoteak jarriko du. Gidaria: Patxi Montero. Antolatzailea: Eskoriatzako Udala (Atxorrotz Eguna)
Etzi, domeka, plazan 18:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA San Migel Monte**
Maiatzaren 8an Angiozarren.
Maiatzaren 8a, eguaztena, 08:00etan.


JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA Bisita gidatua: Dorretxe eta Jauregi artean**
Bisita honetan parte hartzeko izena aldez aurretik eman beharra dago. XVI. mendeko balkoi ederrak, fatxada ikaragarriak, blasoiak eta bitxikeriak Bergarako kaleetan zehar paseatzen goazenean.
Bihar, zapatua, Bergaran 17:00etan.

**BERGARA Santikurutz eta Irukurutzetako erromeria**
Santikutz eta Irukurutzetako erromeria egingo dute.
Etzi, domeka, 08:00etan.

**ARRASATE Konpartsaren ate irekiera eguna**
Arrasateko konpartsak ate ireki eguna antolatu du partaide beharrean daudelako. 18:00etan kontzertua Saiolan eraikinean Repelencua eta The Convits; erraldoiak eta kilikiak erabiltzeko aukera; txistorra pintxoak.
Bihar, zapatua, 18:00etan Saiolanen.

## UMEAK

**ELGETA Magia tailerrak umeendako**
Doan herriko plazan egongo den karpan. 6-12 urte bitarteko umeendako.
Etzi, domeka, Herriko plazako karpan 10:30ean.

**ELGETA Magia tailerrak umeendako**
Doan herriko plazan. 6-12 urte bitarteko umeendako.
Bihar, zapatua, Herriko plazako karpan 16:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Pol-Pol Mendi Taldearen argazki zaharren erakusketa**
Maiatzaren 3tik 19ra bitartean Aroztegi aretoan.
Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan 18:00etan.

**ARRASATE Jabier de la Iglesia**
Maiatzaren 3tik 12ra bitartean Harresi aretoan.
Gaur, egubakoitza, Harresi aretoan 11:00etan.

LORABARRI ASTEA
Maiatzean ARAMAIXON
hitzaldiak, tailerrak, eskolako umeekin irteerak...
11 LARUNBATA 10etatik aurrera AZOKA Bixente Goikoetxea Plazan
gazta, ortuzain ekologikoak, moxal haragia, sagardoa, ogi ekologikoa, sendabelarrak, ardoa, garagardoa
bidezko merkataritza, haurrentzako tailerrak, musika
4 LARUNBATA ibilbide kulturala IBARRAN
5 IGANDEA sendabelar ibilbidea erakusketa SASTIÑAN
7 ASTEARTEA eskolako jangelen antolaketa ereduak KULTUR ETXEAN
8 ASTEAZKENA sagargintza ekologikoa UNTZILLAN
9 OSTEGUNA ogi ekologikoa egiteko tailerra AZKOAGAN
10 OSTIRALA xaboi tailerra IBARRAN
AOBT ARAMAILUR ARAMAIOKO UDALA ARBEL ASE BADAU ARUE
ELKARTASUNA GURASO ELKARTEA ESNE EKOIZLEEN TALDEA IRIKIÑ JARINDO SAN MARTIN ESKOLA
BIZI SAGARDOA


IKUTU DANTZA TALDEA

**ARETXABALETA Dantza ikuskizuna**
Gasteizko Ikutu Dantza taldeak *Amets Soinua* dantza emanaldia eskainiko du Arkupen. Ikuskizunean piano jole baten laguntza izango dute, eta Garazi Lopez de Armentia, berriz, dantzari gonbidatua izango da.
Bihar, zapatua, Arkupen 19:30ean..

## LITERATURA

**BERGARA 'Historia universal del hombre gato'**
*Historia universal del hombre gato* liburuari buruzko mahai-ingurua egingo dute. Inazio Mujika Iraola, Alberdania argitaletxeko editorea; eta, Josu Arteaga liburuak izan duen ibilbideaz mintzatuko dira.
Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean 18:00etan.

## HITZALDIAK

**ESKORIATZA Lunbalgiari buruzko hitzaldia**
Aitor Odriozolak lunbalgiari buruz berba egingo du. Amuska elkarteak antolatuta.
Maiatzaren 8a, eguaztena, Kultura etxean 18:00etan.

**ARETXABALETA 'Ez dut zigortu nahi!' hitzaldia**
Kuku Miku elkarteak antolatuta, Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko duen berbaldia.
Maiatzaren 6a, astelehena, Kuku Miku elkartean 17:30ean.

**BERGARA 'Gizakia eta bere oreka lotuta dago bere sustraiarekin' hitzaldi makrobiotikoa**
Irizar jauregian izango da hitzaldi makrobiotikoa.
Gaur, egubakoitza, Irizar Jauregian 19:00etan.

**ANTZUOLA 'Atzerritarren Legea'**
Atzerritartasun Legeari buruzko hitzaldia.
Maiatzaren 6a, astelehena, Olaran Etxean 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**BERGARA BEART eguna**
Beart elkarteko margolariek euren lanak plazara aterako dituzte eta ikusgai jarriko dute.
Etzi, domeka, herriko plazan 08:00etan.

## DEIA

**OÑATI Arantzazuko ikasle ohien bazkaria**
Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatuta, Arantzazuko seminarioko ikasle ohien bazkaria egingo dute etzi, domeka. Bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu behar ditu Euskadiko Kutxan zabaldutako kontu korronte zenbakian.
Etzi, domeka, Arantzazun 14:30ean.

**ANTZUOLA Txistularien diana herrian zehar**
Herriko txistulariek diana egingo dute herriko kaleetan.
Etzi, domeka, Herriko kaleetan 10:00etan.

**DEBAGOIENA Herri Urratsera joateko autobusa**
Debagoieneko euskara elkarteek autobusa antolatuko dute maiatzaren 12an Herri Urratsera joateko. Irteera orduak honako hauek izango dira: 8:45ean, Aretxabaletatik (Azbe); 9:00etan, Arrasatetik (Garibai); 9:15ean, Bergaratik (autobus geltokia). Txartelak Loramendi, AED eta Jardun elkarteetan eskura daitezke 12 euroren truke (10 euro elkarteetako bazkide izanez gero).
Aretxabaletatik, Arrasatetik eta Bergaratik irtengo dira autobusak maiatzaren 12an.

## KIROLA

**ESKORIATZA Eskalada jaialdia egingo dute kiroldegian**
Eskalada jaialdia antolatu dute lehenengo aldiz Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian.
Maiatzaren 7a, martitzena, Manuel Muñoz kiroldegian 17:00etan.

**ESKORIATZA Saskibaloia: seniorrak**
Senior taldeko neskak Cafes Aitona A taldearen kontra.
Bihar, zapatua, Manuel Muñoz kiroldegian 18:00etan.

**ESKORIATZA Saskibaloia: gazteak**
Gazte mailako neskek Añorgaren kontra jokatuko dute.
Bihar, zapatua, Manuel Muñoz kiroldegian 10:30ean.

**ANTZUOLA Kimu eta Haur mailako pilota partiduak**
Lehen faseko azken jardunaldia jokatuko dute Kimu eta Haur mailan. 19:00etan.
Gaur, egubakoitza, Pilotalekuan 19:00etan.

**OÑATI 'Nor polikiago' lasterketa**
San Migel txiki jaietan txirrindularitza lasterketa egingo dute: poliki joatea da helburua.
Bihar, zapatua, Kale Zaharrean 12:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La cocinera del presidente**
Zapatuan: 17:30, 22:00.
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

**Oz, un mundo de fantasia**
Zapatuan eta domekan: 17:00.

**MENDI TOUR maratoia**
(Ikus 22. orrialdea.)

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**La combustion**
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehenean: 19:30.

### EIBAR

**KOLISEO**

**Grandes esperanzas**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatua:17:00, 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**Los amantes pasajeros**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan:17:00, 19:45, 22:30.
Domekan: 17:00, 20:00.
Astelehenean: 20:30

**KOLISEO ANTZOKIA**

**La gran boda**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**Iron Man 3D**
Zapatuan eta domekan: 17:00.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**Oblivion**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Iron Man 3**
Egubakoitzean: 17:15, 19:45, 22:30.
Zapatuan: 12:00, 17:15, 19:45, 22:30.
Domekan: 2:00, 17:15, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Noches de vino y copas**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domekan: 17:00, 18:45, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Un gran equipo**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Barbara**
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.
Domekan: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La gran boda**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domekan: 17:00, 18:45, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Ayer no termina nunca**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20.30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El metodo Arrieta**
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:45, 22:30.
Domekan: 18:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Tierra prometida**
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

**Los croods**
Egubakoitzean: 16:50, 18:40.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50, 18:40.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**La caza**
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.
Domekan: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**GORBEIA**

**Scary Movie**
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 19:55, 22:05.
Zapatuan, baita: 0:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:35.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:15, 22:00.

**Buscando a Nemo**
Zapatuan eta domekan: 16:00.

**Buscando a Nemo 3D**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 18:35.

**Iron Man**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:00.

**Iron Man 3D**
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:45.
Zapatuan, baita: 23:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

**Un gran equipo**
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 19:10.

**Combustion**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:10, 22:20.
Zapatuan, baita: 0:30.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:50.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:15.

**Tierra prometida**
Egubakoitzetik domekara: 19.30, 21:40.
Zapatuan, baita: 23:50.
Astelehenetik eguenera: 18:35, 20:50.

**Un lugar donde refugiarse**
Egubakoitzetik domekara: 21:45.
Zapatuan, baita: 0:10.
Astelehenetik eguenera: 21:20.

**Oblivion**
Egubakoitzean: 17:40, 20:05, 22:30.
Zapatuan eta domekan: 16:30, 19:00, 21:30, 0:00.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 21:10.

**Gi Joe: La venganza**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:45.

**Memorias de un zoombie**
Egubakoitzetik domekara: 20:15, 22:15,.
Zapatuan, baita: 0:15.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**Posesion infernal**
Egubakoitzean: 17:30.
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Argo**
Zapatuan: 23:00.

**Los croods 3D**
Zapatuan eta domekan: 16:00.

**Los croods**
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

**Jack el cazagigantes**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Los muppets**
Zapatuan eta domekan: 17:30.

**BOULEVARD**

**Buscando a Nemo**
Zapatuan eta domekan: 16:00.

**Buscando a Nemo 3D**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

**Scary Movie**
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:40.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:15, 22:00.

**La gran boda griega**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:20, 22:20.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:20.
Astelehenetik eguenera: 18:35, 20:20, 22:05.

**Iron Man 3**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 18:15, 20:00, 20:45, 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:15.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:00, 21:00, 21:30.

**Iron Man 3 3D**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:00.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:15.

**Oblivion**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:15.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:15.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:20.

**Oz: un mundo de fantasia**
Egubakoitzetik domekara: 17:50.

**Combustion**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 19:15, 21:45.

**Los Muppets**
Zapatuan eta domekan: 17:30.

**Memorias de un zoombie**
Egubakoitzetik domekara: 20:25, 22:25.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:25.
Astelehenetik eguenera: 18:55, 20:55.

**Un lugar donde refugiarse**
Egubakoitzetik domekara: 20:05, 22:25.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**Efectos secundarios**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Alacran enamorado**
Egubakoitzetik domekara: 20:35.

**Posesion Infernal**
Egubakoitzetik domekara: 22:35.
Zapatuan eta domekan, baita: 0:35.
Astelehenetik eguenera: 21:05.

**Los Croods**
Egubakoitzetik domekara: 18:05.
Zapatu eta domekan, baita: 16:05.
Astelehenetik eguenera: 18:40.

**Los croods 3D**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

## KRITIKA



**BARBARA** ★★★★★

**Zuzendaria:** Christian Petzold.
**Herrialdea:** Alemania.
**Urtea:** 2012.
**Aktoreak:** Nina Hoss, Ronald Zehrfeld, Rainer Bock.
**Iraupena:** 100 minutu.

# Hoztasunean galduta

B*arbara* filma 1980. urteko Alemanian kokatzen da. Oraindik Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemania zeuden garaian. Kontrol handiko garaia zen, edonork zerbait susmagarria eginez gero, berehala norbait bere gainean agertzen zen. Egoera hori filmaren atmosferan nabarmentzen da. Mediku batek arazo batzuk izango ditu, ondorioz, herri txiki batera joango da lan egitera. Neska nahiko hotza da, mesfidatia; baina, arrazoiarekin, izan ere beti dauka norbait jarraika.

Ospitalean lan egiten du eta ez du nahi beste medikuekin harremanik estutu. Baina, normala den moduan, tratuarekin harremanak sortzeko aukera izango du, eta hor dago gakoa: zabaldu behar gara sortzen diren harreman berrietara edo mesfidantzaren menpean bizi behar dugu? Hor dago gakoa, eta galdera nahiko interesgarria badirudi ere, filmean ez dakite oso ondo nola erantzun galdera horri. Bai, igartzen da garai hori nahiko zapaltzailea eta grisa izan zela. Ondo dago garai horretara hurbiltzea eta ematen ziren ezaugarriak azaltzea, baina izan daiteke garai horren hoztasuna eta tristura istorioa garatzeko momentuan filmean finkatzea. Eta hori da Barbararekin gertatzen dena. Igarri daiteke 80ko hamarkada latza eta iluna izan zela, baina hori kontatzeko bizitasun handiagoa izan behar da. Istorioan mediku bat agertzen da, ez dakigu ondo zer gertatu zitzaion. Bere atzetik beti dago norbait, bere pauso guztiak zaintzen. Badago ere handik ateratzeko laguntza eman nahi dion jendea eta tratu txarrak jasaten dituzten neska gazteak; baina, dena ondo zehaztu gabe agertzen da. Bai, badakigu garai txarra izan zela, garai zapaltzailea zela, eta jendeak zailtasun ugari izan zituela behar den bezala bizitzeko. Baina narrazioak zerbait gehiago izan behar du. Gauzak azaltzeko intentsitate handiagoa izan behar du eta film honetan ez da horrelakorik gertatzen.

ANTONIO ZABALA

ana zubillaga ©




goiena"

2013-05-03






Bertso-Derry ekimenean parte hartutako euskaldunak Derryko pareta ezagunean (Irlanda). | JOSEBA GABILONDO

# Gaelikoz ere egin daiteke bertsotan

- 50 euskaldun inguru Derryn izan ziren, irlandarren eta euskaldunen arteko loturak indartzeko
- Emaitza bikaina ikusita, Bertso-Derry izena ipini dioten ekimena hurrengo urtean ere egingo dute

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Joan den asteburuan bertsoak, euskaraz barik, gaelikoz entzun ahal izan ziren Derryn. Irlandaren eta Euskal Herriaren arteko senidetasuna indartzeko helburuarekin, 50 euskaldun inguru Irlandako Derry hirira joan ziren aste bukaera pasatzera; baita debagoiendar batzuk ere. "Ekimen hori duela urte batzuk Bertso-Diner izenarekin hasi zuen Beñat Etxebarria errefuxiatuak Belfasten. Aurten Derryra joan garenez, izena aldatu diogu: Aurtengoa Bertso-Derry izan da", kontatu digu bertan izan den Ander Elortondo arrasatearrak.

**Bertsotan eta kantuan**

Elortondok Derryn egin zieten harrera beroa azpimarratu du, eta baita asteburu osoan izandako giro bikaina ere. Anje Duhalde abeslaria ere lagun izan dute bidaian eta egubakoitz iluntzean kontzertua eskaini zuen; gaelikoz ere kantatu zituen hainbat abesti. Zapatuan izan zen egun handia. Lehenengo, trikipoteo modukoa egin zuten Otxandioko soinu-jole batekin eta arratsaldean, Bertso-Derry: "100 lagun inguru batu ginen bazkaltzeko. Bertso saioan, bi herrialdeen arteko loturak egiten saiatu ginen uneoro. Gai-jartzaileak, esaterako, lau bertsoren puntuak gaelikoz ipini zituen".

**Hurrengo urtekoa lotuta**

2014an Bertso-Derry izango denik ezin zalantzak jarri. Euskal Herrira data ipinita itzuli dira. Datorren urteko Maiatzaren 1eko zubian euskarak eta gaelikoak bat egingo dute berriz Derryn.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



## Maiatzaren 1a eta greba orokorra

Zutabea idazten ari naizen honetan Maiatzaren Lehena da. Munduko langileriaren eguna. Urteotan inoiz baino jipoituago daudenen borroka eguna. Eibarren izan naiz *Borrokatu, matxinatu, irauli* lelopean egin den manifestazioan. Bi ideia nagusirekin gelditu naiz: aurtengo Maiatzaren Lehena eta hilabete bukaerarako deitutako greba orokorra inflexio-puntu izango omen dira eskubide sozialean aldarrikapenean eta lanketan. Sindikatuek egun isolatuetatik harantzagoko lanketa proposatu digute. Heldu beharreko erronka, dudarik gabe. Egoera irauli nahi badugu eguneroko lanarekin egin besterik ez daukagu. Bigarren ideia burujabetzarik gabe ez dugula egoera irauliko izan da. Guztiz ados. Gure etorkizuna erabakitzeko ahalmenik gabe, ezin egoera irauli. Beraz, erronka biak uztartu eta etorkizun libre baterako bidea egiten hastea dagokigu.

Bien bitartean, Iñigo Urkullu lehendakariari PPri eta PSEri hiru herrialdeetarako akordio iraunkorra eskaintzen entzun diot. PNVk goian aipatutako kontrako norabidean egin nahi du etorkizuna. Eskuinetik eta espainolen eskutik eraiki nahi du etorkizuneko Euskal Herria.

Horra hor, proiektu politikoen arteko aldea.

